

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-10-23
EGUBAKOITZA
657. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Iriarte handia gogoan

Txistulariaren mendeurrena da | 14




Demetrio Iriarte. | GOIENA

Funts putre bati salaketa, Arrasateko familia baten zorra erosteagatik | 3



Alternatiba bila Bilbora joateko gonbita | 3



Zientzian, teknologian eta berrikuntzan murgilduko dira | 2



Erabiltzeko zain


Erabilerarik ez duten eremu publikoak auzolanaren bitartez berreskura daitezkeen hausnartuko dute Elgetan | 9



Goitik eta ezkerretik hasita: zeramika gela, beste gela bat, Helduen Heziketa Iraunkorrerako gela eta argazkilaritza gela.



LARRAITZ ZEBERIO



ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira. Ez ahaztu!

Oilarren arteko eskubaloari derbia

Arrasateko eta Oñatiko taldeak aurrez aurre izango dira bihar Arrasaten | 26



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Maite Iturbe, EITB Taldeko zuzendari nagusia
- Garabideren 'Beltzean mintzo' dokumentala

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

SINADURAK




Zientzia fikzioa etxean | 7
VALEN MOÑUX



Berdagunean dena galduta | 7
XABI URZELAI



Gora, gure erreka! | 12
IBON ARRUPÉ



Kim O | 14
JULEN ABASOLO



Bergara bizirik 'bixi'-ra | 18
MAIALEN MADARIAGA



UBIK | 20
MARINA ETXEGOIEN



Orain, hemien erabakia | 40
AINTZANE OIARBIDE

Zientzian, teknologian eta berrikuntzan murgiltzeko hamabost egun Bergaran

Wolframaren erabilera fusioan, umorezko bakarrizketa zientifikoak, robotika azoka, bideo jokoan lehiaketa... urriaren 30etik azaroaren 14ra

JULEN IRIONDO | BERGARA

Orain arte Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) Astea izan denak ikuspegia eta esparrua zabaldu, eta Laboratorium museo sortu berriaren gerizpean –Udala, Berelan eta Miguel Altuna Institutua ere badira antolatzaile–, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldi izena, eta izana, hartu du. Industriaren eta merkataritzaren garapena helburu, teknologia berriei eskaintzen dituzten aukeren inguruan sentsibilizazioa eta prestatzea nahi dute jardunaldiok.

Urriaren 30ean CIEMATeko –Energia, Ingurumen eta Teknologia Ikerketetarako Zentroa, Espainian– ikerlari Enrique Askasibarrek wolframak fusioan duen erabilerrari buruz egingo duen hitzaldiarekin hasiko dira jardunaldiak. Zientziarekin lotutakoak jendearentzako gertukoago bihurtu nahi horretan –jardunaldien helburu orokorretako beste bat izan daitekeena–, berriz, Elhuyar Fundazioak *Wolfram deuna* umorezko bakarrizketa zientifiko osatutako saioa eskainiko du, "ekitaldi fisiko, kimiko, analogiko eta antologikoa", euren definitzen duten moduan.



Antolatzaileak eta ekintzetako arduradunak, aurkezpenean. | XABIER URZELAI

Azaroaren 7an, zapatua, hainbat ekintza egingo dituzte jardunaldien barruan: besteak beste, *geocaching* –GPS bidezko *altxorren bila* bat– ikastaroa eta musika praktikatzeko euskal software baten demonstrazioa, musika eskolakoekin, bandakoekin eta orkestrakoekin batera. Azaroaren 10ean, sentsoreen bidez ekoizpenaren aldi berean kontrolatuz, produkzio

prozesuak akatsik gabeak izan daitezela helburu duen teknologia izango da protagonista, eta hurrengo egunean jardungo dute industriari IKTei probetxua ateratzeko moduez.

Pintxo-potean galdera bati erantzunez wifia doan –pintxo-pote garai horretarako– lortzeko ekimen berezia egingo dute azaroaren 12an, eta jardunaldien azken egunean, berriz, lehengo eta oraingo bideo jokoetan aritzeko aukera egongo da frontoian, baita lehiaketak ere.

Urriaren 11n, egun osoz *Industria 4.0* barnetegi teknologikoa, Lasa jatetxean.

Azaroaren 12an, 19:00-21:00 Wifi sarea eta *pintxo-wifia*, lrala kalean.

Azaroaren 13an, 15:00-16:00 Soralue enpresara bisita.

Azaroaren 14an, 11:00-19:00 Bideojoko lehiaketa, frontoian.

19:00 Kontzertua: Latox, frontoian.

ENRIQUE ASKASIBAR | IKERTZAILEA

"Fusioak ez du sortuko iraupen luzeko hondakin erradiaktiborik"

Oraindik erabilgarri ez dagoen energia da fusioak sortutakoa, baina behar bezala asetzeko, etorkizunean, gako izan daitekeena. Eta energia hori sortzea lortzeko bideratutako teknologian Elhuyar anaiek Bergarako Errege Seminarioan isolatutako wolframa darabilte.



ENRIQUE ASKASIBAR

Zertan datza fusio energia? Unibertsoan oso ohikoa da, eguzkian eta gainerako izarretan gertatzen ari den prozesua da. Atomo txikiak, hidrogeno isotopoak, bat egiten dute, atomo handiagoak sortuz, helio atomoak. Zoritxarrez, oso zaila da fusioa lortzea izarrak moduko instalazio handietatik kanpo. Eta lurtean egitea oso zaila da, materia oso tenperatura altuetan berotu behar delako prozesua gerta dadin. Materialak asko ikertu behar ditugu oraindik, energia hau eskuragarri edukitzeko. Fusioa da energia nuklearreko fisioaren alderantzizkoa, eta ez du iraupen luzeko hondakin erradiaktiborik sortuko.

Laboratoriumen wolframeko pieza bat dago ikusgai. Ze berezitasun du?

Europak kudeatzen eta finantzatzen duen makina bateko elementua da. Ingalaterran dago makina. Munduko fusio makina handiena da hura; ez dira energia sortzeko gai, esperimentuak dira, prozesuaren ikerketarako.



Juanjo Alvarez. | GOIENA

Juanjo Alvarezen bigarren hitzaldia astelehenean

J.I. | BERGARA

Bergarako osoko bilkuren aretoa jendez bete zen astelehenean, Goienagusik antolatutako euskal zuzenbideari buruzko hitzaldian. UNEDeko zuzendari ohi eta EHUKo katedradun Juanjo Alvarez izan zen hizlaria, aurtengo Eusko Ikaskuntza saria jaso berritan. Datorren astelehenean, hilak 26, beste hitzaldi bat egingo du, *Familia eta Europa* izenekoa. Europar 28 estatu daude egun, eta, hain justu ere, Juanjo Alvarezek azalduko du euskal sistema juridikoa non kokatzen den familia ereduari dagokienez. 10:00etan da, udaletxean.

UNEDen unibertsitate ikasketetarako izena, domekara arte

Hilaren 25ean bukatuko da UNEDen goi-mailako 25 titulazioetakoren baten izena emateko epea. Unibertsitate-rako sarrera ikastaroa ere badago aukeran. Izena Internet bidez eman behar da.

Bihar, Debarroko odol-emaileak omenduko dituzte

Eibarren izango da, eta 25 edo 50 aldiz, edo gehiagotan, odola eman dutenak omenduko dituzte; tartean, hainbat debagoiendar. Dominak banatu ostean, bazkaria egingo dute Unzagaplaza jatetxean.

EGITARAUA

URRIAK 30

19:15 Wolframaren erabilera fusioan, Laboratoriumen. Hizlaria: Enrique Askasibar, CIEMAT.

AZAROAK 4

19:30 *Wolfram deuna*, udaletxean.

AZAROAK 7

10:00-14:00 Robotika azoka eta dron erakusketa, frontoian.

11:00-12:30 *Geocaching* ikastaroa, Laboratoriumen.

12:00-13:30 *Practice your music*, Aroztegin.

AZAROAREN 9TIK 12RA

14:00-16:00 Interneti buruzko formazioa merkatarientzat, KZgunean. Gaiak: Implantalarriak, 20 giltzarri Internet-hornitzailea aukeratzeko, on-line bezeroaren arreta

18:00-20:00 Herritarrentzat formazio saioak, KZgunean: mugikorra nola aprobetxatu, *streaming*-a... Izena emateko 608 71 07 64.

AZAROAK 10

09:00-13:00 *Zero akats*, prozesu industrialen monitorizazioa, Miguel Altuna Institutuko Areto Nagusian.

AZAROAK 11

Egun osoz *Industria 4.0* barnetegi teknologikoa, Lasa jatetxean.

AZAROAK 12

19:00-21:00 Wifi sarea eta *pintxo-wifia*, lrala kalean.

AZAROAK 13

15:00-16:00 Soralue enpresara bisita.

AZAROAK 14

11:00-19:00 Bideojoko lehiaketa, frontoian.

19:00 Kontzertua: Latox, frontoian.

"Jan ezazu bizitza begiekin, Variluxekin."

P. MANSO
Optika

Irizar pasealekua, 2, BERGARA
Tel.: 943 76 27 86

RPS: 56/11



Zure bigarren betaurreko pareta

OPARI

Eskaintzaren baldintzak optikan bertan kontsultatu.

VARILUX

Babes osoa izateko



E-SPF: informazio gehiago: www.espf.es



Karta Soziala lantzeko Bergarako taldeko kide batzuk Bilboko ekimenari dagokion pankarta jartzen, Bergaran. | U. MADERA

Kapitalismoarentzat alternatibak, Bilbon

- ▶ Alternatiben Herria ekimena antolatu dute biharko
- ▶ Debagoieneko ordezkariak izango da bertan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Bilboko erdigunea, herri txiki bat bihurtuta, hausnarketaz, alternatiba praktikoz eta baikortasunez beteko dugu (...) Alternatibak dituen herria bizirik dago"; besteak beste, berba horiek erabilia deskribatu dute bihar, zapatua, Alternatiben Herria izenarekin Bilbon egin duten hitzordua.

Laburtuz, Alternatibak dituen herri hori irudikatu gura du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladak, eta antolaitzaile horien tarlean da Bergarako taldea, eskubideen Karta Sozialaren bueltan Debagoieneko talde bakarra, alegia. Bere baitan daude sindikatu guztiak -CCOO eta UGT izan ezik- eta eragile sozial ugari. "Kapitalismoari alternatibak lantzeko gai garen eta horretan sinisten dugunak gaude", azpimarratu dute. "Hurrengo pauso bat izango da Alternatiben Herriaren edukiak eskualdera eta herrietara ekartzeta", gaineratu dute.

Debagoiendarrik, Arragoan

Bilboko Areatza eta Alde Zahararen inguruan egingo da Alternatiben Herria. Jarduera batzuk kalean bertan landuko dira, karpak jarriko dituzte horretarako. Bestalde, lokal publikoak eta herri mugimenduarenak ere erabiliko dira. Guztira, bada, bost *auzo* izango ditu Alternatiben Herriak (ondo ko taulan).

Eta *auzoetan* egongo diren artean, sindikatuak eurak daude, jakina: ELAk eta LABek, Parte Hartze eta Demokrazia eta Herrien Subirautza auzoan, *Hemen lan eta bizi, bertan erabaki* hitzaldian hartuko dute parte. "Enplegu duina, lana eta aberastasunaren banaketa zein oinarritzako errenta, lan harremanen ereduaren oinarria,

Euskal Herrian izango dugu min-tzagai", zehaztu dute.

Edozein modutan, sindikatuekin batera, Debagoieneko bestelako ordezkariak ere izango da; Arragoa karpan, zehazki: *Eraldaketa soziala euskaratik izango da ala ez al da izango?* hausnarketak oinarri duen mahai-ingurua egingo dute, honako partaide hauekin: Ainhoa Larrañaga, Berdin elkarte, Mondragon Unibertsitatea; Naroa Elortza, Arrasateko Ereindajan elkartearen izenean; Paul Bilbao Sarria, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua; eta Unai Fernandez de Betoño, EHUren izenean.

Gune berean izango da, baita ere, Emun kooperatibako ordezkariak. "Beste gauza batzuen artean, hizkuntza ohiturak aldatzeko kontsultorioa izango dugu Plaza Berrian. Gure aholkulari Txerra Rodriguezek hizkuntza

ohiturak aldatzeko gomendioak eta pistak emango dizkio hara bertaratzen den edonori. Horretarako, zitak emango ditugu, 15 minutukoak. Lekua gordetzeko, izena eman beharko duzue *txerra@emun.eus* helbidean", esan dute. Kontsultorioa irekita egongo da 10:00etatik 14:00etara.

Bertaratzeko autobusak

Horiek dira biharko proposatzen duten egitarauko adibide batzuk. Askoz ere gehiago daude, kirolarekin, kulturarekin, aisialdiarekin... lotutakoak. Egitarau zehatza jakiteko: *Alternatibenherria.eus*.

Eta hori guztia antolatu dute uste dutelako "eredu sozio-ekonomiko honek" porrot egin duela, eta horren aurrean "alternatiba topatu eta landu" egin behar dela. "Lehen pauso moduan Karta Soziala eztabaidatu eta onartu zen. Konturatu gara teoriarik azalduko gai askoren inguruan praktika batzuk martxan daudela jada eta gehienok ez ditugula ezagutzen", esplikatu dute Karta Sozialaren Bergarako taldeak. Eta zera gaineratu: "Abenduan, klima aldaketaren inguruko nazioarteko goi-bilera egingo da Parisen. Bertan hartuko diren erabakiek izugarritzko garrantzia izango dute, planetaren beroketa prozesua iraultzen ez bada planeta osoaren etorkizuna kinka larrian egongo litzatekeelako. Egoeraren larritasunaren jakitun, Europako eragile ugari Alternatiben Herriak dinamizatzeko proposatu dute", eta Bilboko da, hain justu, Euskadin egingo dena.

Hori abiapuntu, bada, biharko gonbita egin diete debagoiendarrei Bergarako taldeak, esanez, hori bai, "ahal den neurrian" garraio publikoa erabiltzeko edo autoak partekatzeko.

ALTERNATIBEN HERRIKO 'AUZOAK'

Arragoa: hizkuntzaren, hezkuntzaren eta kulturaren gainera eztabaidak, azoka eta ekitaldiak egingo dira.

Gure Gaia: naturarekin zerikusia duten tailerrak, eztabaidak eta azoka bilduko dituen gunea izango da.

AuzoEKonomia: ekonomia sozial eta eraldatzailearen inguruan sare tutako eragileek eztabaidak eta azoka egingo dituzte.

Demokrazia, Parte Hartzea eta Burujabetza: herrien eskubideen eta parte hartze demokratikoaren gainera hausnarketak eta proposamen gunea.

Bizitza Duinak eta Anitzak: gorputz eta bizi eredu ez normaltiboaren esperientziak jasotzeko eta zabalduko dituen aniztasunaren auzoa.

Arrasateko familia baten zorra erosteagatik, salaketa funts putre bati

Salatutako kasua Kutxabanke Irlandako funts putre bati saldutako mailegu batengatik da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hego Euskal Herrian eta estatuaren lehenengo aldiz, zorra erosteagatik funts putre baten aurkako salaketa ipini dute. Debagoieneko Kaleratzeak Stop elkarteak egin du, Arrasateko familia baten kasutik abiatuta. Eguazten arratsaldean eman zuten horren berri.

Debagoieneko eta Gipuzkoako Kaleratzeak Stop plataformak salatu duen kasua Kutxabanke familia baten mailegua funts putre bati saldu izanaren ondorioa da. Arrasateko familia batek, 2005ean, 26.000 euroko garajea erosteko 17.000 euroko mailegua eskatu zion Kutxabanki. Handik hiru urtera, bikotea lanik gabe geratu zen, eta mailegua ordaintzeko zailtasunekin. 2010ean, garajea enkantera atera zuten eta Kutxabanke bereganatu zuen 6.000 eurotan.

Hala ere, Arrasateko familia horrek oraindik zor handia dauka; hain zuzen, kapitala amortizatu du, baina interes, berankortasun interes eta beste kontzeptu batzuegatik zor handia du. 2013an, oraindik 17.000 euro eskatzen zizkion Kutxabanke. Urte bat geroago, Arrasateko familia horrek jakinarazpen judizial bidez jakin zuen Kutxabanke Irlandako funts putre bati saldu ziola bere zorra, 255 eurorengatik. Legearen arabera, zordunak bederatzita egun ditu zor hori saldu den baldintza berean erosteko, baina, kasu honetan, ez zitzaion aukera hori eman.

Erosteko aukerarik ez

Kaleratzeak Stop-ek hainbat gaia salatzen ditu: "Dena has-

ten da Kutxabanke 340.000 euroko zorra bost milioi eurorengatik saltzen duenean; hau da, zorraren balioaren %1,5ean, eta kaltetuari aukera eman behar zion zorra erosteko, funts putreari saldu zion prezio berean. Arrasaten 17.000 euroko zorra zegoen eta 255 eurotan saldu zen. Eta bederatzita eguneko epea eman behar zion kaltetuari, zor hori prezio horretan erosteko", esan zuen Juan Luis Merinok, Kaleratzeak Stop-eko kidea.

Abusuzko klausulak

Bestalde, mailegu kontratuak hiru abusu klausula zituela salatzen du plataformak. Kontratu hori funts putreak daukan orain, salaketa hari ipini diote. Epaileak euren alde egiten badu, jurisprudentzia sortuko dela uste dute plataformakoek, eta ondorioak egongo direla funts putreendako.

"Ondorioa da zorra lau sotesan erostera dotozen funts putreek, gero kobratzeko itxaropenarekin, erosi duten mailegua pozoituta dagoela ikusiko dutela; hau da, abusuzko klausulak dituela, eta, mailegua ondorio guztiarekin erosi duenez, epaileak hala esaten badu, klausula horiek eragingo duten diru guztia funts putreak bueltatu beharko duela", esplikatu zuen Jose Mari Erasuskin abokatuak.

Salaketa banketxearen aurkakoa ez den arren, Kutxabanke jarrera ere gogor salatu du Kaleratzeak Stop-ek. Hain zuzen, "joko zikina" leporatzen diote, eta espero dute, sententzia kaltetuen aldekoa baldin bada, Kutxabanke bere jarrera zuzentzea.



Jose Mari Erasuskin abokatuak azalpenak ematen, Kulturaten. | L. KORTABARRIA

Bertako produktuen artean, gatza ere eskualdekoa erabiliko dute jatetxeek

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Leintz Gatzagan aurkeztu zituzten atzo, eguena, 21. jardunaldi gastronomikoak (urriak 17-abenduak 8); izan ere, hango gatza izango da oraingo protagonista. Gatz Museoa elkartu ziren Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikoko arduradun Joserra Zubizarreta, Leintz Gatzagako eta Arrasateko udal ordezkariak eta jatetxeetako ordezkariak.

Debagoieneko sei jatetxeek hartuko dute parte jardunaldiotan: Arrasateko Hilarion eta Santa Ana; Bergarako Lasa; Elgetako Maialde hotela; eta Oñatiko Etxe-Aundi eta Goiko Benta. Eta menuetan garai-ko eta bertako produktuak erabiliko dituzte, beste behin: onddoak, bakailoa, sagarra, intxaurreak eta gaztainak. Eta Gatzagako gatza

dastatzeko aukera ere izango da. Menuok, gainera, prezio bereziak izango dituzte.

Lehiaketa, 30 lagunendako

Aurten, gainera, lehenengoz, postre lehiaketa antolatuko dute. Azaroaren 21ean egingo dute, baina izena aurrez eman behar da eta 30 lagunendako dago lekua; azken eguna azaroaren 16a da. Postreak, gutxienez, honako osagai hauetakoren bat izan beharko du: bertako hurrak, intxaurreak, gaztainak edo sagarrak. Lehiaketa antolatuko dute hileko hirugarren zapatuan egiten den azoka barruan.

Bestetik, Elgetan, pintxo lehiaketa egingo dute. Azaroaren 8an izango da eta lehiaketako pintxoak azaroan jatetxeetan eskainiko dituzte euro baten truke.



Jardunaldien antolatzaileak Gatz Museoa, atzo, eguena. | MIRARI ALTUBE



Markel Olano, IK4-Ikerlaneko presidentea agurtzen. | J.B.

Babesa eskaintzera etorri da Markel Olano IK4-Ikerlanera

JOSU BILBAO | ARRASATE

IK4-Ikerlanen Arrasateko egoitzan izan ziren atzo, eguena, Markel Olano-Gipuzkoako diputatu nagusia- eta Ainhoa Aizpuru-Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka diputatua-. Zentroa bisitatu eta enpresako zuzendariarekin batzarra izan zuten, IK4-Ikerlanen esperientzia ezagutzeko eta Diputazioetik babesa eskaintzeko asmoarekin. "Ez dugu ahaztu behar zentzu teknologikoaren ikuspegitik eta berrikuntzaren eta garapenaren ikuspegitik IK4 dela Euskal Herrian dagoen erreferentzia inportanteenetako bat, eta bistan da pisu handia daukatela bere zentroek Gipuzkoan ere", azpimarratu zuen Olanok. Gainera, Gipuzkoako diputatu nagusiak

aurreratu zuen datorren hila-betean susperraldi ekonomikorako plana aurkeztuko dutela, eta IK4-Ikerlan eta halako enprekin ideiak eta esperientziak kontrastatzea ezinbestekoa dela.

Erakundeekin lerrokatuta

Bestalde, Iñaki Aranburu IK4 Ikerlaneko presidentea gogoratu zuen ezagutza eta garapen helburuekin Diputazioarekin eta Jaurrlaritzarekin guztiz lerrokatuta daudela. "IK4-ren helburu nagusia zera da: ezagutza garatzea eta lortzea behar den eta dagoen lekuetatik eta hori lortzea eta transferitzea gure enpresei eta bide horretan eta helburu horretan ikusten dugu gure burua tresna bat moduan Diputazioaren eta beste administrazioen eskuetan".

Irudi berria du Alecop-ek, 50. urtemugaren aurrerapen modura

Talde osoaren batasuna erakutsi eta zuzen eta pragmatikoa izan gura du Alecop kooperatibaren irudi berriak. Marijo Pagaldai gerentearen ustetan, "irudi berria hazkunderaren emaitza da; sinplea, zuzena eta pragmatikoa izateaz gainera". Negozio guztiak talde bakarrean batzea da helburua, eta horrek ere hazkundera ekarriko duela dio, azken urteetan produktuen eta zerbitzuen dibertsifikazioarekin gertatu den moduan.

Madrilera joateko autobusak, Libre ekimenak antolatuta

Urriaren 31rako (zapatua) Madrilgo Libre ekimenak manifestazioa antolatu du: "Datozen urteetan ehunka euskal herritar izango dira epaituak Auzitegi Nazionalean. Atochatik Solera arteko manifestazioan, epaiketa politiko guztiak eteteke eta gatazka politikoari irtenbidea emateko exijituko zaio espainiar gobernari", esan dute. Bertarazko autobusak irtegan dira Arrasatek, 10:00etan (itzulera 00:00etan). Izena Irati tabernan eman behar da, urriaren 28a aurretik.

EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.

Zama hegalduna

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Euskarazko **#hezkuntza** eta hizkuntzaren **#corpusa**-ren osaketa izan ziren diktaduraren ilunpeetatik **#berpizkundera** altxatu zuten zutabeetatik bi. Pilare Baraiazarra euskal ereduak ezartzen eta Patxi Uribarren hiztegi-gintzan, behialako **#grina**-ri ez diote ihes egiten utzi eta **#kontzientzia** eta **#konpromisoa** dira bientzat, Baraiazarraren berbak hartuta, bizitan egoteko era: "Beste inor ez baitago nire lekuan".

Kontzientziaren zama

60kotik gaur egungo azken bi hamarkadetara. Kontzientziatik, gaur egun "gehiegizko **#auto-kontzientzia**" ez ote dagoen da beldur Irati Jimenez, baina, aldi berean, temaz berrespenean, Jon Sarasuak eusten dio desafio mui-

nekoena dela "euskaltasunaren **#fluxua** transmititzen jakitea". Areago, Lorea Agirre "historiaren pisuaz" mintzo da.

Hegalak

#Zama horren itzalpean, sortzaileak, nork bere borroka. Dantzaz dihardu Eneko Balerdik, antzerkiak Asier Sotak eta musikaz Thierry Biscaryk, Kalakan taldekoak. Hiru artistek badute **#ardura** komuna: **#zertarako** sortu? Balerdirentzat, pentsamendu **#kritikoa** garatzen da, Sotak kulturaren tresnak **#AkademiatikPlazara** eroan gura ditu eta Biscaryk lehenago galdetuko du zergatik, nola baino. Baina egin. Imanol Epeldek dioen bezala, denok sortu gara sortzaile eta hegalak moztea egin daitekeen eta deliturik handiena ei da.

Erantzun bila

Erpin bat baizik ez da sortzailea eta baliabideak, **#publikoa** eta erantzunak behar ditu. "Gure herrian, kultura hain fenomeno garrantzitsua den heinean", Joxe Mari Agirretzek lanerako deia egiten du. **#Biziraun** beharrak eta ezarritako **#lehia**-k, maiz onuragarriak ez diren **#praktikak** sustatu dituela dio Eneko Balerdik, kulturarentzat bestelako aterpe bat eskatuz. Plazaz baliatzeko apustua egiten du Dabid Egizabal dantzariak eta Ander Lipusek azken deia: artistak berak ere **#proposatu** egin behar duela, horregatik direlako **#sortzaile**.

HITZALDI OSOA IKUSTEKO:

Goiena telebista | Eguena, urriak 29, 22:00.



Ander Lipus, Asier Sota, Dabid Egizabal, Eneko Balerdi, Imanol Epelde, Irati Jimenez, Jon Sarasua, Joxe Mari Agirrezabal, Lorea Agirre, Patxi Uribarren, Pilare Baraiazarra eta Thierry Biscary. | GOIENA

Telebistako saioaren babeslea



LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAILTZA PLANA

25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe



Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB), Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EaSI") esparruan.





ORAIN **GIPUZKOA**

Egiteko ordua da, Gipuzkoa aktibatzeke ordua, geuri eta gainerakoei zertarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta batu garenean. Berriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak asmatu ditugu, I+G+Bn liderrak gara... gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz harro, baina Europara eta mundura zabalik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkartasuna ere. Estatu mailan liderrak gara ongizatean, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara. Eta ez dugu zarata handirik egiten.

Apaltasunez, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzeko. Kexak eta aitzakiak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganen geratu da. Zurikeriak iragana dira. Geldirik egotea iraganeko kontua da. Ezin dugu jarraitu arazoei bueltaka. Hori guztia atzoko gauza da.

Orainari buruz hitz egiteko unea da. Etorbizuna orain da eta etorkizuna eraikitzeke erabakiak orain hartu behar ditugu. Gure lurra zaintzea orain da. Elkartasuna orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.
Eta orain gaur da.

Ausolan eta Mundukide gazteekin, pobreziaren aurkako eguna gogoratuz

'Gosea kate' kanpainaren bitartez landuko dugu gaia

KOMUNITATEA GOIENA | MUNDUKIDE
ETA AUSOLAN | DEBAGOIENA

Urtean zehar 1.300 milioi tona janari galtzen ditugu alferrik munduan, eta aldi berean 870 milioi pertsonak, egunero, gosea pasatzen dutela salatzen du FAO erakundeak (Food and Agriculture Organization).

Garapen Lankidetzan bi erakundeok eskutik lanean ari garelarik, Ausolan kooperatibak eta Mundukide Fundazioak, hirugarren urtez jarraian, Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna (urriaren 17a) gogora ekarri nahi diogu gizarteari *Gosea kate* kanpainaren bitartez. Helburua da mundua jasaten ari den egoera desorekatu honen aurrean, komunitatearen jarrerak eta pertsona bakoitzaren ardurak duen garrantzia azpimarratzea.

Jangeletan eta gazteekin

Kanpaina bi ekintzaz osaturik dago: batetik, Euskal Herriko ikastetxeetako jangeletan kanpainako kartelaren sozializazioa; eta bestetik, gazteei zuzendutako sentsibilizazio saioak.

Saioetan, munduko hainbat herrialdetan bizi diren errealitateen berri emateaz gain, gazteen hausnarketa eta kritika gaitasuna azaleratzen da.

Informazio saioak DBHko 2. eta 3. mailetakoko eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta daude, eta gaiarekiko interes handia erakusten dute solasaldietan. Euren gizartearen eta munduko errealitatearen gaineko ardurak sozializatuta.

Iaz 13 taldek hartu zuten parte kanpainan. Aurten, berriz, Donostialdeko eta Arrasateko gazteekin hasiko gara saioetan.

Are gehiago, Arrasateko gazteekin oraingo astean bertan (eguztenean) egin dugu lehen informazio saioa, Arizmendi Ikastolaren Gaztelupe gunean, hain justu ere.

Hausnarketa eta kritika

"Gure proiektu hezitzaile honen helburua ikastetxeetako curriculumean lantzen diren oinarriko eta zeharkako kompetentzien garapena bultzatzea da. Horregatik, urriaren 17a bezalako data esanguratsu honen bueltan, gazteekin batera pobreziaren eta

janariaren erabileraren gaineko hausnarketan murgiltzea da gure helburua –urriaren 16an Elikaduraren Nazioarteko Eguna izan da–, adierazi du Mundukide Fundazioko Ihintza Irizar kideak.

"Informazio saioetan gazteak oso interesaturik agertzen dira, munduko pertsona ezberdinen egoera ezagutzeko, eta eskertu egiten dute munduaren funtzionamenduaren beste ikuspuntu bat emanez gero. Gure gizartean gazte kritikoagoak eta aktiboagoak nahi baditugu, informazioa luzatu behar diegu eta ohiturak aldatzeko erremintak eskaini", gaineratu du, berriz, Monika Cabok, Ausolan kooperatibako kideak.



Monika Cabo (Ausolan) eta Ihintza Irizar (Mundukide), Ausolanen bulegoan.

Pobrezia eta esternalizazioa

Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO) zioen duela gutxiko informe tematiko batean, sarreretan eta aukera ekonomikoetan ageri diren desberdintasunei aurre egin gabe txirotasuna ez dela sekula erazuko.

Munduko eskualde desberdinetan eguneko 1,6 euro baino sarrera txikiagoak dituzte, batez beste, munduko bizilagunen %9,6ak. Hain justu, 700 milioi pertsonak, munduko biztanleriaren % 9,6ak, oraindik muturreko pobrezian bizi irauten du. Desberdintasun hauek murrizteko, FAOk baieztatzen du, beste neurri batzuen artean, txirolek produkzio baliabideetara sarrera izatea beharrezkoa dela. Zalantzarik gabe kapital fisikoa (instalazio produktiboak, ekipamenduak eta beste

aktibo batzuk) eta giza potentzia (hezkuntza, osasuna eta gaitasun teknologikoak) dira pobreziatik irteteko eta edozein lurraldetan garapen ekonomiko hasteko inbertsio basikoak. Kapital fisikoarekiko giza potentziak duen desberdintasuna esternalizazio positiboaren ekoizpena da, hau da, inguruarekiko efektu onuragarriak sortzea.

Hezkuntzak esternalizazio handiak ditu bere baitan, pertsona batek formazioa jasotzen duenean ez baitalako ahalmen produktiboa bakarrik areagotzen, inguruan aurkitzen diren ahalmenak ere hobetu egiten baitira.

Esternalizazio positiboak dira irakaskuntzaren planifikazioan Estatuak parte hartzearen arrazoiak bat,

denboraldi batean derrigorrezko eskolaratze bat ezarri eta maila altuagoetako ikasketetara sarrera erraztuz.

Mundukidek bere trebakuntza aktibitateak, ezagutza eta giza potentziala osatzen duten baloreen esparruan kokatzen ditu. Hegoaldeko herrialdeetan bertatik bertara egiten du lan pobreziatik ateratzen laguntzeko autogestio ahalmena bultzatuz eta inizatiba ekonomiko eraginkorrak aurrera eramateko ekintzailatza indartuz.

Programen helburua jendearen bizi maila hobetzeko lankidetzan aritzea da. Parte hartzaileen artean, hezkuntza eta aholkularitza prozesuetako trebakuntza profesionalarekin batera, kooperazioaren balore solidarioak hedatuz. Ahaleginen fruituak partekatuz, pertsona guztien ongizatea bermatzeko.

Autoa trukaturata dagoen edo ez jakiteko bideak zabalik

IDOIA DAVILA | DEBAGOIENA

Duela hilabete eman zen eza-gutzera Volkswagenei kasua: 11 milioi autoren motorretan emisioak faltsutzeko softwarea jarri duela, alegia.

Horren parte diren autoak Volkswagen, Audi, Skoda eta Seat markakoak dira. Denek TDI diesel motorra dute, EA 189 motakoa, hain zuzen ere, eta 2009 eta 2015eko irail artean erositakoak dira, emisioen gaineko Euro 5 araudiaren baitan. Izan ere, data horretatik aurrerako autoek araudi berri bat errespetatzen dute, eta ez dira lehenagoko multzoan sartzen.

Webgunea, bertaratuta...

Kontuak kontu, Debagoiengan ere badira trukaturatako motorrak dituzten autoak, jakina. Bada, norberaren ibilgailua horrelako bat den edo ez jakiteko, Volkswagenei berak eskura jarri du kontsultarako webgunea bat: info.volkswagen.com. Bertan, auto zehatz bat trukaturata dagoen konproba daiteke bastidore zenbakia erabilita. Gauza bera egiteko beste bide bat da 900 18 03 61 telefonora deitzea. Eta hirugarrena da Volkswagenei saldu osteko zerbitzuetara jotzea, kasu honetan, Debagoienekotara.

EH Bilduk urriaren 31n jakinaraziko ditu hauteskundeetarako zerrendak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

EH Bilduk, abenduaren 20ko hauteskunde orokorreari begira, bigarren faseari ekin dio. "Orain arte egin diren batzarretan Amaiurrek egindako lana eta beste indar politikoekin konfluentziarako aukerak baloratzeaz gain, hautagaien zerrendak osatzeko izen proposamenak jaso dira", esplikatu dute, eta gaineratu dute datorren astean berriz herri batzarrek egiten hasiko direla.

Irekiak izango dira batzarrok: "EH Bilduren proiektuarekin bat datorren debagoiendar orok izango du herri batzarretan parte hartzeko aukera", esan dute.

Gizon eta emakume bana

"Zerrendaburuak aukeratuko dira batzarretan proposatutako izenen artean. Beraz, batzarretan parte hartuko dutenen esku geratuko da EH Bilduren ordezkariak izendatzea", azpimarratu dute. "Hautaketa prozesuari dagokionez, nominala izango da; beraz, izen bakoitzari emandako botoak zenbatuko dira. Eta horrekin batera, eta parekotasuna bermatzeko, batzarretan gizon bat eta emakume bat bozkatu beharko dira".

Jakinarazi dutenez, prozesu horren emaitza urriaren 31n (zapatua) aditzera emango dute, publikoki.

Herriz herriko hitzorduak

Honako hauek dira, bada, Debagoieneko hitzorduak, oraingo astean hasi eta hurrengoan bukatuko direnak: lehen gaur (egubakoitza) izango da, Elgetan, 19:30ean, bertako udaletxean. Antzuolan egingo dute, berriz, bigarren hitzordua: urriaren 26an (astelehena), 19:00etan, Olaranen. Martitzenerako, urriaren 27rako, hiru hitzordu egin dituzte: Oñatin, 19:00etan, erabilera askotariko gelan; Eskoriatzan, 19:00etan, baita ere, kultura etxean; eta hirugarrena Arrasaten da, 19:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegin. Bergarari dagokionez, bestalde, eguztenean dute bertakoek hitzordua: 19:00etan, Irizar jauregiko ganbaran. Eta azken hitzordua, eguztenean da, Aretxabaletan, 18:30ean, udaletxe ganbaran.

ZABALIK



VALEN MOÑUX
goiena.eus/komunitatea/

Zientzia fikzioa etxean

8oko hamarkadan estreinatutako *Back to the Future*-ren bigarren filmean (*Etorkizunerako Itzulera II. Zatia*), protagonistek denbora-jauzia egiten dute eta 2015eko urriaren 21ean agertzen dira; joan den asteazkenean, hain zuzen.

Kurioso da orain azterketa txiki bat egitea konparatzeko zenbat gauzatan asmatu zuten film egileek euren iragarpen teknologikoeekin.

Pelikulako *gadget*-ik gogoragarrienak lokarri automatikodun zapatilak ziren, eta, batez ere, *skate* hegalaria. Ez bata eta ez bestea ez dira iritsi dendetara. Zer esan auto hegalariei buruz, munduko markarik onenak oraindik ez badira gai gurgildun ibilgailuak egiteko atmosfera isurtze egokiek.

Hala ere, badago pelikula honetan aurrerapen bat errealitate bihurtu eta franko hedatu dena: bideo konferentzia, konkretuki. Horrenbeste urte ez dela, fantasia hutsa iruditzen zitzaigun telefonoak pantailekin eta solaskidearen irudia ikustea elkarrizketa bitartean. Tresna hori aspaldi hasi zen erabiltzen enpresa askotan eta derrigorrezko bihurtu da hain garrantzitsuak diren nazioarteko merkataritza harremanetan. Hala ere, oraindik harrigarria deritzot zein erraza den bideo konferentziak egitea gure etxebizitzatik bertatik. Nahiz eta informatika erabiltzaile amorratua izan, orain dela gutxi arte ez naiz sentitu behartuta hori erabiltzeko. Gure seme zaharrena atzerrira joan da ikasketak egitera, eta kurtsio hasieratik asko erabiltzen dugu etxean Skype programa mitikoa. Lanak behartuta, asko bidaiatzen duen lagun batek dio ordenagailu bitarteko komunikazioa bere familiaren emozio-oreka mantentzeko ordezkaezineko baliabide bihurtu dela.

Edozein telefono edo ordenagailutan dohaineko programa eta Telefonicako fakturarik gabeko bideo konferentziak, denbora muga barik: zientzia fikzioa gure etxeetara heldu da, zalantzarik gabe. Goitibehera hegalariaik, berriz, itxaron egin behar.

Harrigarria da zein erraza den bideo konferentziak egitea etxetik

USTEAK USTE


XABI URZELAI | xurzelai@goiena.eus

Berdegunean dena galdua

Munduko Kopako finalean –Alemania 1-Argentina 0– Lionel Messiri egindako argazki bat –Bao Tailiang argazkilaria– saritu dute aurtengo World Press Photo sariketean. Bartzelonako jokalaria lur jota dago, eskuetatik ihes egin dion kopari begira. Ia dena irabazi duen jokalaria etsipena. Hilabete batzuk geroago, azaroaren 27an, New Soth Wales cricket taldeko Philip Hughes-ek dena galdu zuen: zerraldo erori zen lurrera [argazkia Mark Metcalferena da], pilota batek belarri ondoan jo ostean. Koman egon ostean, egun gutxira ospitalean hil zen. Bi irudiak –urteko onenekin batera– Gasteizko Montehermoson dituzue ikusgai.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Euskaltegien heriotza

Leire Narbaiza Arizmendi
<http://goo.gl/5ov0JQ>

Euskara irakaslea naiz, euskaltegia. Orain 25 urte hasi nintzen ofizio honetan eta laster amaituko dudalakoan nago.

Euskaltegiatiko irakasleek amesten dugu egun horrekin: gure ofizioaren behar izana ez dagoen unearrekin, Euskal Herria euskalduna den momentuarekin. Eta gure sektorea hiltzeko jaino bazen ere, eutanasiak hilko du edo hobeto esanda, lasai hiltzen utziko dute, uzten ari dira.

Bai, laster lanez aldatu beharko dut, hiltze luze honetan kabitu ezinda. Kontua da Euskal Herria ez dela euskalduna, gure ametsa ez dela bete; baina, hala ere, desagertu egingo gara. Poliki, atentzioa eman barik, ia inori ez diolako ardura helduen euskalduntzeak.

Gelak husten ari dira, mila arrazoi direla eta. Batetik garestia delako oso, prezioak eskandalagarriak dira gure hizkuntza, ofiziala ere badena, ikasteko. 8 ordu astean ikasturte osoan 400 eurotik

gora dago. Ez ahaztu gaztelania ikastea EAEn doan dela, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailaren eskutik. Euskara ez. Baten batek esango du azterketa gaindituz gero diru zati bat itzultzen dela, eta egia da batzuetan. Baina alde zuzenetik jarri behar da dirua eta azterketa gainditu. Beraz, titulua lortu.

Titulitisak jota gaude, alegia. Gure beste gaitzetako bat. Behar ez duenari ere, dirua itzultzeko exijitzen zaio-eta. Hala dauzkagu gelak titulu-bila dabilzanekin beteta. Obsesionatuta. "Yo sólo quiero preparar el segundo perfil, no quiero nada más". Halakoak ere entzun izan ditugu, azterketa pasatzeko euskararik ikasi behar ez balitz bezala. Tamalgarria! Beste ikasle asko urduri, gaizki pasatzen. Titulua lortu lanerako. Lanean titulua eskatu, baina euskaraz egiteko ez. Sarriegitan paper madarikatua kaxoian sartuta, hautsa hartzen. Alferrik emandako denbora larregi, neurona xahuketa, esfortzu antzua.

Gizartea aldatu egin da. Ezin da ukatu. Hauxe ere bada euskaltegiak husteko beste arrazoi bat. Anjel Lertxundik atzo Berriako *Apalaldia* zutabearen aitatzaren zuena: *Umil*

apatiko eta etsipen puntu batez gaude? Susperraldiaren dekadentzia bizitzen ari gara? Barealdia indar falta da, itsas zakarraren abisua, akaso?

Euskarari dagokionez erlaxatu egin gara. Ikastolan ibilitako guraso batzuek ikastolan Lehen Hezkuntzan dabilzan seme-alabekin gaztelaniaz dihardute. Kezka dago ikastola batzuetan, lehen DBn hasten ziren ikasleak gela barruan gaztelaniaz. Orain LHko 1. mailan... "Euskara salbatuta dago, ez dut ahaleginik egin behar, dena eginda baitago" dute askok barneratuta. Horregatik, zertarako joan euskaltegiara? Txakurrekin eta ume txikitxoekin egiteko nahikoa badakit-eta!

Euskara despolitizatu behar zela zioten, baina hori beharrean, deskontzientzatu egin gara. Lasaitu, petraldu. Jardun behar denean, tipili-topolo edonola esan, kalitate apaldua.

Eta euskaltegiak hortxe daude, zain, Euskal Herrian oraindik premia gorria dagoelako; sektorearen agonia, ordea, ondo hasita dago, utzikieriaz, nagikieriaz. Ezkorra naiz, baina gremioko asko ere hala daude, errealitatearen lekuko garelako.

goiena⁴
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Urbane Madera

Sailtako arduradunak Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 00

harpidetza@goiena.com


Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.850 ale

Difusioa: 18.507 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Bedelkar
elkartearen
azalpenak**Maribi Berraondo**

(Bedelkar elkartearen presidentea)
Bergara

Urriaren 17an, Bergarako Udal Pilotalekuan, Moda eta Diseinu Berrien Lehiaketaren desfilea eskaini zuen Bedelkar elkarteak, Bergarako Udalaren eta Goiena telebistaren lankidetzarekin.

Hasierako asmoa San Martin plazan egitea bazen ere, eguraldiaren bilakaera zela-eta Udal Pilotalekuan eskaintzea erabaki genuen antolatzaileek, horrek dakarren aldaketa eta egokitzapen lan guztiarekin.

Guztira, 32 komertzio eta 129 modelo izan dira, eta horren atzean hamalau pertsonako lantalde bat, sei hilabetetan zehar antolaketa guztian buru-belarri aritu dena.

Denak, noski, boluntarioak izan dira, Bergarako komertzioa berpiztea bideragarria dela sinistuta eta asmo horretan saiatzen.

Ilusio handiz, eguna heldu eta 20:00etan entsegu orokorra egin zen; barruan zegoen publikoa errespetatu egin zen, eta atea itxi egin ziren.

Entsegu amaieran, berriz, Udal Pilotalekuan zegoen publikoari kalera ateratzeko gonbidapena egin zitzaion, eta irten ez ziren guztiei banan-banan ateratzea eskatu zitzaion.

Pilotaleku barruan honako hauek gelditu ziren:

- Parte hartzen zuten komertzioetako ordezkari arduradunak, beraien modeloei prestaketetan laguntzen (32 + 129 modelo).
- Komertzio antolatzaileen lantaldea (14).
- Dantza taldeko kideak (54).
- Udaletxeko langileak (4).
- Antolatzaileen laguntzaileak (5).

Beraz, 238 pertsona zeuden pilotaleku barruan emanaldi publikoa hasi aurretik.

Udal Pilotalekuak aforo mugatua du segurtasun-kontuak direla medio; beraz, kopuruak errespetatzea derrigorra da.

Aforo baimendua zaindu nahian, ekitaldia ikusi ahal izateko sarrerak banatu ziren, guztiak agortu arte.

Horiek dira eman ditzakegun azalpenak.

Eskerrik asko

Fernando Asula

Bergara

Asula eta Losada familiek Bergarako herriari eskerrak eman nahi dizkiote Josu Mirena Asularen heriotza dela-eta jaso dugun laguntza eta maitasun guzti-guztiagatik. Eskerrik asko.

Arrasatek
zerbitzu
publikoak behar
ditu**Jesus Markaide**

Arrasate

1972an, 22 urte genituela, enpresa-ikasketak amaitzear geunden ikasle bik On Jose Maria elkarrizketatu genuen orduko Eskola Profesionalean zeukan bulego zurrunean, lizentziaturarako gure tesina egiteko.

Sasoi haietan, tituludun berriek aukeratu egin genezakeen zein enpresatan lan egin, Arrasaten ez zegoen langabeziarik, Coprecik Orkli sortu zuen Ordizian produktu-linea bat martxan jartzeko, baina bertan behera utzi zuen, eskulan faltagatik, Goierri aldean handiago zena –eta baita orduan zegoen espiritu solidarioagatik ere–. Arrasatek antzeko zerbitzu egin zuen Markinan, eta Ulgorreko pertsonal kostua %13 gainerik zegoen salmentekin alderatuta, argindarrarena baino zertxobait gainerik.

Ordurako, zerbitzu publikoen maila Arrasaten gaur besteko urria zen; hala, galderetako bat izan zen ea zelan ikusten zen hori kooperatiben ikuspegitik. Erantzun irmoa eman zigun, eta baten bati zinikoa ere irudi dakioke. Hauxe esan zigun, gutxi gorabehera: "Nik ez dut nahi gure gizon onenak funtzionario izatea, horiek kooperatibetan gura ditut".

43 urte geroago, kooperatibak ez dira gauza gure gazteei lana emateko; are gehiago, horietako batek langile kualifikaturen bat behar duenean, ez du

Arrasaten bilatzen, baizik eta Euskadin, Estatuan, edo batek daki non.

Hau da, jokoaren arauak –paradigma, esango luke batek– aldatu egin dira, eta guk segitzen dugu herrira zerbitzu publikoak ekarri barik, eta Eibarren eta Bilbon hirugarren sektorea indartzeko segitu duten modelotik ihesi. Ba, iratzartzeko ordua da. 70eko lehenengo urteetan lehen enpleguaren bila zihoan jendea beteta dugu herria, eta haiek erretiratuta edo erretiratzear daude. Gehienak, *sasoi onean*. Eta haietako askori min ematen die –digu– *sistemak* guri eskaini zigun aukeren bosten bat ere ez eskaintzea gure seme-alabei; askok urteetako eskarmentua daukate erantzukizun handiko postuetan, eta, dauzkaten kontaktuekin, erakunde batzuetan eragin dezakete Arrasaten falta diren dozena pasa zerbitzu ekar ditzaten. Eibarren badituzte zerbitzu horiek, eta, Arrasatera ere ekarrita, Fagorrekin galdu ditugun lanpostuak sor ditzakegu. Zelan egin? Ba, ez daukat ideiarik ere, baina egin dezagun berba, ala?

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

BARRRUAK ASTINTZEN

**GOIENA TELEBISTA | DOKUMENTALA**

**Buruko gaixotasuna duten hamabost lagun
eta bederatzi ikasle elkarrekin bizi izaten**

URRIAK 24, ZAPATUA, 12:30 ETA 21:00

URRIAK 25, DOMEKA, 10:30, 19:00 ETA 22:30



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

HERRIAK

ELGETA

Erabiltzen ez diren eremu publikoekin zer egin

- ▶ Eremu publiko horiek erakustea izan da lehenengo urratsa
- ▶ Elgetako Udalak hausnarketa egitera gonbidatu ditu herritarrak

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako hamalau bat lagun elkar-tu ziren, martitzenean, Elgetako Udalak deituriko *Ateak irekiz* ekimeneko lehenengo hitzorduan. Izan ere, erabilerarik ez duten eremu publikoak herritarrei erakutsi, zein egoeratan dauden baloratu eta auzolanaren bitartez berreskura daitezkeen hausnartu gura du Udalak.

Taldeak kultura etxean hasi zuten bisita. Erabilerarik ez duten sei gela ikusi zituzten bertan: txirrindularitza elkarteak erabili izan duena, erakusketak egiteko materiala gordetzen duena, hilean behin podologia kontsulta egiteko erabiltzen dena, EPA gela, argazkilaritza gela izandakoa, eta bere garaian fonoteka

izandako gela. Zeramika gelan eta udaletxeko sabaian ere izan ziren.

Hamarkadetan pilatutakoak

Material ugari dago bertan, asko eta asko erabil ezin dena. Udal arduradunek uste dute plangintza egin eta eremu horiei zein erabilera eman hausnartu ostean txukundu eta egoki daitezkeela eremu horiek guztiak auzolanean. "Uste dugu Elgetan badagoela auzolanerako ohitura bat (...) berpiztu nahi duguna, eta uste dugu eremu horietan, azkenean, auzolanaren bitartez lan handia egin dezakegula", adierazi du Kultura zinegotzi Janire Lazkanok. Martitzeneko bisita lehenengo urratsa besterik ez dela



Udal arduradunak eta herritarrak bisita egiten; goian argazkilaritza gelan eta behean zeramika gelan. | L.Z.

izan adierazi du Lazkanok, eta bigarren fase batean asmoa dutela Asentzioko txaleteko atea herritarrei zabaltzeko. "Askotan entzun da zer den hori, zelan dagoen... *Ateak irekiz* ekimenarekin jarraituz, bertako atea ere zabaltzeko asmoa dugu. Ez denbora motzean, baina gauzatu dugun beste proposamen bat da", adierazi du.

Hausnarketa herritarrekin

Bisita amaitu ostean parte-hartzaileek ondorioztatu zuten espazio publiko asko daudela txukundu ostean herritarren erabilera zabal daitezkeenak. Lanerako gertu ere azaldu da bat baino gehiago. Udal arduradunek azpimarratu dute prozesua hasi besterik ez dela egin, eta plangintza bat egiteko konpromisoa hartu dute. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen dute hausnarketa prozesu bat ireki eta herritarrekin batera beharrak identifikatzea eta lehentasunak ezartzea. Kultura batzordetik egingo diote jarraipena ekimenari.

Beste inork eremu horiek ikusteko interesa balu, atea berriz ere zabaltzeko gertu daude udaletxean. Argibideetarako, jo udaletxera edo idatzi danonartian@elgeta.net helbidera.

MAITE BARRAINKUA
HERRITARRA

"Lan publikoa bultzatzea oso ondo dago"



L.Z.

Ezagutzen ez zituen hainbat eremu publiko ikusi ditu, eta uste du badagoela zer egin.

Ekimen interesgarria iruditu zaizu?

Bai, interesgarria izan da jakitea zer dagoen benetan publiko herri honetan.

Eta auzolana bultzatzea ere ondo iruditzen zaizu?

Bai. Diru publikoa erabili beharrean lan publikoa bultzatzea oso ondo dago.

Ikusi duzu zuretzako moduko lanik?

[Barre] Apurtuta dauden hiru buruhandi ikusi ditut udaletxeko sabaian. Gustatuko litzaidake horiek konpontzen laguntzea. Garbiketa lanak txarragoak dira, baina hartuko dut parte horretan ere.

JANIRE LAZKANO
KULTURA ZINEGOTZIA

"Herritarrekin hartuko ditugu erabakiak"



L.Z.

Ekimena abiatu besterik ez dela egin dio udal arduradunak.

Zein helburrekin jaito da *Ateak irekiz* ekimena?

Nahi dugu herritarrek ikustea ze eremu diren, ze egoeratan dauden eta ze material dagoen bertan. Azkenean, erantzun bat eman diezaioke herrian dauden hainbat beharri.

Eta zer aurkitu duzue?

Ikusi dugu hainbat material erabiltzeko aukerarik ez duena, zaborra ere bai...

Auzolana izan daiteke bidea?

Uste dugu lan handia egin dezakegula auzolanaren bitartez. Uste dugu posible dela eremu horiek txukun lagatzea gure eskuekin, gure lanarekin eta gure borondatearekin.

Buruhandiak konpontzeko borondatea

Martitzeneko bisitan interes berezia sortu zuten argazkilaritza gelak, zeramika gelak eta fonoteka izandako gelak. Azken urteotan inork gutxi izan du bertara sartzeko aukera, eta material ugari dago bertan pilatuta. Ikusteko dago zer berrerabil daitezkeen eta zer ez. Interesa piztu zuten, baita ere, udaletxeko sabaian gordeta dauden hiru buruhandik.

Apurtuta daude, eta horregatik daude bertara erretiratuak. Udalaren asmoa da horiek berreskuratzeko taldea sortzea eta auzolanean berriz ere erabilgarri ipintzea. Posible dela iritzi diote hiruzpalau lagunek, eta zeregin horretan laguntzeko gertu azaldu dira, gainera.



Buruhandiak ikusten. | L.Z.

Auzolanean, argazki bidez edo solasaldietan, herriko urak hobetzeko egunak

Errekaren Astearen barruan hainbat ekintza antolatu ditu Udalak; tartean, erreka garbiketa azaroaren 1erako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasatearrak errekekiko eta ibaiekiko sentsibilizatzeari da aurtengo Errekaren Astearen helburu nagusia; izan ere, Udalak uste du oraindik "lan handia" dagoela herriko uren egoera hobetzeko. Hala, askotariko ekintzak antolatu dituzte datozen egunotarako.

Ekimena astelehenean jarri zuen martxan Ingurumen Sailak, hilaren 31era arte iraungo duen argazki lehiaketarekin. Herriko errekei atera beharko zaizkie erretratuak, eta argazkiak@arrasate.eus helbide elektronikoa bidali, urriaren 31 baino lehen. Bi kategoria daude: 17 urtera artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Gehienez, bi argazki bidali ahalko dira, eta titulua, izen-abizenak, adina eta telefono kontaktua jakinaraziko beharko dira.

Ibilaldia eta auzolana

Hilaren 27an *Ibai-arroa, ibaia baino gehiago* hitzaldia egingo du Iñaki Antiguedad adituak Kulturaten (19:00). Urriaren 31n, berriz, ibilaldi bat egingo dute errekatik, lur azpitik, Muzibartik Maalako biribilguneraino. Ondoren, inbadizaileen gaineko solasaldia egingo dute, eta horren ostean luntxa. 10:00etan elkartuko dira, Muzibarrren; katiuskak edo botak eta linterna eraman behar dira. Amaitzeko, azaroaren 1ean, erreka garbiketa egingo dute auzolanean –Laubide plazan, 09:30ean–. Azken bi ekintza horietarako aurrez izena emateko eskatu dute: 943 25 20 09 (Ingurumen Saila).



Aramaio erreka Munar auzotik igarotzen den tartean, eguaztenean. | J. BEREZIARTUA

SUDCen erabilera ludikorako proiektua

Deba ibaia eta Aramaio erreka herritarren aisialdirako erabilgarri egitea proposatzen du SUDC elkarteak. Astelehenean aurreproiektua aurkeztu zuten BAZen. Antoñako presan eta Goikobalu parkearen behealdean, erreka ondoan, bainatu ahal izateko bi guneren gaineko azterketa bat baimentzeko eskatu dute, baita Ikutixon eta Arruena parkean piknik-gune bana jartzea ere. Jaurlaritzako Ura Agentziak ez du begi onez ikusten plana, uholde arriskua egon litekeela eta erreka arrainak itzultzea zail dezakeela argudiatuta. Horregatik nahi izan dute ingeniari baten ikerketa aurkeztu; SUDCekoek uste dute arrisku horiek ekidinduz lituzkeen plan bat burutzea posible dela. Aurreproiektua begi onez ikusi dute zenbait elkartetan: tartean daude Ibai-Arte, Abaroa, Antxintxika, Arrano, Corazon de Encina eta Al-Andalus.

Udalak loreekin apaindu du udaletxeko balkoia, Herriko Plaza "alaitzeko eta atseginago" egiteko

Udal Gobernuaren ekimenez, loreak jarri zituzten joan den aste bukaeran udaletxeko balkoian. Ekimen "txiki" horrekin, udalerriaren irudia hobetu gura izan dute. Herriko Plazan berdegunerik ez dagoela kontuan hartuta loreak jartzea erabaki dute, plaza "alaitzeko eta atseginago" bihurtzeko. Loreak eta loreontziak jartzen 2.500 euro gastatu ditu Udalak.



Loreak jarri ditu Udalak udaletxeko balkoian. | JOKIN BEREZIARTUA

Sukaldaritza tailerra eta flamenko-kaxa jotzen ikasteko ikastaroa antolatu ditu Gazte Bulegoak

Sukaldaritza tailerra Gorka Lobatok gidatuko du. Azaroaren 9tik 30era astelehenero elkartuko dira, 18:30etik 20:30era. Ikasleek eta langabeek 20 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 30 euro. Flamenko-kaxa jotzen ikasiko dute Periko Raezekin batera, eta azaroaren 5etik abenduaren 17ra iraungo du; prezioa 25 euro da –ikasleek eta langabeek 15 euro–. Izena emateko: 943 25 20 65.

Ibai-Arteren Arrasate txartela erabiltzen dutenei doan afaltzeko zozketak azaroaren 20ra arte

Ibai-Arte elkarteak 42 afari zozketatuko ditu Arrasate txartela erabiltzen duten bezeroen artean; erosketa egiten duen unean bertan jakingo du bezeroak afaria tokatu zaion edo ez. Ekimenak azaroaren 20ra arte iraungo du eta txartel irabazleak azaroaren 21ean banatuko dira Seber Altube plazan (13:30). Honako jatetxe hauek hartu dute parte eskaintzan: Arteaga, Hilarion, Hotel Mondragon, Lora, Sara Merenderue eta Txoko 2-k.

Araudia betetzen ez duten txakur-jabeak zigortzen hasiko dira udaltzainak astelehenetik aurrera

Arauk haustea txakur-jabeek "garesti" irtengo zaiela ohartarazi du asteon Obrak, Zerbitzuak, Auzoak eta Mantenua batzordeko buru Oscar Garcia zinegotziak, 30 eta 1.500 euro arteko isunekin. Gune publikoetan aske ibili edo zehaztutako eremuetatik kanpo kaka egiten duten txakurren jabeak zigortuko dituzte udaltzainak astelehenetik aurrera, kakak jaso ezean. PSE-EEko zinegotziarentzat, "bizikidetzarako oinarrizko arauak" betearaztea da helburua.

OHARRAK

1953AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an Gasteizen egingo dute ospakizuna; Garibaitik irtengo dira, 10:00etan. Parte hartzeko, 60 euro ordaindu, aurrez: 3035 0202 74 2021044186.

1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 7an Corazon de Encina elkartearen bazkalduko dute. Azaroaren 3a baino lehen eman behar da izena, 60 euro ordainduta: 3035 0047 16 0471086671.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak

Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak

Estimulazio goiztiarra

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Txinarraino heldu da Maritxu Kajoi aurten ere

Shanghaiko Euskal Etxean Maritxu Kajoi eguna ospatu zuten urriaren 17an; 50 bat euskal herritar elkartu ziren, eta arrasatearrek eskapulario eta guzti –argazkian– ospatu zuten egun berezia. Miraria ere egin zuen han Maritxuk, abenduan ospatuko duten euskal jairako dantza ikastaroak lehen aldiz antolatuta.



NEKANE GARDOKI

Arrate Manzidor | Richi ile apaindegia

"Pertsona bakoitzarentzako irtenbide estetiko onenak sortzen ditut tailerlean"

Arrasateko Zarugalde kaleko ile apaindegian, askotariko arazoek eragindako ile galerari irtenbidea emateko ileordeak egiten dituzte, ohiko zerbitzua eskaintzearekin batera

Richi ile apaindegiko Arrate Manzidorrek 35 urte daramatza ofizioan; eta zortzi, ileordeen alorrean.

Ze gehiago egiten duzu ohiko ile apaindegi zerbitzua emateaz gain? Zerbait oso garrantzitsua eta beharrezkoa egiten dut: ileordeak.

Eta horrek esan nahi du...

Ileordeak dira oso erreminta garrantzitsuak irudia berreskuratzen laguntzeko. Diseinua egiten da eta gero egiten da pieza, erabat personalizatua.

Zeuk egiten dituzu ileordeak eta protesiak?


Bai; ahal dudan ileorde eta prote-si guztiak egiten ditut. Nire tailerlean sortzen ditut pertsona bakoitzarentzako irtenbide estetiko egokienak. Zeregin honetan dena da garrantzitsua, pertsona soluzio baten bila iristen den momentutik, atetik, apain-apain, ateratzen dena arteko dena. Baina ibilbide honetan inportanteena da materialak ongi aukeratzeko jakitea, gero lan egiteko: ez da gauza bera erredura bat edo xafla erako alopezia, adibidez; edo gaixotasun bat duenaren kasua, edo istripu bat izan duenarena. Kasu bakoitzera egokitutako diseinuak egiten ditut. Ilerako tratamendu personalizatuak ere egiten ditut, eta arlo honetan eta ileordeak egiterakoan, atentzioa erabat personalizatua da. Badaude material naturalekin egindako burukoak eta zapiak ere. Horrez gain, kimioa hartzen ari diren pertsonentzat, makillaje erabat naturalak ditut, kosmetikorik gabekoak. Eta diskrezioa da nire ezaugarria; bezeroarekin jarduteko leku pribatua dut.

Eta non ikasi duzu ileordeak giten?

Espainiako hainbat lekutan ikasi dut. Ile apaintzailerako ikasteko eskolak badaude nonahi, baina ileorde alorrekoak ez. Zortzi urte daramatzat ileordeen alorrean, eta zortzi urte hauetan jardun dut gauza berriak ikasten. Espainian halakoak erakusten dituzten leku



Arrate Manzidor, ileordea egiten.



denak bisitatu ditut, eta Londresko eskola baten bukatu dut, eta oso pozik nago.

Londresen, beraz.

Bai. Oso eskola ona da. Han ikasi dut diseinuak ondo egiten; izan ere, oso garrantzitsua da, garrantzitsuena, ondo diseinatzea.

Halakoetan beldurra ere izango da, ileordea igarriko den...

Bai. Baina gureak erabat antzeman ezinak dira. Pertsona bakoitzari ondoen egokitzen zaion materiala erabiliz gero, eta diseinu on batekin, ez da batere igartzen; ez da gauza bera pertsona bati apur bat falta izatea baina gehienez ilea edukitzea edo batere ilerik ez izate

tea. Antzeman ezinak dira gureak.

Eta zenbat denborarako izaten dira?

Norberak zaintzea komeni da. Nik pieza bat egiten dudanean, pertsonari erakutsi egiten diot nola garbitu eta nola zaindu. Gero, inoiz ekarri nahi badidate garbitzeko edo, bada, ondo. Ondo zainduz gero, urte gehiago irauten ditu. Oso kalitate oneko ileak dira. Prozesatu gabeko ile naturalak dira.

Horrez gain, baina, ohiko ile apaindegi zerbitzua ere ematen duzu.

Bai. Ile mozketako azken joerak... Produktu onenak, tratamendu onenak ditugu edozein arazorentzat: ilea galtzea, kaska...

"Guk egiten ditugun ileordeak erabat antzeman ezinak dira"

"Londresko eskola batean ikasi dut; oso eskola ona da"




Ileordeak eta horiek egiteko tresnak eta materialak.



Diseinua egiten.




Ileordeak, manikian kokatuta.



RICHI

ile apaindegia



IRUDI AHOLKULARIA • PELUKAK

Zarugalde 5 • 20500 ARRASATE • 943 79 10 06 • arrasate@posticeria-richi.com • www.posticeria-richi.com

Esther Lizarralde | Emakume Txokoko dinamizatzailea

"Garrantzitsua da emakumeak jabetzea eta ahalduntzea"

I.D. / J.B. | ARRASATE

Emakume Txokoan, urteroko programaz gain, bi ikastaro berri antolatu dituzte. Gainera, hilaren 28an Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek *Feminismoa eta euskara bidaide* hitzaldia egingo dute Kulturateko areto nagusian (19:00).

Zeintzuk dira Emakume Txokoaren helburu orokorrak?

Berdintasun Sailleik landu nahi dena da emakumeak elkarrekin egotea, eztabaida sortzea, hausnartzea eta trebatzea. Gizarte eraldaketa bat bultzatu nahi da, non gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortuko den. Ikusi dugu horretarako oso garrantzitsua dela emakumeak jabetzea eta ahalduntzea; hau da, euren gaitasun eta indarrez jabetzea. Zentzu horretan antolatzen ditugu ikastaroak, Jabetze Eskolaren laguntzarekin.

Zeintzuk dira hastear dauden ikastaroen nondik norakoak?

Urriaren 28an hasiko den *Ilusioa mantenduz, motibatu* ikastaroan, gauzak lortzeko kemena lantzea da helburua. Bakoitzaren hitz egiteko eran, sormenean eta jarrera proaktiboan eragin nahi du ikastaroak. Hori lagungarria da egunerokotasunean. *Ziberfeminismoa 2.0* ikastaroan,



Esther Lizarralde. | JOKIN BEREZIARTUA

aldiz, sarean gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak aztertuko dira. Interneten sortzen ari diren indarkeria mota berrien gainean hitz egingo da, eta sareak jabetzarako eta antolaketarako eskaintzen dizkigun aukerak ere aztertuko dira.

Urte amaiera bitartean eskaintza zabala duzue...

Luxua da Arrasaten dauden ikastaroak izatea, hiriburu baten egon daitekeen eskaintza dago hemen. *Emakumea eta maitasuna*, *Berdintasunerako bidean*, etxeko konponketen ikastaro bat eta autodefentsa feminista ikastaroak ere antolatu ditugu, batzuk aipatzearen.

Auzoko egitasmoa, euskara, aniztasuna eta herritarrak barnebiltzen

Euskara guztien arteko komunikazio hizkuntza izateko nahia du proiektuak

KOMUNITATEA GOIENA | EGIN EMAKUMEAK ELKARTEA | ARRASATE

Duela bi urte hasi ginen Ekin elkartearen Auzoko proiektua lantzen, Udalarekin elkarlanean, eta ikasturte honetan herritarrei zabaldu nahi diegu egitasmoa.

Auzoko proiektua euskara eta herritarrak barnebiltzen dituen egitasmoa da, aniztasuna oinarri hartuta. Helburu nagusia da eus-

kara komunikazio eta kohesio hizkuntza bilakatzea, desberdinen arteko harremanak bultzatuz.

Gaur egungo elebitasuna gainditu nahi dugu Ekinen, euskara guztien arteko komunikazio hizkuntza izan dadin. Euskara pertsona orori eskaini nahi diogu, eta, horretarako, lehen hurbiltze hori erraztu nahi du Auzoko egitasmoak. Bizikidetzarako, eus-

kara baliatu nahi dugu, auzoan, kalean eta egunerokotasunean.

Euskara normalizatzeko nahia duen edonork hartu dezake parte Auzoko proiektuan ikasturte honetan. Informazio gehiago jaso gura duenak Ekin Emakumeak Elkartearen egoitzan eskura dezake edo 943 79 83 70 eta 651 70 79 36 telefono zenbakietara deitzea ere badago.

NIRE USTEZ

IBON ARRUPE



Gora, gure errekek!

Euskaldunok 50eko hamarkadan bultzatu genuen industrializazio prozesu itzelaren biktimarik nabarmenenak gure erreka eta ibaiak izan ziren. Alde batetik, aberastasuna sortu genuen herri hau aurrera atera ahal izateko, baina bes-

etik, gure errekei eta bertako ekosistema osatzen zuten animalia eta landareei bizkarra eman genien.

Hala, Deba eta Aramaio ibaiak estolderia sareko kanal nagusi bihurtu genituen. Oraindik ere gogora dator kit errekekako urak kolore psikodelikoetan pasatzen ikustearen imajina, eta, zer esa-

nik ez, ahalik eta bizkorren bere ertzetik ihes egin nahi izaten genueneko, urek zekarten kiratsarengatik!

Zorionez, egoera horri poliki-poliki buelta eman diogu. Hala ere, errekek euren egoera naturala berreskuratu dezaten, oraindik bide luzea dugu egiteko. Eta horren harira dator ekitaldiz betetako aurtengo Errekaren Astea; hitzaldiak, erreka hobeto ezagutzeko bisita gidatua, auzolanean erreka garbiketa... Animo, denon artean lortuko dugu eta gure errekek eta ibaiak berriro ere bizitza iturri izatea! Denok batera, aldarrikatu dezagun: gora, gure errekek!

"Deba eta Aramaio ibaiak estolderia sareko kanal nagusi bihurtu genituen"

L A S E R P L A T A F O R M A

Alejandrita laserra-Diodoa-Arri Pulsatua (IPL)

Ahaztu zaitez ilearen arazoaz...

...37,50 €-gatik hilean

hanka osoak +
izterondoak +
besapeak
150 € saioa

LIRAIN
Estetika Zentroa



Saioak hiru hilean behin
Hilero errepasso bat doan
Emaitzak bermatzen ditugu

RPS
48/14

Ez da osasun zentroa Bixente Ferrer 1 ARRASATE Tel.: 943 79 28 90 www.lirainestetika.com



Gauko entziklopedia kokorra ikuskizuna gaur Kulturaten. | 2 PRINCESSES BARBUDES

Bibliotekaren Eguna borobiltzeko, tailerra eta ikuskizun berezia

Etorkinen gaineko aurreiritziak prebenitzeko lanean dihardute Kulturateko klaustroan, hilaren 30era arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Bibliotekaren Eguna da bihar, urriak 24. 1997a ezkerro Estatu osoan urtero antolatzen den ekimena da, gizarteari irakurtzearen garrantzia gogoratu eta bibliotekariena lana goraiatu nahi duena. Arrasateko Udal Biblioteka ez da salbuespena izan, eta hil osorako hainbat ekintza antolatu dituzte.

Bada, egitaraua borobiltzeko ezohikoak bezain interesgarriak diren bi ekintza antolatu dituzte.

Etorkinen gaineko gezurrak
Batetik, astelehenean jarri zuten martxan erakusketa bat baino gehiago izateko asmoz heldu den *Gezurkeriak etorkinei buruz* ekimena: "Erakusketa baino gehia-

go, tailerrak dira garrantzitsuen proiektu honetan. Tailerra da funtsa. Nolabaiteko lan bat eskatzen dio ikusleari; herritarrek etorri, irakurri eta idatzi dezatela nahi da. Pertsona migratzaileen gainean samur sortzen ditugun zurrumurru, irain eta jarrera ezkor horiek prebenitu gura dira", adierazi du udal bibliotekari Asun Agirianok.

Argituz proiektuaren eskutik ekarri dute ekimena eta Agiriaren arabera, Euskal Herrian ez dira erakusketa asko izaten marko teoriko hori lantzen dutenak. Herriko ikastetxeekin dihardute bereziki: "Enpatia eragiten dugu. Parte hartzaileei eskatzen zaie pertsona zehatz batzuen larriuan jartzea". Juan Ibarrondo idazleak eta Marta Gil artistak sortutako proiektua da: "Oso proiektu parte-hartzailea da, aukera oso interesgarria", uste du Agirianok. Urriaren 30era arte dago zabalik, Kulturateko klaustroetan; parte hartzeko: 943 25 20 25.

Pop musika jostailuen bidez
Gaur, Bibliotekaren Egunaren bezperan, kontzertu berezia izango da Kulturateko areto nagusian (18:00). Pilarik gabeko jostailuekin jotako haurrentako pop musika egiten duen 2 Princesses Barbudes talde kataluniarra dator. Helena Casas eta Marc Marce *Gauko entziklopedia kokorra* liburu-diskoarekin etorriko dira, familia osoarendako plan ederra izango dena. Musika, jolasa, clown-a eta entzuteko zein ikusteko poesia eskainiko dute: "Bitxia da, oso bitxia. Familiendako ikuskizunen eremu zabalean, oso bestelakoa den proposamena da".
Liburu elektronikoen bi irakurgailuren zozketa egingo dute urri amaieran, hil osoan zehar liburuak maileguan eraman dituzten erabiltzaileen artean.

Parte hartze "oso baxua" Maritxu Kajoiko lehiaketan

Artgazki elkartearen argazki lehiaketak parte hartze "oso baxua" izan du eta lehen sariarik ez da banatu, epaimahaiak ez duelako kalitate nahikorik ikusi sari hori emateko. Bigarren saria Migel Angel Puentek irabazi du eta hirugarrena, Konsuelo Errastik. Beste lau sari ere banatu dituzte.

rendako sarrerak azaro hasieran jarriko dituzte salgai, 18 eurotan. Udalaren webgunean, Kutxabank-en eta Amaiaiko leihatilan erosi ahalko dira.

Zarzuelarako entseguak azken txanpan sartu dira

'La alegría de la huerta' obra taularatuko du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak azaroko azken asteburuetan

J.B. | ARRASATE
Urtero arrakastatsua izaten den zarzuela prestatzeko lanetan aspaldi hasi zen Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Aurten *La alegría de la huerta* taularatuko dute, azaroaren 21ean (19:30), 22an (19:30), 27an (20:00) eta 28an (19:30). Federico Chuecaren musika du obrak eta Enrique Garciarenak eta Antonio Pasorenak dira hitzak.

Eskolakoendako sarrerak
Urtero moduan, aurrez jarriko dira salgai sarrerak Arrasate Musika-kaleko bazkideendako; egoitzan erosi ahalko dira, 16:30etik 19:30era, urriaren 26an, 27an eta 28an. Hori bai, azaroaren 27ko emanaldirako bakarrik izango dira eta bazkide bakoitzak -ikasleen gurasoak bazkide moduan hartzen dira- lau sarrera erosi ahalko ditu, gehieenez, 15 eurotan. Publiko zabala-

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Etzi ospatuko dugun Perretxiko Egunean 100 ikasle inguruk hartuko dute parte

KOMUNITATEA GOIENA | ARRIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE
23. urtez antolatu dugu Perretxiko Eguna. Domekan izango da, Herriko Plazan, 11:00etatik 14:00etara. Aurretik txapelketa antolatu dugu; helburu nagusiak dira ikasleengan zaletasuna piztea eta Euskal Herriko ekosistema ezagutzea eta errespetatzea. DBHko Lehen Mailan zientzia

tailerra duten ikasleak gaia lantzen aritu dira azken asteotan eta gaur eta bihar perretxikotara joango dira etziko otarra osatzeko. Hiru sari banatuko dira, 14:00etan, eta epaimahai egongo da Tomas Zubillaga aditua. Artisau azokaz gain, batxilergoko ikasleek perretxiko pintxoan txosna jarriko dute ikas bidairako dirua lortzeko.



Tomas Zubillaga aditua ikasleekin iazko Perretxiko Egunean. | ARRIZMENDI

Ukrainako gerraren dokumentalak argia ikusteko, finantzaketa kolektiborako deia

J.B. | ARRASATE
Ukrainako gerraren gainean "Europako kazetari gutxi" jaso duten lehen eskuko testigantzeekin osatutako dokumentala egin guran dabilta Mikel Arregi eta Ibai Trebiño, *Argia* astekariaren laguntzarekin. Bertan ibili dira kazetari lanetan, eta, diotenez, masa komunikabide gehienek isiltasuna gainditu nahi dute dokumentalarekin. Proiektuak aurrera egiteko, baina, finantzaketa kolektiborako -crowd-

fundin-kanpaina abiatu zuten duela bi aste. 40 egunetan 6.000 euro lortzeko helburua markatu zuten, "erronka galanta". Oraingoan, 2.300 euro inguru lortu dituzte eta kanpainari 23 egun falta zaizkio amaitzeko.

Ekarpena egiteko hainbat modu daude, eta honako webgune honetara jo beharko da; webgune honetan trailerra ikus daiteke, besteak beste: <http://karena.eu/en/proiektua/donbass-gerra-europaren-bihotzean>.

Iker Laurobaren eta Criminal Remains taldearen kontzertuak Jai Zaleko egitaraua amaitzeko

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Jai Zale tabernan zuzeneko musika izango da protagonista asteburuan. Eguaztenean *Zamorako Landan* liburuaren tertulia izan zuten Jon Etxaberen eta Eneko Barberenaren eskutik eta gaur, gauerdian, Iker Lauroba musikagileak joko du. Bihar, zapatua, Criminal Remains taldea igoko da taula gainera (18:30). Punk-rock eta hardcore doinuak lantzen ditu boskote aretxabaletarrak; kontzertu horrekin amaituko da Jai Zaleko urriko egitaraua.

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta
&
beinke
arrasate



Txistulariak, abesbatzako kideak eta Gasteizko Udal Banda elkarrekin maiatzeko omenaldian. | MIRARI ALTUBE

Txistu doinu dotoreak Demetrio Iriarte gogoan

Donostiako Udal Txistulari Bandaren kontzertua dago gaur, eta bihar Txistulari Eguna ospatuko dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Demetrio Iriarte (Oñati, 1915) txistulari handia jaio zeneko ehungarren urteurrena ospatzen dabilta Aretxabaletako txistulariak, maiatzean hasita, eta aste bukaeran egingo dituzte ekitaldi nagusiak.

'Loramendi dantza' estreinatu

Donostiako Udal Txistulari Banda izango dute lagun aretxabaletarrek gaur, egubakoitza, Iriarte gogoan. "Egun dagoen txistulari bandarrik garrantzitsuetakoa da. Jose Ignazio Ansorenak zuzentzen du, erreferentziatzeko txistularia; hortaz, kontzertu benetan dotorea izango da", jakinarazi du Jokin Antxiak, Aretxabaletako taldeko kideak.

Donostiakoek eta herrikoek -ingurukoekin batera- osteratxo egingo dute, 18:30ean, herrian, Leizarra musika eskolako dantzariak eta Aretxabaleta Abesbatza lagun dituztela. Eta kantu hauekin girotuko dituzte kaleak: *Aurrera*; *Gora, kirolak!*; eta *Muru Alde*. *Galo* fandangoa eta *Erañar-*

tar Erramon arin-arina ere joko dituzte. 19:00etan, ekitalditxo egingo dute guztiek elkarrekin parrokia aurrean -hileta badago, plazan-. "*Loramendi dantza*, Demetriok idatzitakoa, estreinatuko dugu orduan. Leizarra musika eskolako irakasle Mikel Artzek koreografia egin dio, eta sekula

ez da dantzan egin orain arte", argitu du Antxiak. *Arabako ototza* eta *Txino dantza* ere joko dituzte. 19:20 aldera, Aita Hilario Olazararen *Mendigoizaleak* doinuarekin eta abesbatzak abestuta parrokiara sartuko dira herri-tarrak -hileta badago, Arkupe kultura etxean-. "Dantzariak zubia egingo diete ikusleei".

Ondoren, 19:30ean, Donostiako Udal Txistulari Bandaren kontzertua izango da. Ekitaldia bukatzeko, *Agurra* eta *Txanton piperr* kantuak abestuko ditu Aretxabaleta Abesbatzak txistulariekin.

Zapatuan Txistulari Eguna

Gaur ez dira isilduko txistu doinuak, eta bihar, zapatua, bailarako Txistulari Eguna egingo dute: "Arrasateri zegokion antolatzea, baina Aretxabaletan egitea erabaki dugu, Demetrioren omenez". Elkartuko dira Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Antzuola, Zumarraga, Sorluze eta Aretxabaletakoak, eta 11:00etan kalejira egingo dute. 13:00etan, ostera, Herriko Plazan elkartu eta alardea joko dute.

KONTZERTUKO EGITARAUA

Izar ederra (Herri doinua)

Agur, Bettiri! (Herri dantza airea)

Bergara (Ezezaguna)

Birigarroa (Isidro Ansorena; moldaketa Jose Ignazio Ansorena)

Alai (Demetrio Iriarte)

Martxa heraldikoak (Miguel Gonzalez Bastida)

Alborada en tres tiempos (Eduardo Gorosarri)

Aitona (Jose Antonio Erauskin)

Abendua (Demetrio Iriarte)

Enarak (Jose Ignazio Ansorena)

NIRE USTEZ

JULEN
ABASOLO



Km 0

Urte sasoi honetan bigizon elkartu zieneko herbak edarto kontetan zittuen Bixentek: "Ai! udazkenak emuten dusten tristurie, antzarrak pasetan, ilundu aguro, gaba luzie...". Eta bestiek: "Eta udabarrixe hobia dok ala? Kamarie hutsik, txarrixte janda, lanerako egune luzie, hori bai dala tristie".

Etxien egindekuaz bizi eta aurrera egiten zan denboratoko kontue da, ez euen bertako jeneruen alde egin biherrik.

Gaurko mundu globalizatu honetan kilometruena traba txikixe da, geure kamarie, fri-

gorifikue jakine, beteta eukit-teko. Esparrago naparrak edarrak die, baine kanpokuek merkiauek, hemen ganau edarrak hasten die, baine kanpotik dator asko, esnie bertakue badaukou, baine bestie be esku-ra dau.

Janari ekoizliok kataien azken maillan gazenetik, askotan ulertu ezin dogun soinuaz dantza egin biher izeten dogu. Eskeintzien eta eskaerien arteko orekie guztiz nahastute dau. Geure lana biher dan balixuen jarteko ahalmenik bageuko...

Km 0 kanpainie bertako jeneruen aldeko beste apustu bat da, ekoizliok nun eta zelan lana egitten dogun erakusten dauena. Kamarie beteta ikustie gauza edarra da, lasaitu egitten zau, baitte bertan daukotzune zelakue eta zelan etorrittekie dan jakittiek. Bertakue bada, gainera, zeure ingurue be landu egitten dozu.

Frontenis txapelketa mistoa dago azaroan UDAk antolatuta

M.A. | ARETXABALETA

Frontenis txapelketa mistoa antolatu du Aretxabaleta kirol elkarteak lehenengoz, eta izena emateko epea zabalik daukate. Interesatuek mezu bat bidal dezatela helbide honetara: *uda-frontenisa@gmail.com*. Azken eguna azaroaren 1a da eta 10 euro ordaindu beharko diu biko-teak lehenengo egunean.

Azarako bi aste bukaeratan izango dira partiduak: 7 eta 8 eta 14 eta 15. "Helburuak dira emakumezkoek eta gizonezkoek elkarrekin kirola egitea eta frontoiaren erabilera indartzea. Hala, hogeik bikote elkartu gura ditugu", diote antolatzaileek.

Sariak dira bertako produktuekin egindako saskia eta aforia bi lagunendako.

Eskalada ikastaroa antolatu du Udalak emakumeendako

M.A. | ARETXABALETA

Eskalatzea gustuko duten emakumeendako ikastaroa antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak. Hasiberriendako eta maila ertaina dutenendako da, 18 urtetik gorakoendako, eta hiru hilabete iraungo du: azaroa, abendua eta urtarrila.

Eskolak izango dira Ibarra kiroldegian astelehen eta eguaz-

tenetan, 18:00etatik 19:00etara, Debagoieneko eskalada eskola-koek gidatuta. "Baten batek beste orduren bat gurako balu edo bi egun horietako batean bakarrik ahal izango balu, esan dezala, eta ea antolatze modurik dugun...", diote antolatzaileek.

Izena eman behar da urriaren 26tik 30era bitartean, Arku-pen. Prezioa 12 euro da.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es



Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Marrazki lehiaketa deitu du liburutegiak irakur puntua egiteko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urtero antolatzen du irakur puntu lehiaketa Udal Liburutegiak, baina aurten gaztetxoei dei egin die. Irakur puntuaren marrazkia hautatzeko da lehiaketa, eta 12 eta 16 urte artekoek parte hartu ahal izango dute. Lanak aurkezteko epea gaur zabaldu dute eta azaroaren 27a arte jasoko dituzte liburutegian.

Lehiaketara aurkeztutako marrazkiak honako tamaina hau izan beharko du: 20 zentimetro

altueran eta 5,5 zentimetro zabalera. Gaia eta teknika, ostera, libreak dira. Hori bai, marrazkiak argitaratu gabea izan behar du.

Lanak entregatzerakoan bi kartazal eraman beharko dira: kartazal batean marrazkia egongo da –tolestu gabe– eta bestean egilearen datuak –izen-abizenak eta telefono zenbakia–. Eta bietan, kanpoaldean, ezizen edo lelo berbera jarri behar da.

Lehiaketaren irabazleak 150 euro jasoko ditu sarritzat.



lazio irakur puntua. | LIBURUTEGIA



KURTZEBARRI BHI

Herbeheretarren bisita egunotan

Beste urte batez, dagoeneko hamargarrenez, Herbehereetako Merlet College ikastetxeko 33 ikasle eta hiru irakasle izan dira Kurtzebarri institutuko lagunekin. Donostia eta Bilbo bisitatu dituzte, Zumaian padel surfean jardun dute, Lasturren zezentxoekin... eta gaur, agur esango dute. Kurtzebarriko ikasleek martxoan itzuliko diete bisita.



INMA MIGUEL

Patxaran onena Zubizarretarena

Gastronomia eta Folklore jaialdiak gura beste jateko eta edateko ekarri zuten domekan plazara, eta herritarrek harrera beroa egin zieten.

21. Patxaran Lehiaketan, ostera, hoguei botila patxaran jaso zituzten eta guztien artean onena Marga Zubizarretak egindakoa izan zen; haren atzetik geratu ziren Jon Zarraoa eta Jose Lonbide.

Elkarteko kirol talde guztiak aurkeztuko ditu UDak gaur

Denboraldia aspaldi hasi zuten gehienek, baina UDak gaur, egubakoitza, aurkeztuko ditu taldeak. Ibarra futbol zelaian izango da ekitaldia, 18:00etan. Talde guztien argazkiak aterako dituzte lehenengo, eta gero, mosaikoa egingo dute. Bukatzeko pintxo-potea egongo da futbol zelaiko tabernan.

Mojak agurtzeko meza esango dute domekan parrokiari

Aretxabaletan 111 urte egin dituzten agustindar mojak agurtzeko meza esango dute domekan, urriak 25, 11:30ean, Andre Mariaren Zeruratze parrokiari. Elkarteko bost kideak Errenteriara joango dira.

Domekatik aurrera, gainera, ez dute mezarik esango agustindarren monasterioan.

OHARRAK

TOMAXEN ABENTURAK DOMEKAN, ARKUPEN

Tomaxen abenturak pailazo taldeak *Festara* ikuskizuna eskainiko die neska-mutikoei domekan, 17:00etan, Arkupen (sarrera, 3 euro).

ODOL ATERATZEA ASTELEHENEAN

Udazkeneko azken odol ateratzea egingo dute Arabako odol bankuko kideek datorren astelehe-

nean, urriak 26, osasun etxean (16:30-20:30).

EH BILDUK DEITUTAKO BILERA IREKIA

Aretxabaletan EH Bilduk bilera irekia egingo du datorren egunean, urriak 29, 18:30ean, udaltxeko ganbaran. Landuko dituzten gaiak izango dira Udal kontuak, hauteskunde orokorrak... Herritarrak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Carme Riba

Karma ile-apaindegiko ugazaba

“Niretako, oso garrantzitsua da bezeroa erlaxatuta eta gustura sentitzea”

Norberaren edertasuna indartzeaz gainera, norberaren estresa arintzea ekarriko duen esperientzia ere izan dadin lortu gura du Karma ile-apaindegiak. Aretxabaletan dago.

Filosofia jakin batean oinarritutako zerbitzua. Horixe da Carme Ribak (Bartzelona, 1981) Aretxabaletan zabaldu duen ile-apaindegian eskaini gura duena.

Zein da filosofia hori?

Lasaitasuna, bezeroa erabat gustura eta erlaxatuta senti dadila jasoko dituen masajeekin, produktu organikoak eta naturalak oinarritutako zerbitzua—Screen eta Nubea— prezio onean, eta bezeroak irudi moderno eta gaurkotuarekin irteera. Laburbilduz, kalitatea, pasioa eta dedikazioa aurkituko dute bezeroek, emakumeek zein gizonek, biek, ile-apaindegi honetan. Eta orain, negozioa zabaldu berri dudanez, prezio bereziak izango dira.

Masajeak?

Bai; bi, gainera: bat, etorri eta ilea lantzen hasi



Carme Riba, berriro duen Aretxabaleto lokalean.

“ Kalitatea, pasioa eta dedikazioa aurkituko dute bezeroek, emakumeek zein gizonek, ile-apaindegian, eta hasiera honetan, gainera, prezio bereziak izango dira. ”

aurretik; eta bestea, garbiketa fasean. Izan ere, niretako, oso-oso garrantzitsua da bezeroa sartzean erlaxatuta sentitzea, eta merezi duen arreta jasotzen duela sentitzea.

Kataluniarra zara baina Debagoiengan ere eskarmentu handia duzu, ezta?

Bai. 16 urterekin hasi nintzen Bartzelonan lanean, eta hemen, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran jardun

du 12 urtez. Horrez gainera, Euskal Herrian bertan ibiltzeaz gainera, Madrilera eta Bartzelonara sarri joaten naiz prestakuntza jasotzera. Oso-oso gustuko dut eta azken joerekin bat etortzea.

ZABALDU BERRIA!
 Deskontu bereziak irekitzeagatik!
 Etorri eta informatu, konpromiso barik

karma

ile apaindegia

Errekararren 14 • 943 79 76 09

SCREEN

Alkatea: "Martxan gaude, ekintzak ditugu eredu"

Alkateak adierazi du ezker abertzaleak azken zortzi urteotan "inprobisazioz" eta "etorkizunerako ikuspeirik gabe" kudeatu duela Bergarako Udala

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

EAJk eta PSEk osatutako Udal Gobernu berriak kudeaketako lehen ehun egunen balorazioa egin zuen eguaztenean. Juanje Alberdi alkateak adierazi zuenez, azken zortzi urteotan ezker abertzaleak inprobisazioz kudeatu du Udala, "etorkizunerako ikuspeirik gabe", eta horrek hainbat zailtasun ekarri dizkie. Hala ere, pozik agertu zen dagoeneko bukatutako proiektuekin, eta etorkizunerako asmoak azaldu zituen.

Gobernu berriak aurreko agintalditik zetozen hainbat proiektu dagoeneko bukatu dituela nabarmendu zuen EAJko Juanje Alberdi alkateak; Laboratorium museoa Agorrosingo padel kantxa edota Bidekurutzeta kaleko lanak aipatu ditu, esaterako. UNEDen egoitza Arrizuriaga jauregira aldatzearena ere urte hasierarako martxan jarri nahi dute.

Proiektu berriak

2016ko aurrekontuak urte bukarrerako prest izatea espero dute. Bertan, hainbat proiektu berri-



Udal Gobernuako kideak, eguaztenean. | GOIENA

tarako partidak ezarriko dituzte: esaterako, Espoloiko kioskoa berritzea edota Larramendiko poligonoan industria jarduera bultzatzea. Horretarako, datorren astetik aurrera hasiko dira SPRI-rekin hitz egiten. Nabeak ahalik eta merkeen alokairuan jartzea proposatu du.

Barne antolamendu mailan ere berrikuntzak ezarriko dituztela azaldu du alkateak, eta Inter-

net bidezko administrazioa eta herritarren leihatila ezarriko dituzte.

Herriko kultura eragileekin hartu-emanetan ari direla ere azaldu du Alberdik, eta arlo horretan 4 urterako hitzarmenak garatuko dituzte, kultura indartzeko.

Partaidetza prozesua ere aurreratu du Alberdik, beste alderdiekin eta herritarrekin.

'Eskura' ekimenaren aurkezpena eta eztabaida saioa zapatuan

KOMUNITATEA GOIENA
BERGARAKO GURE ESKU DAGO

Kaixo, lagun! Aurtengo kurtsoa asmo berriein hasteko asmoa genuela azaldu genizun pasaden ekainean.

Badakizu, dagoeneko, Gure Esku Dago oinarritzko adostasun batzuekin eta antolakuntza apalarekin sortu zela bere garaian. Denborak erakutsi du dinamika honen handitasuna, eta horrek garai berri batera eraman gaitu. Erabakiaren garaia da orain.

Aro berri honen garrantzia kontuan hartuta, adostasun berriak eta antolaketa sendo-

bat osatzea beharrezkoa ikusten dugu. Eta bide horretan, zu, herritar bezala, beharrezkoa zara. Elkarrekin erabaki nahi dugulako sortu zelako dinamika hau.

Beraz, aurtengo ekimenaren berri izan, eta zure iritziak zein ekarpenak adierazteko, Irizar jauregiko ganbaran burutuko dugun eztabaida saioa gonbidatzen zaitugu. Eguna urriaren 24a izango da, larunbata, eta ordutegia, honakoa: 10:00-12:00. www.eskura.eus orrialdean ikusgai daukazue zapatuko saio honetan erabiliko dugun galdeketa txostena.

'Beltzean mintzo' dokumentala eta solasaldia eguaztenean Zabalotegin

M.T. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak eta Topaguneak antolatuta, *Beltzean mintzo: Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasaz* dokumentalaren emanaldia izango da datorren eguaztenean, urriak 28, Zabalotegi aretoan.

Horren ostean, solasaldia izango da Garabideko Maddi Iñarra eta Ander Bolibar bergararrekin. Hizkuntza lankidetzan aritzen den elkarte da

Garabide, eta dokumentala ere talde horrek berak egin du.

Hizkuntza gutxiak

Dokumentalak zazpi hizkuntza komunitetako hamalau pertsonaren testigantzak jasotzen ditu. Haiek norberaren hizkuntzaren egoeraz eta euskararengandik ikas dezaketenaz dihardute. Nahuatl, kitxua eta aimara komunitateak aipatzen dira, besteak beste.

FINANTZAKETA:



AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x



Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

Ke-detektagailuak jarriko dituzte adinekoen etxeetan suteak saihesteko

Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsoneri zuzendutako kanpaina da

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Adinekoen etxeetan suteak prebenitzeko kanpaina jarriko du martxan Udalak. Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorakoei edo bakarrik ez bizi arren 65 urte baino gehiago dituen beste norbaitekin bizi direnei zuzendutako kanpaina da.

Pertsona bat ibiliko da etxerik etxe egoera aztertzen –aurrez hitzordua eginda–. Bi helburu ditu programak: batetik, pertsona nagusiek etxean izan dezaketen sute arriskuak ekiditea. Horretarako, etxean dauden elementuen egoera aztertzen da, eta akatsik balego zuzendu. Gainera, etxearen krokis bat egiten da: kontuan hartzen da non jarri duten ke-detektagailua eta non lo egiten duten etxe horretan bizi direnek. Krokis hori udaletxean izango dute udaltzainek; emergentzia egoeran suhiltzaileei emango diete, denbora aurreztu eta lana hobeto egiteko. Bigarren helburua da gizarte zerbitzuetara joaten ez diren pertsonen egoera aztertu eta premiak detektatzea.

Gailuak zarata aterako du

Etxeetan jarriko dituzten ke-detektagailuek etxean bakarrik



Etxe batean jarrita dagoen ke-detektagailua. | A.E.

aterako du zarata. "Kea detektatzen duenean aterako du zarata. Askotan, jendeak sua piztuta uzten du, eta despistatu egiten dira. Modu horretan, alarmarekin nahiko izango litzateke sua itzaili eta sutea ekiditeko", azaldu du

Xabier Legorburu gizarte zerbitzuetako teknikariak.

Aurten, 220 laguni bidali die eskutitza Udalak. Gogorarazi dute erabiltzailearendako ez duela kosturik programa horrek, "abantailak bakarrik" dituela.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOAK

1942an jaiotakoek kintada egingo dute –63ko kintoak–. Azaroaren 7an, zapatuan, ospatuko dute, 14:30ean, Azpeitxi jatetxean bazkaria. Betiko moduan, bazkalarretik argazkia aterako dute. Izena emateko, 20 euro aurreratuko beharko dira, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0009 19 0091148434. Izena emateko azken eguna azaroaren 3a izango da.

1948KOAK IRUÑERA

Bidaia berezia egingo dute 1948an jaiotakoek. Azaroaren 7an Iruñe aldera joango dira, egun-pasa. Izena eman nahi duenak 60 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxan horretarako zabaldu duten kontu korrante zenbakian. Izena emateko azkeneko eguna urriaren 30a izango da. Irteera egunean, 09:00etan irtengo dira autobus geltokitik.

Espolitoixoren jaisierarekin hasiko dituzten jaiak bihar

Espolitoiko jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. Eguna osoko egitaraua antolatu dute. 12:00etan, Espolitoixoren jaisierarekin hasiko dituzte jaiak. Ondoren, haurren jolasak eta buruhandiak izango dituzte. 13:00etan, *espo-poteoa* egingo dute –txorizoa eta salda egongo da–. 14:30ean, mahaiaren bueltan elkartuko dira, auzo-bazkarian. Arratsalde partean hainbat lehiketa eta jolas izango dituzte: 17:00etan, mus txapelketa eta gazte jolasak; 18:30ean, karaokea; eta 20:00etan, triki-poteoa. Eguna amaitzeko, DJ Julenek musika ipiniko du.

Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoak antolatuta, hitzaldia

Datorren egunean, urriaren 29an, hitzaldia egingo dute Bergarako kultura etxean. Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoak antolatuta, hainbat gai izango dituzte hizpide. Erradiazio elektromagnetikoen inguruan jardungo dute; Fiareren eta halako banku etikoen jarduerak azalduko dituzte; kooperatiba energetikoak zer diren azalduko dute; eta, azkenik, Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa zer den azalduko dute. Hitzaldia kultura etxean izango da, eta 19:30ean hasiko da. Antolatzaileek herritarrek animatu nahi dituzte hitzaldian parte hartzera.

Ikuskizun ederra nahi zuten guztiek gozatu ezin izanaren penatxoarekin

Desfilearen "oso balorazio ona" egin du Bedelkarrek, eta edukieraren gaia azaldu du

JULEN IRIONDO | BERGARA

"Desfilearen beraren balorazioa erabat positiboa da: modeloak profesionalen moduan egon dira, eta merkataria oso pozik"; hala zioen, astean, zapatukoaren antolakuntzan jardundako Edurne Gallastegik. Eta hori zioen, kontzientzia izanda hainbat lagun frontoira sartu ezinda geratu zirela, eta horrek ondoeza eragin zuela: "Agian, alaba zuten desfilatzen...", zioen Gallastegik, ulerker; baina gaineratuz atek ireki eta minutu gutxian bete zela frontoia, eta hor euren ezin zutela ezer egin.

Horren harira, gertatutakoa azaltzeko, oharra atera du, hain justu, Bedelkarrek. Inork horren gaineko zalantzarik balu ere, merkatarien elkarteak azaldu du desfile aurreko entsegua ikusten egon ziren herritarrek ez zirela barruan geratu, kanpora irten behar izan zutela eta gainerako herritarren baldintzetan ilaran jarri; eta frontoia "derrigorrez" errespetatu beharreko gehienezko edukiera

duenez, sarrerek agortzean itxi egin behar izan zutela atea.

Udalaren balorazioa

Aurretik, egunean bertan, desfilea amaitu eta berehala, emandakoarekin pozik mintzatu zen Udaleko Garapen teknikari Marije Unamuno; antolatzaileek egindako lana eta denen inplikazioa nabarmendu zituen, eta zioen zapatuko modukoekin herritarrei transmititu nahi dietela "bertan dagoela kalitatezko generoa eta edonorentzako modukoa".

Moda desfileaz gain, diseinu berrien lehiaketa ere izan da aurtengoa. Herriko hiru diseinatzailek aurkeztu zituzten azken asteetan Anezka akademian landutako arropak, eta epaimahaiak Itziar Martinezi eman zion 200 euroko saria, Eskozian inspiratutako gizonezkoentzako jantziagatik; irabazi izana "ezin sinetsirik" zegoen: "Hirurok ziren oso onak; hirurok egin dugu lan handia, eta hirurok merezi genuen", zioen.



Zapatuko desfilean modeloak agertokian. | IMANOL SORIANO



Betaurrekoak erakusten. | I.S.

Argazki lehiaketa

Bestalde, desfilearen bueltan argazki lehiaketa ere antolatu dute aurten. Hain justu ere, #BergaraBizi traola erabiliz Twitterrean eta Instagramera desfileko argazkiak igo eta gero, argazkiak *Goiena.eus* atariko *Bergara bizi* izeneko blogean argitaratuko dira. Hala, bertara sartzen direnek argazkirik gustukoena aukeratu ahal izango dute. Astelehena arte eman daiteke botoa. Saria 50 euro da, Bergarako Udalak emanda.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Orrazkeren tendentzia berriak erakusten. | I.S.

Osintxuko ama-eme dantzariak "oso pozik" Segurako txapelketan bikote moduan arizetik bueltan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Euskal Herriko 39. dantza txapelketa jokatu zuten pasa den zapatuan Seguran. Bertan, Osintxuko ordezkariak izan zen, Amaia Agirrek eta Manex Alberdik osatutako bikotea, hain zuzen. Ama-emeak dira Agirre eta Alberdi, eta lehen aldiz aurkeztu dira bikote bezala txapelketara.

Guztira, hamahiru bikotek hartu zuten parte, eta osintxuarek seigarren egin zuten bukarako klasifikazioan. Egindakoa erekin "oso pozik" geratu direla esan du amak.

Agirre duela hamar urte inguru hasi zen Osintxuko dantza

taldean, umeen irakasle, eta urte ugari daramatza mundu horretan. Birritan irabazi du txapela, 1984an eta 1986an, Juantxo Urbietarekin bikotea osatuta.

Alberdi, berriz, 5 urterekin hasi zen dantzan, amak irakatsita. Euskal dantzaz gain, balletean ere badabil, Bilbon.

Agirrek azaldu duenez, Segurara joan ohi dira urtero txapelketa ikustera, eta ekainean bikote moduan apuntatzea erabaki zuten. Ez du uste datorren urtean berak berriro parte hartuko duenik, baina "ikusitako beharko da", dio. Zapatukoa zerbait "berria eta oso polita" izan zela dio.



Amaia Agirre eta Manex Alberdi ama-emeak. | MALBERDI

Bizikleta festa antolatu dute biharko Lokatzakoek

M.T. | BERGARA

Bizikleta izango da protagonista nagusia bihar arratsaldean Bergarako kaleetan.

Herriko Lokatza txirindulari elkarteak bizikleta festa antolatu du, txirindularitza eta bizikletarekiko zaletasuna kalera atera eta herriko neska-mutikoak ibilgailu hori erabiltzera animatzeko asmoarekin.

Hitzordua seminarioan

Bihar arratsaldean 16:30ean hasiko da bizikleta festa, Seminarioko patioan. Izena tokian bertan eman beharko da.

Parte hartzera animatzen direnak bereziki prestatutako ibilbide motz batean ibiliko dira, adin taldeka banatuta. 3 urtetik beherakoek jostailuzko motortxoak erabiliko dituzte; 11 urte artekoek, berriz, euren bizikleta eroan beharko dute, eta 11 eta 15 urte bitartekoek Lokatzako bizikletak erabiltzeko aukera izango dute.

2000 eta 2003. urteen artean jaiotakoentzat Lokatzan apuntatzeko aukera ere izango da bizikleta festa horretan.

Umeentzako eta helduentzako ipuin kontaketa datorren astean

M.T. | BERGARA

Martitzenean, urriak 27, Joxe Mari Carrerek nagusiei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du. 19:30ean izango da, Udal Liburutegian.

Lehen, udaletxeko osoko bilkuren aretoan izaten ziren hileko azken martitzeneko ipuin kontaketa saioak, baina liburutegira aldatu dituzte.

Umeentzako saioa

Hilaren 30ean, berriz, egubakoitza, umeen txanda izango da. Datorren egubakoitzean, arratsaldeko seietan, Saroa Bikandiren ipuinak entzuteko aukera izango da.

Saio hori 3 eta 6 urte bitarteko umei zuzenduta dago eta liburutegiko haurren txokoan izango da.

Simon Arrietaren erakusketara bisita gidatua izango da bihar Donostiako Koldo Mitxelena

Urriaren 8an inauguratu zuten *Simon Arrieta 1915-1969* izeneko erakusketa Koldo Mitxelena Kulturunean, eta bihar bisita gidatua egingo dute, 18:00etan hasi eta 20:00ak arte. Luis Laskurain eta Migel Anjel Elkoroberezibar bergararrak izango dira gidariak, eta gazteleiaz emango dituzte azalpenak.

Pol-Poleko gazte taldeak mendi irteera zirkularra egingo du domekan, Arrola, Deskarga eta Irimora

Gaur, urriak 30, izango da txangoan parte hartzeko izena emateko azken eguna. Pol-Pol mendizale taldeak Fraiskozuri plazan daukan egoitzan egin beharko da, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Domekan 19:30ean irtengo dira frontoetik, eta Bergara-Arrola-Deskarga-Irimo-Bergara ibilbidea egingo dute, sei edo zazpi orduko eta 30 kilometro inguruko goiz irteera.

BKE denboraldiko lehen garaipena eskuratzen saiatuko da domekan Labegaraietako kantxan

Gipuzkoako saskibaloiko senior ligan, 5. jardunaldiko partidua jokatu du asteburuan Bergarako Take Orbela Taberna talde tolosarraren aurka. Domekan izango da, 16:30ean, Labegaraietan. Oraingoan, partidu guztiak galdu dituzte mahoneroek, baita oraingo aurkariak ere. Beraz, aukera polita daukate bergararrek etxean irabazteko eta sailkapeneko azken postutik ihes egiteko.

Gipuzkoako pilota txapelketaren barruan, hiru partidu jokatu dituzte gaur Udal Pilotalekuan

19:15ean hasita, alebin mailan Bergarako Pereirak Arrasateren aurka jokatu du banaka. Segidan, nagusien hirugarren mailan, Aritz Rezustak eta Jon Perezek osatutako bikotea Intxurreren aurka arituko da. Bukatzeko, palako kadete mailako partidua izango da: Hernani-Bergara. Azken horretan, herriko Guridik eta Agirrezabalek osatutako bikoteak jokatu du.

Emakumeentzako frontenis txapelketa antolatu dute eta izena eman daiteke azaroaren 3ra arte

Bikotekako txapelketa izango da, eta izena emateko tokiak Arrano eta Pol-Pol tabernak dira. Bikotea osatzen dutenen izen-abizenak eta kontakturako telefono bat eman beharko dira bertan. Epea azaroaren 3ra arte, martitzena, izango da, eta, horren ostean, parte-hartzaile guztiekin bilera egingo dute oinarriak zehazteko.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA



Bergara, bizirik 'bixi'-ra

Hostoak gorritu eta lehen zalantza egunak berogailua jarri edo ez erabakitzen.

Orain, udako giro gozo hura ahaztu, eta *goxotasuna* da eskatzen duguna. Eta *goxotasuna* izan daiteke hezur-haragizkoa, mantapekoa. Nola eskatu asma-

tzen duenak, biak lor ditzake. Edo ez. Baina tira, lortu, lortzen dugu nolabait.

Agian berotasuna izango da *goxatzen* gaituena, edo babestuta sentitze hori. Konplizitatea eta hurbiltasuna ere bai, kasu batzuetan. Alde ederra baitago haragitik haragira, mantatik mantara. Aldea dago gozotik *goxora*.

Bizi ere, guztiok bizi gara, baina denok ez gara *bixiak*. *Bixitasuna* omen da bizirik sentiarazten gaituena.

Hostoak gorritu diren honetan, Bergara Bizirik mantendu nahi duten merkatari guztien lana, beraz, ez da lan makala, gero.

Asmatu dute *goxotasun*-etik herriko giroa biziartzten. Bai beraiek eta bai gu beharrezkoak garelako sentiarazten.

Beraz, Bergarako herritarrok *bixitu* egin beharko genuke orain, guri baitagokigu bizirik gaude-la erakustea.

Alde ederra dagoelako lokal huts ilunetatik lokal dekoratu koloretsuetara.

Eta herritarren eta merkatarien arteko harremanak ere, ia beste guztiek bezala, gertukoia eta *goxoa* behar luke.

Bergara Bizi eta *bixi* bat izan nahi genuke denok. Nola eskatu asmatzen duenak, biak lor ditzake. Edo ez. Baina tira, lortu, lortuko dugu nolabait.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Eltzia nola kudeatu zehazten hasiko dira bihar

Herriko 37 eragile eta sortu berri diren beste hainbat talde dauden gonbidatuta; hiru saio dira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Kudeaketa eredia definitzeko fasean sartuko da Eltzia, eta hiru lan-saio egingo dituzte erabiltzaileek Eltzia nola kudeatu zehazteko. Egungo erabiltzaileak ez ezik, erabiltzaile izateko nahia azaldu duten eragileak eta talde sortu berriak daude deituta bilera horietara. Bihar, zapatua, izango da lehenengoa.

Abendura arte

"Gaur egun, herriko 17 eragilek dute euren kokalekua Eltzian. Beste horrenbestek hara joateko nahia azaldu dute eta herrian badira sortu diren taldeak ere. Guztiak gonbidatu ditugu kudeaketa definitzeko saio horietara, euren artean ondo nola konpon daitezkeen eztabaidatuko eta zehaztuko da eta. Oinarriak denon

artearen finkatzea litzateke onena, eta, horretarako, denak egotea komeni da", argitu du Onintza Adresek, Udaleko Parte-hartze teknikariak.

Kudeaketa eredia definitzeko fasearen lehen saioa pentsatzeko saioa izango da. "Elkarbizitzaren oinarriek zeintzuk izan behar duten eta egunerokotasunean nola moldatu zehaztuko beharko dute, adibidez; bigarren saioan, Udalarekin zer harreman izan behar duten eta hori nola koordinatu landu beharko dute; eta hirugarrenean, aurrekoetan zehaztutako puntuen gaineko adostasunak lortu beharko dituzte", azaldu du Adresek.

Eltziaren diagnosi fasea, proiektuaren definizioa eta proiektu arkitektonikoaren diseinua lantzeko fasea ere eginda daude.



Bagarako Onintze Guridi eta Udaleko Parte-hartze teknikari Onintza Andres. | O.E.

Abendura bitartean egingo duten kudeaketa eredia zehazteko fasea laugarrena izango da. "Egun Eltzian dauden eragileen esperientziak balioko du, duda barik, fase hori definitzen, euren esperientzia kontuan hartzekoa izango delako", adierazi du Adresek.

Musika Eltzia

Proiektu arkitektonikoa eginda, musika Eltzian lehentasuna ema-

tea adostu zuten, eta talde horiek erabiliko dituzten lokalak, gelak, egokitzen ari dira dagoneko. Bagarako kide Onintze Guridik azaldu duenez, lanak martxa onean doaz. "Asmoa da lanak abendurako bukatuta egotea eta 2016aren hasieran okupazioa egitea", zehaztu du Adresek. Eta gaineratu du: "Musika Eltzian izatera propioa du eta antolamendu propioa izatea ari gara aztertzen. Horretara

rako beharra ikusten badugu, horrela egingo dugu".

Lan-saioak

Hiru saio egingo dituzte kudeaketa eredia definitzeko, eta bihar izango da lehenengoa, irekiera bilera. Lan-saioen datak hauek dira: urriaren 24an, azaroaren 21ean eta abenduaren 12an. Hirurak Eltzian izango dira, 10:00etatik 13:00etara.

Garbigailu bat ere bai errekatik ateratako hondakinen artean

O.E. | OÑATI

Txatarra, ume-karroak, automobilen gurpilak, plastikoak, etxetresnak eta oihalak atera zituzten, besteak beste, domekan Oñati errekatik. Baita mezu bana zeukaten bi botila ere.

Hiru taldetan banatu ziren Natur Eskolak eta Udalak erreka garbitzera joateko elkarrekin egindako deialdira joandako 32

herritarrek: Torreauroko zatia garbitu zuen talde batek, Zubillaga parekoa beste batek eta Elorregin aritu zen hirugarrena. "Hondakin batzuk urak ekarritakoak ziren, baina hainbat sasi-tan garbi ikus zitekeen pertsonak maiztasun jakin batez botatzen dituztela trasteak toki horietara. Batutakoa Foruen plazan jarri dugu ikusgai, jendeak kontzient-



Batutako hondakinak Foruen plazan egon dira ikusgai. | O.E.

tzia har dezan zenbat zikin botatzen dugun errekarra. Errekak gure bizitzako parte dira eta zaindu egin behar diren mezua zabaldu gura izan dugu modu horretara", adierazi du Natur Eskolako Aimar Uribesalgok.

Elorregin aritutako taldeak Heliantus familiako hainbat landare inbaditzaile ere kendu zituen erreka ertzetik. Bertako flora eta faunari kalte egiten diete kanpotik ekarritakoak eta datorren urtean landare inbaditzaileak kentzeko irteera bat egitea pentsatu dute parte-hartzaileek.

Aurrekontuetarako ekarpenak egin daitezke

O.E. | OÑATI

Datorren urteko aurrekontuak lantzen ari da Udala, eta oraindik zabalik du herritarren ekarpenak jasotzeko epea. Urriaren 26a da proposamenak aurkezteko azken eguna. Proposamenak modu indibidualan edo talde bezala egin daitezke eta bakoitzak gura dituen beste egin ditzake. Kanpoan geldituko dira irizpide hauen kontra egiten dutenak: Udalaren eskumenekoak ez direnak, 2016an gauzatu ezin direnak, interes pribatukoak direnak, jasagarritasunaren edo printzipio demokratikoaren aurka egindakoak.

Abenduan

Udal Gobernuak eskuorri bat atera du proposamenak hor jasotzeko. Udaletxean, kultura etxean, kiroldegian, Lagun Lekun eta gizarte zerbitzuetako bulegoetan har eta utzi daitezke eskuorri horiek. Postontzien alboan fitxa gehiago ere badaude eskuragarri. Udal webgunean sartuta ere bete daitezke formularioa; www.oinati.eus da helbidea.

Ekarpenak jasotakoan aztertu egingo ditu Udal Gobernuak banan-banan. Urte berriko aurrekontuak abenduko osoko bilkuran onartu ohi ditu Udalak.

Odol Emaileen Elkarteak 20 oñatiar omenduko ditu

O.E. | OÑATI

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen omenaldia eta saria jasoko dute 20 oñatiarrek domekan. Eibarko Untzaga plazan dagoen jatetxean egingo duten ekitaldian jasoko dute omenaldia. Odola gutxienez 25, 40, 50 edo 60 aldiz eman duten Deba bailarako 114 lagun daude gonbidatuta ekitaldi horretara, eta horietatik 20 dira oñatiarrak.

Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak Mari Karmen Galdosek azaldu duenez, 20 horietako batek, gainera, sari berezia jasoko du. "Saria jasoko duten 20

oñatiar horietatik 11 dira odola 25 aldiz baino gehiago eman dutenak; zortzi, 50 aldiz baino gehiago eman dutenak; eta bat, 60 aldiz baino gehiagotan eman duena. Hark, hain zuzen, emaille handiaren saria jasoko du", argitu du Galdosek.

Odol Emaileen Elkarteak autobusa antolatu du Eibarrera joateko. 11:30ean irtengo da, Olakua auzoko geltokitik, eta, bidean, Bergarako eta beste herrietako omenduak jasoko ditu.

Oñatin egingo duten hurrengo odol ateratzea azaroaren 6an izango da.

Futbol taldeen argazkiak aterako dituzte

O.E. | OÑATI

Bihar, zapatua, futbol saileko taldeen argazkiak aterako ditu Aloña Mendik. 10:00etatik aurrera, azken urteetan egin duten moduan, futbol saileko talde guztien eta futbol eskolan parte hartzen duten umeen argazki ofizialak aterako ditu herriko kirol elkarteak. Azkoagain futbol zelaian aterako dituzte argazki guztiak.

Bestalde, Ohorezko Erregional Mailako taldeak Herriaren jokatu du zapatu arratsaldean.

Danele Sarriugarte | 'Tertulixan' taldeko moderatzailea

"Berritasunari lotuta ez dauden liburuak ekarriko ditut taldera"

- Danele Sarriugarte idazleak gidatuko du herriko euskarazko irakurle taldea
- Aurkezpen gisa, bihar, zapatua, mahai-ingurua izango da zinema aretoan

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Danele Sarriugarte idazlea (Elgoibar, 1989) izango da *Tertulixan* irakurleen klubeko moderatzailea azarotik aurrera.

Oraindik ez dituzu ezagutzen Oñatiko taldeko irakurleak. Liburutegiko arduradunek komentatuko zizuten nolako taldea den...

Bai, baina gero asko aldatzen da. Eurek profil soziologiko bat eman didate, bai, baina gero jendeak desberdin interaktuatzeko du taldean eta kanpoan. Horrez gain, beste bi irakurle hasiko dira eta horrek ere taldea berrituko du pixka bat.

Ze esperientzia duzu moderatzaile lanetan?

Azken ikasturtean Sopelako irakurle taldean gidari izan naiz eta aurten jarraitzen dut, eta Elgoibarkoan ere badihardut; azken hori euskaraz askorik irakurtzen ez dutenendako da.

Oñatiko talderako ze asmo dituzu?

Orain arte egon naizen bi taldeetan neu izan nintzen lehenengo gidaria; Oñatikoan, taldeak daukan erritmora eta dinamikara moldatu behar naiz. Nire helburua da berritasunari hain lotuta ez dauden liburu batzuk ezagutaraztea. Hala, azarorako, Uxue Apaolazaren *Umeek gezurra esaten dutenetik* irakurriko dugu; ipuin laburrak dira eta ni txundituta utzi ninduten. Urtarrilerako, Iñigo Astizen *Baita hondakinak* ere poema liburu



Danele Sarriugarte. | GOIENA

"Taldeak daukan erritmora eta dinamikara moldatuko naiz"

rua irakurriko dugu; hori ere liburu itzela da, baina beste modu baten harrizten zaituena, modu sotilagoan.

Moderatzaile lana asko prestatzen duzu edo unean uneko sentsazioekin jokatzeko duzu?

"Gaiak prestatzen ditut, liburutik tiratuz, baina hari erabat lotu gabe"

Gaiak prestatu eta irakurleei bidaltzen dizkiet, baina gero taldearen arabera da; batzuetan, zuk garrantzia eman ez diozun puntuak zeresana enan dezake eta horri jarraitzen diozu, baina ni saiatzen naiz liburu

Haur liburutegia, 'Aurorita'-rekin

Liburutegia ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte Udal Liburutegiak eta herriko ikastetxeek. Urteroko ekintza da, baina aurten Liburuaren Egunaren egitarauan sartu dute.

Hain zuzen, 4 urteko umeek kultur etxeko haur liburutegia ezagutzeko aukera izango dute urriko azken astean; zehazki, urriaren 27an, 28an eta 29an joango dira, goizez, eskola ordutegian, sei ikasgelatako umeak. Lur Korta ipuin kontalariak *Aurorita beti polita* pertsonaiaren rola eginez gidatuko ditu bisitak. Liburutegian zer dagoen, nola erabili, arautxo batzuk... erakutsiko dizkie umei *Aurorita*-k. Azken ordu erdian ipuinak kontatuko dizkie.

rutik tiratzen, erabat lotuta egon gabe; liburuan gai bat baldin badago, gai horren gainean zabalago hitz egiten dugu, pertsonaiezu...

Bihar, zapatua, mahai-ingurua egingo duzu Cristina Morano, Jose Daniel Espejo eta Hedoi Etxarterekin.

Bai. Moderatzaileak oso fin egin ditu etxeko lanak eta asteburuan bidali zizkigun landu nahi dituen gaiak. Hizlari gehiago egoteak beti ekartzen dizkizu hizpide berriak. Ez dut ezer idatzita eramango, baina ohar batzuk apuntatzen ditut, bai.

Kultur jarduerak egiteko diru laguntza eska daiteke

Udalak diru laguntza emango du gazte kultur jarduerak antolatzeko. Urteko programaketa, kultur sormena edo material erosketarako egiteko laguntza da hori. Guztira, 1.800 euro banatuko ditu, udaberrian eman gabe gelditu zen diru kopurua, hain zuzen ere. Azaroaren 9ra arte dago zabalik epea. Gaztelekuan aurkeztu behar dira eskaerak.

Film laburren rallyan 20 talde bakarrik hartuko dituzte

Urriaren 31n egingo dute film laburren seigarren rallya. Beti bezala, taldeak goizean goiz hasi eta egun osoan zehar arituko dira film laburra ekoizten, eta Santa Ana aretoan erakutsiko dituzte aurkeztutako lan guztiak. Aurten "sorpresa" egongo direla aurreiratu dute antolatzaileek. 28ra arte dago zabalik izen-ematea.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN



UBIK

Bihar, urriak 24, Bibliotekaren Eguna ospatzen da, eta, barakatuko didazue, baina aukera aprobetxatuko dut honen harira hausnarketa txiki bat zuekin partekatzeko.

Duela hilabete, Tabakaleran ireki behar duten liburutegia bisitatu nuen. UBIK: sorkuntza liburutegia, deitu diote. Izenetik atzeman daiteke ez dela ohiko liburutegia izango. Bertan ez da isiltasunik egongo, edo, hobeto esanda, ez dute isiltasuna inposatuko. Sortzaileen elkargunea izan nahi du, eta sortzeko komunikazioa ezinbestekoa dela diote. Kultura garaikidearen gainean sormena bultzatzeko tresnak eskainiko dizkigute: audio eta bideo ediziorako gailuak, grabazio-guneak, fanzineak egiteko txokoa... eta baita horiek erabiltzeko laguntza teknikoa ere. Denok izango dugu tokia liburutegi honetan, haurrak, gazteak eta helduak, denok elkarrekin eta denok nahasturik.

Proiektu berritzailea eta ausarta, duda barik, liburuak mailegatu hartzeko edota ikasteko bakarrik erabiltzen ziren isiltasun-tenpluetatik urrun. Internetek liburutegiaren ohiko rola zalantzan jarri du eta gizarteak beste erabilera bat aldarrikatzen du. Hori dela eta, liburutegiek halabeharrez aldatu beharko dute beraien izaera, eredu zaharkituak alde batera utzi, gizarteari eskua eman eta komunitate sortzaile bilakatu.

"Proiektu berritzailea eta ausarta, duda barik"

Eguaztenetan ere yoga saioak izango dira Lagun Lekun

Olakua auzoko Lagun Leku nagusien elkartearen yoga talde berria osatu gura dute eta horretarako deialdia egin dute. Talde berriak eguaztenetan izango ditu saioak, 09:30etik 11:00etara bitartean. Interes dutenek izena eman dezakete. Horretarako, Eltzian dagoen Lagun Lekuren egoitzara jo behar da.



Papalagi taldea, artxiboko argazki baten. | GOIENA

Sapaturrock aldarrikapen jaialdia antolatu du Sarek

Poesia, rock eta argazki emanaldiak izango dira

KOMUNITATEA GOIENA
SARE OÑATI | OÑATI

Oñatiko Sare herritar mugimenduak bultzatuta jaialdi ederra antolatu dugu hurrengo zapatarako, urriaren 24rako, Oñatiko gaztelekuan. Jaialdirako prestatuko kartelak jasotzen duen moduan, poesia, rock-and-rolla eta aldarrikapena uztartu nahi dituen ekitaldia ospatuko dugu bertan. Egitaraua hau da: 19:00etatik 21:00etara, PObrESIAK, Bi Xahar Geldo eta Kepa Zelaia;

tutako kartelak jasotzen duen moduan, poesia, rock-and-rolla eta aldarrikapena uztartu nahi dituen ekitaldia ospatuko dugu bertan. Egitaraua hau da: 19:00etatik 21:00etara, PObrESIAK, Bi Xahar Geldo eta Kepa Zelaia;

23:00etan, Txuleton's eta Papalagi; eta ekitaldi osoan zehar, dispersioaren aurkako *selfie* emanaldia, Sareren aldarrikapena eta gehiago!

Sakabanaketaren aurka

Ahots eta adierazpen artistiko ezberdinak bildu nahi izan ditugu ekitaldian, Sare mugimenduari aldarrikapenari babesa eta bultzada emanez. Horregatik, gaztelekuko oholtza gainera adin guztietako musikari eta artistak igoko dira, beraien abesti eta poesien bitartez ozenki adierazteko euskal presoen sakabanaketa politika krudelaren amaiera behar dugula, euskal herriratu nahi ditugula, eta gaixotasun larriak dituzten presoak, adinduak eta zigorraren hiru laurdenak eta bi herenak beteta dituztenak ere kalean nahi ditugula. Gainera, herritarrek bidali dizkiguten selfie-mezen bitartez, presoen eskubideen aldeko aldarrikapena ozenkiago entzungo da, jaialdian bertan ikusi ahal izango ditugu eta beraiek igorritako argazki eta bideoak. Beraz, bertara hurbiltzeko gonbita besterik ez zaitzue falta. Animatu zaitezte!

Herriko futbol txapelketak hasi du denboraldi berria

O.E. | OÑATI

Herriko futbol txapelketak denboraldi berriko bigarren jardunaldia izango du asteburu honetan. Zapatuan hiru partidu jokatu dira eta domekan bat.

Sasquatch eta Kalañatasay taldeek 14:00etan jokatu dute elkarren kontra bihar; Bundeswehr eta Kilikolok 18:30ean eta Auschwitz eta Hangolak 20:00etan. Domekako partidua 13:00etan izango da eta Joxely eta Shatoken Moïra taldeak

izango dira elkarren aurka indarrak neurtuko dituztenak. Partiduak Azkoagainen dira.

Hamahiru talde

Joan den asteburuan hasi zen herriko beteranoen futbol txapelketa, eta 13 talde izango dira aurten lehian, iaz baino bi gutxiago. Talde batzuek jokatzeari utzi dioten arren, berriak ere sortu dira txapelketarako, hala nola Hangola, Shatoken Moïra eta Zalaparta.

Gaztetxeen topaketa Oñatin egitea proposatu du Antixenak

O.E. | OÑATI

Euskal Herriko gaztetxeen topaketa Oñatin egiteko proposamena egin die gainerako gaztetxeei Antixenak. Gonbidapen horri erantzun behar diote orain Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladek, baina, kontrarik ezean, Oñatin egingo dute datorren urtean gaztetxeen topaketa. Gazteek euren herrietako antolakuntzaz eta horrek sortu dizkien arazo eta aban-

tailez berba egiten dute, besteak beste, jardunaldi horretan. Oraindik data zehatza jarri gabe dute arren, asmoa da otsailaren bukaeran edo martxoaren hasieran egitea. Joan den urtean Laudion egin zuten, baina aurretik hainbat urtetan ez zen horrelakorik antolatu.

Bestalde, hileko egitaraua prestatzen ari dira Antixenean. Datorren astean, Azkoitiko Akauzate taldeak joko du.

Eskulan ikastaroetako matrikularen ziurtagiria kultura etxean entregatu behar da

Udalak antolatu dituen eskulan ikastaroak ordaintzeko matrikula epea zabalik dago. Hilaren 30a da ordaintzeko azken eguna. Haur eta gaztetxoek 56 euro ordaindu behar dituzte eta nagusiek, 76,50 euro; estanzazio tailerreko matrikula 25,50 euro da. Matrikularen ziurtagiria kultura etxean entregatu behar da. Eskulan ikastaroak azaroko lehen astean hasiko dira.

Lezesarriko kofradiak urteko batzar orokorra egingo du domekan auzoko San Esteban elizan

Lezesarri kofradiak urteko batzarra egingo du asteburu honetan. Domekan izango da batzar orokorra, 11:45ean, auzoko San Esteban elizan. Batzarraren ostean, 12:00etan, meza esango dute, urtean zehar hil diren kofradiako kide guztien oroimenez. Mezaren ostean jatekoa eta edatekoa egongo da batzen diren guztientzat. Batzarrera joateko dei egin diete kofradiako kideek auzotarrei.

Dependentziari buruzko hitzaldia egingo du Ander Rodriguez diputatu ohiak gaur Lagun Lekun

Ander Rodriguez diputatu ohi arrasatearrak mendekotasunari buruzko hitzaldia egingo du gaur Lagun Leku elkartearen. 19:00etan hasiko da hitzaldia. Bestalde, datorren asteazkenean, urriak 28, gripearri buruzko hitzaldia egongo da Lagun Lekuko lokalean. Gripea izango da gaia. Gripearri nola aurre egin azaldu du Oihana Ezkurak. Hitzaldi hori 17:00etan hasiko da.

Haitin egiten ari diren eskolaren aldeko afari solidarioa egingo du gaur Oñatiko misio taldeak

Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolak emango dituen eskola bat eraikitzen laguntzen dabil Oñatiko misio taldea, eta proiektu horretarako dirua batzeko elkartasun afaria egingo dute gaur, egubakoitza. Bidaurretan izango da, 20:30ean. Misioetako pastoraleko koordinatzaile Leire Atxega eta Dummond apaiza ere izango dira afarian.

Kepa Umerez | Aloña Mendiko txirrindularitza saila

"Pozgarria da ziklo-kroseko zaletasuna handitzen ikustea"

- Bihar Abadiñoako lasterketan izango da Arrikruz-Aloña Mendi taldea
- Arrasate eta Oñatiko Euskadiko txapelketako egutegian daude

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiko txirrindularitza saileko kide da Kepa Umerez. Arrikruz Kobak ziklo-kros taldearen bosgarren denboraldiaz jardun du Goiena telebistako *Harmailatik* saioan.

Taldearen aurkezpenean ilusioa aipatu zenuten behi baino gehiagotan. Garrantzia du ilusioa izateak? Handia, gainera. Gogorra da ziklo-krosa: negua, lokatza, hotza... Ilusioa izatea garrantzitsua da. **Sei lagun daude taldean. Mantedu egiten da kopurua urtez urte, gutxi gorabehera.**

Bai. Bost eta zazpi artean ibili gara beti. Kopuru polita da.

Kide bat, gainera, emakumezkoa. Pozgarria da hori.

Maider Usandizaga ere ibili zen eta aurten Garazi Erostarbe arituko da. Mutilak baino gutxiago, baina neskak ere badabilta, bai. **Zenbat lagun zaudete txirrindularien atzean, eurei laguntzen?**

Zuzendari moduan beste hiru lagun ibiliko dira eta koordinatzen beste bi. Eta horiekin batera gurasoak ere bai, noski. Oso garrantzitsuak dira gurasoak.

Euskadiko txapelketako egutegian 18 lasterketa daude. Denetara joango zarete?

Txirrindulariak gazteak dira, eta erabaki genuen talde moduan asteburu bakoitzean lasterketa bat egitea; beraz, 11 bat egingo ditugu. Gainera, errepidean ere ibiltzen dira batzuk, eta denboraldi bat bestea bukatzean hasten da. Behar dute denbora beste kirol batzuk ere egiteko, ez bakarrik bizikleta gainean ibili. Atsedena ere behar dute.

Oñatiko lasterketaz gain, zein da kale egiten ez duzuen beste bat?



Kepa Umerez Goiena telebistan. | GOIENA

Legazpikoa, adibidez. Gertu dago, zirkuitua asko gustatzen zaigu eta harreman ona dugu hango txirrindulariekin. Aurten, gainera, Euskadiko txapelketa han jokatu da. Ormaiztegikoa ere klasikoa da eta gazte mailakoei asko gustatzen zaie ibilbide horretan dagoen jaitsiera. Elorriokoa ere bai...

Aurten bi lasterketa izango dira Debagoienean: abenduaren 13an Arrasaten eta 20an Oñatin. Aspaldi ez dira bailaran bi lasterketa egon denboraldi bakarrean.

Ez. Bailaran, gainera, maila handia egon da ziklo-krosean. Oñatin,

1956an, munduko txapelketa jokatu zen. Aretxabaletan ere izan dira goi mailako nazioarteko lasterketak, eta txirrindulari onak etortzen ziren. Oso polita da hori berreskuratzea. Aurten bailarako bi herritan egingo dira probak, eta oso pozgarria da hori, bai. Ziklo-krosa txirrindularitzaren beste diziplina bat da, eta polita da, bai ikusteko eta baita txirrindulariek eurek gozatzeko ere. Behin baino gehiagotan ikusten dituzu txirrindulariak.

Noiz egingo duzue lehen lasterketa talde moduan?

Asteburu honetan, zapatuan, Abadiñon izango den lasterketara joango gara. Horixe izango da denboraldi berriko lehen irteera. **Iazko denboraldia ona izan zen. Horrek lagunduko du, ezta?**

Bai. Emaizta aldetik ona izan zen, baina txirrindulariek eurek pozik eta motibatuta egin zuten, eta hori ere garrantzitsua da.



Urriaren 17an egin zuten taldearen aurkezpena kultura etxean. | MIREIA BIKUÑA

Arrikruz ziklo-kros taldea errepidean da

Kadete eta gazte mailako sei txirrindulari izango ditu Oñatiko taldeak. Espainiako Kopako probetan, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan eta Oñatiko lasterketan parte hartuko dute, besteak beste. Azken hori abenduaren 20an jokatu dute. Garazi Erostarbe, Ander Blazquez, Ander Gartzia, Andoni Igartua, Xabier Murgiondo eta Ekaitz Txintxurreta dira Arrikruz ziklo-kros taldeko txirrindulariak. Lehenengo biak lehen mailako kadeteak eta gainerakoak, gazte mailakoak.

Ca CALZADOS
ALDASORO

Oñatiko denda
eskualdatzen dugu
erretiroagatik
Oso baldintza onak

Tel.: 943 76 01 18 / 943 78 07 55



Udalbatza, martitzenean egin zen urriko ezohiko bilkuran. | IMANOL BELOKI

Tasak orokorrean ez igotzea erabaki du udalbatzak

Uraren tasa %5 igoko da, Ur Patzuergoak proposatuta, eta etxe hutsen ondasun higiezinaren gaineko zerga errekarua kendu egingo du Udalak

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Martitzenean egin zuten urriko ezohiko bilkura, eta gai guztietatik nabarmentzekoa da 2016ko ordenantza fiskalak orokorrean ez direla igoko, uraren tasa izan ezik. Uraren tasa %5 igoko da, Ur Patzuergoak hala proposatuta, aurreikusitakoa baino ur gehiago gastatzen dela adierazita. Bozketan, EAJ alderdiak, Elizateen laguntzarekin, baiezkoa eman zuen, eta EH Bildu eta Irabazi alderdiak, berriz, abstenitu egin ziren.

Bestalde, orain arte etxe hutsak zituztenek ordaintzen zuten ondasun higiezinaren gaineko zergen %50eko errekarua kendu egi du Eskoriatzako Udalak. Hobariak, aldiz, ez dira axtro-

kitan ordainduko, azken urteotan moduan: dirutan ordainduko dira. "Aurrekontuak egiteko garaian kontuan hartu beharreko beste puntu bat izango da", adierazi du Joserra Zubizarreta alkateak.

Herri galdeketerako zain

Hondakinen gaineko herri galdeketeraren gainean, berriz, galderak onartu zireneko iraileko udalbatzara arte errolatuta dauden 18 urtetik gorako eskoriatzar guztiak izango dute aukera galdeketera bozkatzeko.

Joserra Zubizarreta alkatearen esanetan: "Bozketaren gainean prozedura onartuta, aurreko udalbatzaren aipatu zen moduan, baimena eskatu dugu Madrilera,

eta, gestio guztiak eginda, erantzunaren zain gaude. Gure asmoa lehenbailen egitea da".

Auzo-konpost guner berria

Amaitzeko, galde-eskeetan, Aitor Zubizarreta EH Bilduko ordezkariak duela hiru hilabete osoko bilkurara eroan zen gai baten gaineko azalpenak eskatu zituen; Olazar auzo-konpost gunearen kokaleku berriaren gainekoak, hain zuzen.

Auzo-konpost gunea kendu egin zuten, eta, alkatearen esanetan: "Guk bi proposamen ditugu, baina, hiri-berritze planaren gaineko bileran, auzo-konposta kendu zeneko auzoko jendearrekin egongo gara, eta proposamen berriak jasotzeko asmoa dugu".

Iñigo Gartzia eta Ainara Gomez dira Ibarraundiko argazki lehiaketako saridunak

Hiru kategorietan, bi sari banatu dira; izan ere, hirugarren sailkatuak ez ditu baldintzak bete

I.B | ESKORIATZA

Ibarraundiko Udako Argazkien IV. Lehiaketarako sari banaketa eguaztenean izan zen. Oinarrietan aipatu bezala, adina kontuan hartuta hiru kategoriatan sailkatu dira: 15 urtera artekoak, 16 eta 49 urte artekoak, eta 50 urtetik gorakoak.

Lehen sariduna Ainara Gomez izan da, 15 urtetik behe-
raoetan; bigarrena, Iñigo Gar-

tzia, 16 eta 49 urte artekoetan; eta hirugarren saridunak, ordea, ez da egon.

Baldintza guztiak bete barik

Oinarrietan aipatzen ziren baldintza guztiak bete ez dituztenak izan dira, eta horregatik ez da hirugarren saririk egongo. Beraz, ez ditu 50 axtroki jasoko. 26 argazki jaso dira lehiaketan, baina onartuak 23 izan dira.



Iñigo Gartzia eta Ainara Gomez irabazleen argazkiak. | IBARRAUNDI

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azkeneko final-laurdena Eskoriatzan izango da azaroaren 8an

Azaroaren 8an jokatu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azkeneko final-laurdena Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, 17:30ean. Sarrera arruntak dagoeneko eskuragai daude Eskoriatzako kiroldegian, 11 eurotan. Besteak egunean bertan erosi ahal izango dira leihatilan. Dena den, sarrera mota guztiak www.bertsosarrerak.eus webgunean eros daitezke.

Urriko azken asterako hainbat hitzaldi eta tailer prestatu dituzte Olazar elkarterako erretiratuek

Olazar elkarterak *Medikazioa, automedikazioa...* hitzaldia prestatu du urriaren 27rako. Kultura etxean izango da, 19:00etan, Begoña Olabarrieta hizlariaren eskutik. 29an, berriz, *Elikagaien segurtasuna* hitzaldia emango du Fernando Alkorta leku eta ordu berean, eta urriaren 28an eta 30ean, pertsona zaharren erorikoak prebenitzeko tailerrak izango dira Ibarraundin, 16:00etan.

Dantza-jauzien hastapeneko ikastaroan izena emateko epea zabalik dago urriaren 29ra arte

Urriaren 31tik abenduaren 5era arte iraungo du dantza-jauzien ikastaroak. Sei saio izango dira, guztira, eta zapatuetan izango dira eskolak, 16:30etik 18:30era bitartean, kultura etxean. Irakaslea Patxi Montero izango da, eta izena eman nahi duenak kultura etxera joanda, edo 943 71 46 88 telefonora deituta egin dezake. Ikastaroaren prezioa 50 euro da eta izena emateko azken eguna urriaren 29a izango da.

Egitarau zabala izango da urriaren 28tik azaroaren 1era bitartean Arimen Gaua ospatzeko

Urriaren 28an, Oier Araolazak Arimen Gauaren gaineko hitzaldia eskainiko du kultura etxean, 18:30ean. Urriaren 30ean, 17:30ean, sorgin edabeak eta mozorroak egingo di gaztelekuan. Urriaren 31n, 17:00etan, kalabazak hustea, plazan. 18:30ean, Maite Frankoren ipuin kontaketa ur-depositu zaharrean. 21:00etan, gaztelektik ur-depositu zaharrera irteera; eta azaroaren 1ean, 18:00etan, beldurrezko filma, gaztelekuan.

Eskoriatzako errekan dagoen zikinkeria garbituko da domeka honetan

Errekaren ibilbide aldaketak aztertuko dituzte 'Trankil'-en liburutik, hura ezagututa

I.B | ESKORIATZA

Urtero moduan, erreka garbitzeko egongo dute Eskoriatzan. Aurten, urriaren 25ean, domekan, izango da, eta herriko plazan elkartuko dira, 11:00etan,

erreka garbitzera joateko. Parte hartu nahi dutenek oinetako egokiak eroan beharko dituzte. Gainontzekoa -eskularruak, poltsak...- antolatzaileek jarriko dute.

Erreka garbitzeaz gain, beste ekintza bat ere egingo dute osagarri gisa: Eskoriatzako antzinako planoetan oinarrituz, erreka historian zehar izan dituen aldaketak aztertzeke proposatu diete ikastetxeei. Horretarako, Joxe Aranburuzabala *Trankil-en Eskoriatzako ohar monografikoak* eta Aitor Pagaldairen *Eskoriatzako udaletxeen historia, Deba ibaiaren ubidearen aldaketa*, aztertzeke eskatuko diete antolatzaileek. Bide batez, *Trankil* jaio zeneko 100. urteurrena gogoraraziko dute, haren lana ezagututa.

100 urte 'Trankil' jaio zela

Aipamen berezia egin nahi diote Ibarraundi museotik *Trankil-i*, herriko historia aztertzen egin zuen lanagatik, baita museoari egindako ekarpenengatik ere, eta, bide batez, ikasleei hura zein zen eta herriko historiaren alde egin zuen lana irakasteko.





Herri Eskolako 5. mailako gaztetxoak bertsoan ikasleen aurrean. | MAIDER ARREGI

Endika Ruiz: "Imajinazio handia dute bertsoarako"

Urte bukaeran ikasleek bertso saioa egingo dute Torresoroan, herritarrendako

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ikasturte honetan, lehenengoz jarri da martxan *Gu ere bertsoan* proiektua. Izan ere, herrian bertsoaritzaz bultzatzea oso garrantzitsutzat jotzen dutela azaldu du Udaleko Kultura batzordeak. "Bertsolaritza ardatz hartuta, zeharka beste hainbat arlo ere lantzen dira: euskara, kultura, kantua eta musika, trebetasun pertsonalak eta sozialak -komunikatzeko gaitasuna, jendaurrean moldatzeko baliabideak, etab.-", azpimarratu dute batzordeko kideek. "Bertsolaritzaz zaletzeko egokiena txikitatik hasia zela pentsatu genuen; hala, egokiena iruditu zitzaigun eskolan bideratzea; hartara, eskola orduetan ume denek izango zutelako bertsoaritzaz lantzeko aukera. Esko-

lak begi onez ikusi zuen eta 2015-2016n jarri da martxan *Gu ere bertsoan* proiektua Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin batera".

Eta dagoeneko hiru saio daromatxate 5. mailako gaztetxoek Endika Ruiz oñatiarraren gidaritzapean. Ruiz hamabostean behin etortzen da eskolara, eta ikasleak oso gustura eta kontentudela dio: "Orain arteko saioetan bertsoariak ezagutu ditugu. Baina bertsoariak oholtza gainean duten jarrera eta bertsozaleek eduki behar duten errespetuaz ere jardun dugu. Neurriak zenbatzen eta errimak lantzen, ordea, hasi berri gara eta sekulako sorpresak egon dira! Izan ere, haurrek imajinazio handia dute eta geuk ikusten ez ditugun hitzak erabiltzen dituzte

errimak egiteko orduan". Esperientzia polita bizitzen ari direla esan dute ikasleek eta irakasleek. "Urduri egoten gara denon aurrean kantatzea tokatzen zaigunean, baina, oso gustura gaude, matematikak baino gehiago gustatzen zaizkigu bertsoak! Endikak etxeko lanak bidaltzen dizkigu eta etxean gurasoekin egiten ditugu", diote ikasleek, irribarrez.

Proiektua aurten jarri da martxan 5. mailako ikasleekin (10 urte). Baina 6. mailan jarraituko dute eta bi urte egingo ditu talde bakoitzak bertsoan. Asmoa da proiektuak jarraipena izatea eta urtero 5. mailara iristen diren umeekin hasia.

Urte bukaeran jendaurreko bertso saioa egingo dute Torresoroa aretoan.

Ikasleak eskolara garaiz iristeko eskubidea aldarrikatu dute gurasoek

Diputazioko politikariei bilera egiteko eskatu diete, duten arazoari irtenbidea emateko

M.A. | ANTZUOLA

Irailean autobus ordutegiak izan dituen aldaketen ondorioz, Antzuolako ikasleak berandu iristen dira eskolara, Bergarara. Guraso talde batek, Antzuolako alkateak eta Ipintzako zuzendaritzak Diputazioari eskatu diote eskolara garaiz iristeko eskubidea errespetatzea. "Iaz 07:40rako autobusa iristen zen Antzuolara, baina aurten Eskoriatzatik datorren autobus zirkularra berandu

iristen da. Lehentasuna da eskolara garaiz iristea, eta gutuna Bidali diogu Diputazioari", dio alkateak. "Erantzun politikoa- ren zain gaude; zentzuzko eskaerei zentzuzko erantzuna ematea espero dugu". Maria Jesus Iturbe batxilergoko bigarren maila ikasten ari den mutil baten amada. Denbora aurrera doala eta oraindik arazoak jarraitzen duela esan du: "Zerbitzu gerozkoak, autobusa beteta joango litzateke goizetan Bergarara".



Antzuolako alkatea guraso talde batekin autobus geltokian. | GOIATZ ARANA

Alternatiben Herria ekimenean parte hartzeko deia biharko

Egungo eredu kapitalistaren alternatiba diren proiektuak ezagutu eta partekatzeko, bihar, Alternatiben Herria ekimena egingo dute Bilbon (*Alternatibenherria.eus*). Bertan parte hartzeko deia egin du Antzuolako Sortuk.

Hauteskundeetarako ordezkariak hautatzeko batzarra

Antzuolako EH Bilduk batzar irekia deitu du urriaren 26rako (Olaran, 19:00). Abenduaren 20ko hauteskundeetarako Gipuzkoako hautagaiak aukeratzea da helburua. "Herritarren ahalduntzeko" lege proposamena ere azalduko dute.

Arrola taldeak irteera antolatu du Domu Santu egunerako

Azaroaren 1erako, domeka, Deba-Arno-Deba ibilaldia antolatu du Arrolak (12 km). Autobusa 08:30ean irtena da. Izena urriaren 28a baino lehen eman behar da: arrolamt@gmail.com helbidean edo 650 61 46 41 (Maialen) telefonoan.

Munduko migrazioa berbagai Olanaren urriaren 27an

Agustin Untzurrunzagak eskainiko duen hitzaldian munduko migrazioa aztertuko dute. Landatxope erretiratuaren elkarteak antolatuta, 19:00etan Olanaren izango da hitzaldia hilaren 27an. Doakoa eta herritar guztiendako da.



MAITE TELLERIA

Gure bizipenak eta desioak partekatzeke espazioa

Antzuolako emakumeok gure kontu, behar eta desio kuttunenak hobeto ezagutzeko txokoa aurkitu dugu; ilusioz eta gogoz itxaroten diogu hilean behin ospatzen dugun saioari. Gure bizipenak banatzeko espazioa aurkitzen dugu. Batzuetan erdaraz, bestetan arabieraz eta pixkanaka guztiok euskaraz! Gurekin tarte bat pasatzeko grina piztu bazaizu, etorri azaroan!

Oinarin taldeko 110 umek dena prest domekan Haurren Eguna ospatzeko

M.A. | ANTZUOLA

Haurren Egunean herrian dantza egiteko gogoz daude Oinarineko gaztetxoak. "Beti galdetzen dute zein ordutan, zein dantza egingo diren... gogoz daude dantza egiteko", diote Oinarin taldeko kideek. "Aurten hasi direnak ere plazan izango ditugu, ikasi duten apurra erakusteko gogoz daude eta".

Sei dantza talde

Antzuolakoaz gain, Txikitxu eta Lore Gazteak (Arrasate), Oñatz (Oñati), Urrats (Soraluze) eta Korosti (Legazpi) taldeetako dantzariak etorriko dira domekan. 10:00etan hasiko da kalejira. 12:45ean goizeko dantza saioa egingo dute plazan. 17:30ean, aldiz, talde bakoitzak dantza berezi bat egingo du.

Burdin Aroko eta gerra garaiko aztarnak ikusteko bisita gidatua egingo dute

- ▶ Ikustaldia domekan izango da, 12:00etan
- ▶ Bihar auzolanean egingo dituzte indusketa gehiago

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Murugainen indusketa lanak egiten dabilta urrian zehar Ondarre Babesa elkarteko kideak. Beste urte batzuetan egin izan duten moduan, aurten ere herritarrei zabaldu diete indusketak egiteko aukera. Hain zuzen, auzolanean ibili ziren joan zen zapatuan; bihar, zapatua, jarraipena izango du lanak. Gainera, domekan, bisita gidatua egingo dute indusketen gunera. Bisita gidatua 12:00etan izango da tontorrean bertan.

Hainbat aurkikuntza

Joan zen zapatuan "giro onean" ibili ziren auzolanean, Etor Telleria Ondare Babesako kideak azaldu duenez: "17 lagun elkartu ginen, Arrasateko, Aramaioko eta Gasteizkoak", dio. Lubakietan ibili ziren industen, eta hainbat gauza aurkitu zituzten: "Gerra zibileko bala-zorroak eta baita granada-mutur bat ere, malgukiarekin". Horrez gain, Burdin Aroko zorroztarri bat ere aurkitu zuten. Izan ere, Murugainen gerra zibileko aztarnak eta Burdin Aroko

aztarnak bilatzen dituzte. "Jendea gustura geratu zen egindako lanarekin", dio.

Biharko auzolanean parte hartzeko izena eman beharko da udaletxera deituta: 945 44 50 16. 11:00etan izango da indusketa.

Bisita: 12:00etan izango da

"Orain arte induskatu ditugun eremuetatik ibilbide txiki bat egingo dugu", azaldu du Telleriak. 12:00etan hasiko da bisita, eta ez dago aurrez izena eman beharrik. Ordubete pasa iraungo du bisitak



laz egindako indusketak Murugainen. | GOIENA

eta han aurkitutakoak eta aurkikuntza horien testuinguru historikoa azalduko dute Ondare Babesa elkarteko kideek. "Parte hartzen duen jendeak ekarpenak

egiten ditu. Gerra zibileko oroi-tzapenak, edo ezagunen batek esandakoak jakiten dituzte, eta ekarpenak egiten dute bisitan", dio Telleriak.

Aramaion ekoizten diren eztiak dastatzeko ekintza antolatu dugu

Urriaren 28an egingo dugu, 18:30ean, Juan Mari Arriolabengoaren eskutik

KOMUNITATEA GOIENA | ARAMAILUR
ARAMAILUR | ARAMAIO

Aurtengo ezti berria puntu-puntu dagoen honetan, Aramaion ekoizten diren ezti ezberdinak dastatzeko ekintza antolatu dugu Aramailur Kontsumo Elkartetik.

Bi zati izango ditu eguaztenezko saioak: batetik, ezti mota ezberdinen ezaugarriak zein diren ikasi eta hauek ezberdintzeko pistak emango dizkigu Juan Mari Arriolabengoak. Ezti era askotakoa izan daiteke: mila-lore – Aramaion hori ekoizten da–,

erromeroa, eukalipto... horien ezaugarriak zeintzuk diren azaldu du Arriolabengoak. Bestetik, Aramaion ekoizten diren eztiak dastatzeko eta erosteko aukera egingo da.

Bost ekoizle

Aramaioko bost ekoizleren eztiak egingo dira eguaztenezko: Jesus Gardokiren Gardoki ezti, Roberto Aginagaldere Txoroko ezti, Juan Mari Arriolabengoaren Aldeko ezti, Maximo Kurtzelairena eta Jose Lonbiderena.



Ezti dastatzearen kartela. | ARAMAILUR

Alboka ikastaroa egingo dute azaroko astelehen guztietan

Urriaren 28a baino lehen eman behar da izena

A.E. | ARAMAIO

8 urtetik gorako herritar guztiei –gazte zein heldu– zuzendutako alboka ikastaroa antolatu dute.

Azaroan zehar eskainiko dute ikastaroa, astelehen guztietan –guztira, bost astelehen–. San Martin eskolan egingo dute, bestelako musika ikastaroak eskaintzen dituzten tokian.

Ikastaroa: 50 euro

Izena eman gura duenak urriaren 28ra arte izango du aukera horretarako, 688 69 57 63 –Ira-

ti– telefono zenbakira deituta. Izena emango dutenen artean adostuko dute ordutegia. Ikastaroaren prezioa 50 euro da.

Oinarrizko ikastaroa

Ikastaroan parte hartzeko ez da solfeo ezagutzarik eskatuko. Hain zuzen, albokaren inguruko oinarrizko ezagutzak erakutsiko dituzte: alboka ezagutu, nola hartu, arnasketa nola egin... Albokak eskolan izango dituzte, eta izena ematen duen jende kopuruaren arabera banatuko dituzte.

Zarzuclara joateko autobusa eta mus ikastaroa, erretiratuen eskutik

Musika ikuskizuna azaroaren 28an izango da

A.E. | ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak autobusa antolatu du Arrasateko Amaia antzokira joateko. *La alegría de la huerta* zarzuela ikusteko irteera izango da. Emanaldia azaroaren 28n izango da, 19:30ean, Amaian. Autobusa eta sarrerak erreserbatzeko 20 euro ingresatu beharko ditu interesa duenak erretiratuen elkarteko kontuan, Laboral Kutxan, azaroaren 1a baino lehen –domeka–. Bazkide ez direnek 22 euro ordaindu beharko dute sarrera eta autobusa erreserbatzeko.

Mus ikastaroa

Zarzuclara ikustera joateko autobusaz gain, mus ikastaroa ere antolatu du erretiratuen elkarteak. Roman Lopez izango da zuzendaria; haren aginduetara, bi asteko ikastaroa egingo dute. Azaroaren 2an hasiko dute, eta bi aste iraungo du –astelehene-tik barikura–. Ordutegia izango da: 18:30etik 20:00etara.

Parte hartu gura duenak urriaren 30a baino lehen eman beharko du izena erretiratuen lokalean. Ikastaroaren prezioa izango da: 10 euro bazkideentzat eta 12 euro gainerakoentzat.

Eskulan ikastaroa egingo dute emakume taldearen eskutik

Itur-Zuri emakumeen taldeak askotariko eskulan ikastaroa antolatu du. Koadroak margotu, josi, kakorraz-lanak egin... hori guztia egingo dute Reme Berasategi irakaslearen laguntzarekin. Ikastaroak ekainera arte iraungo du, eta astean bi egunetan izango da: eguaztenezko 19:00etatik 21:00etara eta barikuan 16:30etik 18:30era. Ikastaroa herritar guztiei zuzenduta dago, eta parte hartzeko beharrezkoa izango da 18 urtetik gorakoa izatea. Nork bere materiala eraman behar du. Ikastaroaren prezioa da: 10 euro hileko; kuota bakarrean ordaintzen da urte osoa.

Haurrak soinean zelan eta zergatik eraman azalduko dute

Haur eramaileen gaineko hitzaldia eskainiko du Tzaitel Aldasorok datorren egunean, urriaren 29an, Sastiña aretoan. Haurrak soinean nola eta zergatik eraman azalduko du Aldasorok, beste zenbait gauzaren artean. Haur eramaileen bitartez umea soinean eramateak izan ditzakeen onurak bai txikiarentzat eta baita gurasoarentzat ere zeintzuk diren azalduko du; hartu beharreko segurtasun neurriak zeintzuk izan behar diren ere argituko ditu; eta gaur egun merkatuan dauden haur eramaile motak zeintzuk diren azalduko du Aldasorok. Hitzaldia Sastiñan izango da, urriaren 29an, eguna, 17:00etan.

1965ean jaiotakoek kintada egingo dute azaroaren 7an

Aurten 50 urte bete dituztenek edo bete behar dituztenek kintada egingo dute urteurren berezia ospatzeko. 1965ean jaiotako kinto bazkaria izango da. Azaroaren 7an egingo dute, Aramaioko Dukiena jatetxean. Eguna ezin hobeto hasteko, poteoa egingo dute: 13:00etan elkartuko dira herriko plazan eta poteoa egingo dute herriko tabernetan. Ondoren, 14:30ean, Dukiena jatetxera joango dira bazkaltzera. Kintadara joan nahi duenak aurrez eman beharko du izena: azaroaren 4a izango da izena emateko azkeneko eguna. Anboto tabernan egin beharko da hori.

Liburutegiaren Egunaren atarian, opariak zozkatuko dituzte Elgetan

Umeendako, berriz, ipuin kontaketa saio bereziak iragarri ditu liburutegiak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zapatuan, urriaren 24an, Liburutegiaren Nazioarteko Eguna da, eta Elgetako liburutegiak martxan ditu hainbat ekimen. Astelehenean, esate baterako, opariak zozkatuko dituzte urrian zehar liburu mailegua egin duten erabiltzaileen artean. 18:00etan izango da zozketa. Gaur, bestalde, 3 urtetik gorako neska-mutikoendako ipuin kontalari saio berezia egingo dute. Liburutegiarekin eta liburuekin zerikusia duten ipuinak kontatuko dituzte, eta bi liburu zozkatuko dituzte parte-hartzaileen artean. Saioa 19:25ean hasiko da.



Erabiltzaileak, asteon, Elgetako liburutegian. | L.Z.

'Ipuinak biraka' tailerra

Hilaren 30ean ere ipuin saio berezia izango dute umeek: Alabazan taldeak *Ipuinak biraka* saioa egingo du. Dadoak izango dira protagonista, eta haiek kontatuko dituzte ipuinak.

Pista gehiago 'Ezetz igarri!' lehiaketan

Ezetz igarri! lehiaketa aurrera doa, eta hirugarren pista-sorta kalean da dagoeneko. Pista guztiak batu eta huts egitea ezinezkoa da! Erantzunak *on line* edo liburutegian eman.

KOMUNITATEA GOIENA
UDAL LIBURUTEGIA | ELGETA

Beatriz Rico aktorearen umorezko bakarrizketa gaur Espaloian

Bihar, hipnosi saioa egingo du Jorge Astyarok

L.Z. | ELGETA

Alargun gelditu da Beatriz Rico aktore ezagunak antzeztan duen Patricia Montes, baina ez dago oso triste. Antzeztan *Mejor viuda que mal casada* du izenburu eta umorezko bakarrizketa da. Protagonistak edertasuna, birjintasuna, amaginarreba... izango ditu hizpide 90 bat minutuko antzeztanean. Konplexurik gabeko emakumeendako eta mota guztietako gizonezkoendako ikuskizuna dela adierazi dute antzerki konpainiatik. 22:30ean hasiko da emanaldia, Espaloian.

Bihar, zapatua, hipnosi saioa izango dute kafe antzokian. Jorge Astyarok egingo du, 22:30ean (ikus 32. orria). Domekan Sara Escudero egitekoa zuen saioa, berriz, bertan behera gelditu da.

Hurrengo datozenak

Urriaren 31n, zapatua, Pez En



Beatriz Rico. | GUS GEJJO

Raya taldearen zigilupean datorren *Mr Kebab* antzezlana egingo du, Espaloian, Juan Callate aktoreak. Azaroaren 7an, berriz, Bergarako musika eskolak egingo dako *Mozkorra parregarri* opera komikoa ikusteko aukera izango da Elgetan. Sarrerak salgai daude aretoan bertan eta Bergarako ohiko lekuetan.

Urriaren 31n omenaldia Jon Sarasketa elgetarrari

L.Z. | ELGETA

Hondarribia Arraun Elkarteak kideak Elgetara gonbidatu dituzte eguna aukeratu du herritar talde batek Jon Sarasketa herrikideari omenaldia egiteko. Urtero moduan, udaletxean harrera egingo diete Hondarribikoei, eta jarraian etorriko da Jon Sarasketari eskainitako omenaldia.

Plazan egingo dute ekitaldia, 11:30 aldera, eta antolatzailerak aurreratu dute Sarasketarekin batera musika izango dela protagonista.

Ilundutakoan, Arimen Gaua

Egun berean, ilundutakoan, *Karlista galduaren altxorra* antzezlana eskainiko dute seigarren mailako neska-mutikoei.

Datorren astean erabakiko dituzte 2016ko tasak

Oraingo astean landu dute gaia arduradunek eta datorren eguneko osoko bilkuran aztertuko dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Ordenantza fiskalak, hau da, gatzagarrek 2016an ordaindu beharreko udal tasak zenbatekoak izango diren datorren astean

erabakiko du udalbatzak. Eneka Zankada alkateak adierazi duenez, urriaren 29an (eguna) egingo dute osoko bilkura eta orduantxe landuko dituzten puntuetako

bat izango da datorren urteko zergei dagokiena.

Gripearen kontrako txertoa

Bestalde, alkateak gogora ekarri du abian dagoela gripearen kontrako Osakidetzaren aurtengo kanpaina, eta Leintz Gatzagan ere badagoela txertoa hartzeko aukera.

Udaletxean bertan ematen dute, sarreran egokitutako mediku-erizain zerbitzua baliatuta. Oraingo astelehenean, adibidez,

herritar nahikotxo gerturatu da bertara txertoa hartzerako.

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina 65 urte edo gehiago duten helduei, gaixo kronikoei eta haurdunei zuzentzen die Osakidetzak.

San Milixan azoka

Bestelakoan artean, gaur, egubakoitz, bukatuko da San Milixan azokarako izena emateko epea, artisauei zuzendutakoa. Bada, Udalak jakinarazitakoaren ara-

bera, eguaztenera arte "nahiko eskaera" zituzten jasota.

Webgunea, berrituta

Bukatzeke, Udalaren webguneak (www.leintzgatzaga.eus) itxura berritua estreinatu du asteon. Oraindik egokitzapen batzuk eta xehetasun batzuk fintzea falta da; beraz, baliteke egunotan edo asteotan oraindik ere aldaketak egiten jardutea bertan. Edozein modutan, itxura berrituarekin dabil dagoeneko.

XI. PILOTA TXAPELKETA

Txapelketako lehen lau partiduak

GAUR, BARIKUA, 19:30EAN

Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga / Alberto Telleria-Angel Ibarluzea

Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre / Iban Retolaza-Diego Cantabrana

Etor Garate-Eneko Maguregi / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar

Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal / Oskar Sarasua-Andoni Elortza

Epailak: Ibon Untzetabarrenetxea eta Mikel Beretxinaga



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Elgetarrak Peru-aitz tontorrean

Kantsatzeke mendi elkarteak antolatuta, domekan lauzpabost orduko mendi ibilaldia egin zuten herriko dozena bat lagunek. Arantzazutik abiatu ziren, eta, Urbiara igo ostean, besteak beste, Peru-aitz eta Zurkurutz tontorrak igo zituzten. Inguruak udazkeneko koloreez gozatzeko aukera ederra eman zien.

OHARRAK

EH BILDUK BATZARRA

Batzar irekia gaur, 19:30ean, udaletxean. Gaia: Espainiako hauteskundeak eta hautagaiak. Iraupena: 30 minutu.

GABONETAKO LOTERIA

Elgetako EAJK salgai du Gabonetako loteria azaroaren 28ra arte. Arduradunak dira Maria Jesus Lete eta Begoña Ardantza.

ERRETIRATUAK GERNIKARA

Astelehenean, hilak 26, Gernikako azokara egingo dute irtee-

ra Xalbadorpe elkarteak. Taldea 09:00etan abiatuko da autobusean herriko plazatik.

GARBIGUNE IBILTARIA

Salbador kaleko plazan izango da garbigune ibiltaria, eguaztenean, hilak 28, 10:00etatik 21:00etara.

IKASTAROAK KZGUNEAN

Dinamizatzailea kultura etxeko KZgunean izango da eguaztenean, hilak 28, 16:00etatik 17:30era.

KIROLA

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketako oilarrak mokoka, eta gainera, derbian

- ▶ Urteak dira Arrasateko eta Oñatiko taldeek elkarren kontra ligan jokatzeko ez dutena
- ▶ Mailaz igo berri den Izarraitz Aloña Mendi lider dago eta Ford Mugarri Arrasate bigarren

XABIER URZELAI | ARRASATE

Euskadiko Txapelketako egutegia jakinarazi zutenean, gutxiak aurreikusiko zuten urriaren 24an jokatu beharreko arrasatearren eta oñatiarren arteko derbiak halako saltsa izango zutenik. Batetik, konturatu orduko, bi taldeak kategoriako oilar bilakatu direlako –oraingoz ez dute partidurik galdu– eta lidergoa jokoan egongo delako, eta bestetik, derbia izanda bi taldeetako ordezkariek –eta ez jokalariek bakarrik– oso motibatuta daudelako biharko hitzordura begira (Iturripe, 18:00).

Guztien artean motibazio berezia izango du, seguru, Andoni Bernalek. Azken urteak Arrasateko taldean egin ditu jokalaria oñatiarrak, urte onak izan dira maila nazionalen, eta lagun asko utzi ditu atzean. Eta bihar horietako asko izango ditu aurrean.



Igoera faseko partiduan, jokalaria oñatiar bat eraso jokaldian. | GOIENA

"Partidua berdindu eta kitto, denok pozik", adierazi zuen, brometan, eguazteneko entrenamendu saioan. Serio esan bazuen, bakarra izango da pentsaera horrekin, bai batekoak zein besteak garaipen amorruz kanxaratuko dira eta.

"Oñatikoek talde ona dute"

Arrasate aldean ez dute halako ezusterik hartu Oñatikoak horren aurrean ikusita. "Orain arte Gipuzkoako ligan baino Bizkaikoan zentratu naiz gehiago, eta, egia esan, talde oñatiarra ez nuen askorik ezagutzen. Baina, aurrekoan, partidu bat ikusten egon nintzen, eta talde ona iruditu zitzaidan", adierazi du Arrasateko entrenatzaile Patxi Gartziak. Eta taldeko kapitain Josu Herrero ere uste berekoa da: "Taldea gogorra dute, eta jokalaria handiak dituzte. Orain arte gu ginen ezagarririk horiek zituen taldea, baina denboraldi honetarako aldaketa handiak izan ditugu, eta orain azkarrago jokatzera derrigortuta gaude. Hala, jaurtiketak urruntik egin beharrean sei metroko lerroa iristen ahalegindu behar dugu".

Gartzia bat dator Herreroekin: "Akaso, guretako goiz da mailarik onena emateko. Bost jardunaldi baino ez ditugu jokatu, bideoz ikusi dut gure taldeak iaz zelan jokatzeko zuten, eta erabat aldatu dugu joko-sistema".

"Uste baino hobeto"

Oñati aldean, berriz, Aitor Aranburu entrenatzaileak aitortu du inork ez zuela espero horren ondo hasiko zirenik: "Lau partidutatik lau irabazi ditugu; oraingoz, ezin da gehiagorik eskatu". Liga hasiera honetan ez dute Arrasateko taldea askorik jarraitu, eta iazko erreferentziek ez dute askorako balio: "Taldea asko aldatu delako. Ikusi dugunagatik, azkar jokatzeko dute, eta gure jokatzeko modua



Pitxi Herrero memorialean, jokalaria arrasatear bat erasoan. | GOIENA

ere hori da, nahiz eta kanpotik jaurtitzeko ere badugun jende aproposa".

Emakumezkoek etxean

Bestalde, Euskadiko Txapelketan bosgarren dauden Aloña Mendi-

ko emakumezkoek hirugarren dagoen Ereintzaren kontra jokatuko dute zapatuan, etxean (17:30). Eta Gipuzkoako ligan, Bergarak Urnietan jokatuko du domekan (12:00), hain zuzen ere, kategoriako liderraren kontra.



Laboral Kutxa Baskonia
Herbalife Gran Canaria

partidurako 4 sarrera bikoitzen zozketa

Azaroaren 1ean Buesa Arenan jokatuko den partidurako (13.00)

PARTE HARTZEKO:

WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia]
688 69 00 07 zenbakira.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakingarritasun dizituz gure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki berraztertuko ditugu. Datu bakoitzaren helburu bakarra da indararen dagoen sustapen gestioa. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hurrengo zuzentzeko edo ezabatzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

JOSU HERRERO
ARRASATEKO KAPITAINA

"Oñatiko taldea Bernal baino gehiago da"

Zapatuko partidua berezia da?

Bai, berezia da. Tartean lagunak ditugulako eta bi taldeak saikalenaren aurrean gaudelako puntu kopuru berberekin.

Aurrekusten zenuten Oñatiko taldeak horren ondo hasiko zuenik liga?

Beno, askotan zailagoa izaten da kategoriaz igotzea, ondoren goiko kategorian lan ona egitea baino. Ondo dabilta, bai.

Hainbat hutsune dituzue aurten; tartean, aurrean izango duzuen Andoni Bernal.

Jokalaria garrantzitsuak galdu ditugu aurten, eta beste modu batean jokatzera behartzen gaitu horrek. Bernal aurrean izango dugu, baina Oñatiko taldea Bernal baino askoz ere gehiago da.



GOIENA

MIKEL AGIRRE
OÑATIKO KAPITAINA

"Irabazteko esperantzarekin goaz"

Zapatuko partidua berezia da?

Bai, zalantza barik. Lagun eta ezagunak ditugu bertan, eta gogo handia dugu euren kontra jokatzean.

Lehia gogorra egongo da. Partidu guztiak dabilta gogorrrak izaten. Akaso, harmailatik bestetan baino giro beroagoa iritsiko zaigu.

Aspaldi Iturripen jokatu barik, gainera.

Lagunartekoak eta halakoak bai, baina urteak dira ligako partidu bat Iturripen jokatzeko ez duguna.

Irabaztera, zalantza barik. Zalantza barik, eta horretarako esperantzekin goaz, gainera. Uste dut gauzak ondo egiten baditugu irabazteko aukerak izango ditugula.



GOIENA

FUTBOLA

Etzetik kanpora bilatu beharko dute garaipena ibarreko talde gehienek

Mondra izango da aste bukaera honetan etxean jokatu duen talde bakarra

JOSU BILBAO | DEBAGOIENA

Hirugarren Mailan, UDak lideraren aurka jokatu du igandean, 17:00etan. Aretxabaletako taldeak ez du garaipenik lortu denboraldi honetan –sei berdinketa eta lau porrot–, eta zaila izango du liderraren etxean hiru puntuak eskuratzea. Azkeneko jardunaldian Aurrera Ondarroaren kontra 1-0 galdu ondoren, sailkapeneko zultetik irteteko puntuak azkar bildu beharko ditu. Gaur, 18:00etan, taldeen aurkezpena eta argazki ofiziala egingo du UDak, Ibarren.

Ohorezko Erregional Mailan, Aloña Mendi laugarren sailkatua da, 11 punturekin, eta taulan aurrerapauso polita eman dezake Hernaniren aurka hiru puntuak lortzen baditu, bihar, 16:00etan. Hernani 12. sailkatua da, 7 punturekin, eta Aloña Mendik gogor lehiatu beharko du etzetik kanpora garaipena lortzeko. Oñatiko taldeak 1-3 irabazi zuen iragan aste bukaeran Martuteneren aurka, eta bolada onari eusteko helburuarekin joango da Hernanira.

Lehen Erregional Maila

Mondrak Soraluze liderra hartuko du bihar, Mojategin. Ber-



Mondra futbol taldea. | IMANOL SORIANO

garak, bestalde, Zumaiakoren kontra jokatu du etzetik kanpora, eta Antzuolak Ilintxaren kontra izango du norgehiagoka,

bihar, Bikuñan (Legazpi). Aretxabaletak Beasainen jokatu du, bihar ere, arratsaldeko laurutan.

Anton Losadari omenaldia Arrasaten

Mondra-Soraluze norgehiagokaren ostean, Arrasateko taldeko jokalariek omenaldia egingo diote orain dela aste pare bat zendu zen Anton Losadari. Mondrako harrobiko taldeetan entrenatzaile ibili zen Losada hainbat urtean, eta talde nagusian delegatu aritu zen, Igor Gordobil entrenatzailearekin batera, Atxabalpe zaharrea. Omenaldia jokalariek omenaldia egingo diote, 18:30ean, Soraluzearen aurkako partidua bukatu bezain laster.

ARETO FUTBOLA

Aretxabaletak eta Eskoriatzak etzetik kanpo jokatu dute

J.B. | DEBAGOIENA

Areto futboleko Euskal Ligako 6. jardunaldian, Aretxabaletak Tudanca Miranda Bayas eta Eskoriatzak Oiartzun izango dituzte aurkari. Debagoieneko bi taldeak taulako beheko postuetan daude, eta etzetik kanpo aurrerapauso garrantzitsuak emateko aukera izango dute.

Aretxabaletak 4-4 berdindu zuen aurreko aste bukaeran, Gora Bilbao taldearen kontra, eta denboraldiko aurreneko garaipena eskuratzeko aukera izango du, Tudanca Miranda Bayas talde gogorraren aurka.

Eskoriatza 11. sailkatua da, 4 punturekin, eta neurketa gogo-

rra izango du, Oiartzunen kontra. Oiartzunek jokatu dituen lau norgehiagokak irabazi ditu, eta bigarren sailkatua da, liderarekin berdinduta.

Mondrate

Gipuzkoako Ligan, 4. jardunaldia jokatu du Mondratek, Pescados Ferreres Anaiak taldearen aurka. Arrasateko taldeak 4-3 galdu zuen Inter Kafetegia-Eder taldearen kontra, eta garaipenaren bidera itzultzeko aukera izango du. Gainera, gaur, 17:45ean, Mondratek kamiseta berria aurkeztuko du babesle berriarekin batera.

TXIRRINDULARITZA

Bizikletak txikienei gerturatzeko festa antolatu du Lokatza taldeak biharko

J.B. | BERGARA

Bergarako Bizikleta Festa ospatuko dute bihar, Seminarioko patioan, 16:30ean. Lokatza taldeak ibilbide motza prestatu du, adin askotariko herritarrek parte har dezaten. Horregatik, ibilbideak adinkatu egingo dituzte, hainbat txandatan.

Bizikleta festaren oinarria izango da, eta helburu nagusia,

bizikleta txikienei hurbiltzea. Infantilen eta kadeteen taldea osatzeko aukera bertan izango dute. Gainera, Lokatzak nesken taldea osatu nahi du, eta herritarrek festan parte hartzera animatzen ditu.

Festan, musika, globoak, sariak eta beste sorpresaren bat ere egongo da eta izen-ematea bertan izango da.

Debagoieneko GREMIOAK

AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA


ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



MENDIA

Iñurrategi: "Bide zaila izan da, eta oso interesgarria"

Chamlang (7.319 m) tontorra igo dute estilo alpinoan Igoera zaila izan da, eta tentsio handiko jaitsiera

XABIER URZELAI | ARRASATE

Alberto Iñurrategik, Mikel Zabaltzak eta Juan Vallejok osatutako Wopeak espedizioak domekan lortu zuen Chamlang (7.319 m) mendiaren gailurrera iristea. Eta hiruko horrek aspaldi egin ohi duen moduan, estilo alpinoan: soka finkorik barik, laguntza barik eta oxigeno barik.

Gutxiatik ez ziren helburua lortu barik itzuli; Juanjo Otazu kameralariarekin tontoretik walkiekin izandako elkarrizketa motzak erakusten du hori: "Juanjo, lortu dugu tontorrera iristea, baina azken 100 metroetan txarto pasatu dugu. Hotz galanta egiten du, argazki bat atera, eta bagoaz beherantz". Izan ere, azken kanpalekua batu eta beherantz jaisteko erabakia hartuta zeukaten eguraldia baretu egin zen, eta gora egiteko erabakia hartu: "Zorte handia izan dugu. Gailurrerantz jotzea oso arriskutsua zirudien. Denda jasota geneukan, baina bat-batean haizea moteldu eta saiatzera erabaki genuen".

Jaisten ere zailtasun handiak izan zituzten, aurreikusi baino mendi ertz zorrotzagoa du Chamlangen mendebaldeak, eta tentsio handiarekin egin zuten beherantz; haize zakarraren eraginez sufritu egin zuten. Kanpamentu nagusian, baina, balorazioa oso positiboa zen. "Oso bide interesgarria



Iñurrategi eta Zabaltza, tontorrean. | WOPEAK

izan da, ederra, eta zailtasun handia duena", azpimarratu du bertatik Iñurrategik. Sateliteekin izandako arazoengatik, zailtasu-

nak izan dituzte handik irudiak bidaltzeko, baina ikusgarriak izango dira, seguru.

Japoniarrek zabaldua

Wopeak-eko hirukoak 1986an japoniar espedizio batek zabaldua izan da; hau da, Chamlang mendebaldetik igo dute. Duela 30 urteko espedizioa, baina, 17 lagunek osatu zuten, oso espedizio astuna izan zen; besteak beste, 4.000 metro soka erabili zuten tontorrera igotzeko. Hiruko euskaldunak, berriz, material gutxi izan du eskura, hiruren motxiletan sartzen zena.

ESANAK

"Jaisteko prest genuen dena, baina bat-batean haizea moteldu eta gora egin genuen"

ALBERTO IÑURRATEGI | MENDIZALEA

MENDIKO BIZIKLETA

Mondranbike martxaren erreleboa hartuko dute domekan Palmerakuek

X.U. | BERGARA

Bergarako Palmerakuak taldeko lagunak domekan antolatuko duten martxak hartuko dio erreleboa joan den astean Arrasaten egin zuten Mondranbike martxari, eta hitzordu horrekin amaitu da ibarrek mendiko bizikleta martxen denboraldia.

Hala, Arrasatekoak izandako arraskata-330 ziklista izan ziren-errepikatze osoari guztiak izango ditu Bergarakoak: mimo handiz prestatutako ibilbidea, paraje ederrak, eta tramu tekniko eta bidezidor jostagarriak, elkarri lotuta.

'Kedada'-tik martxa formalera
Domekakoa (09:00, Agorrosinen) Bergarakoen hirugarren martxa izango da. Aurreko biek *kedada* formatua izan zuten, eta, arrakasta ikusita, oraingoa formalago antolatuko dute: "Gorla, Karakate eta Elosumendiko paisaia ederrak zeharkatuko ditu ibilbideak, eta askotariko tramuak izango

ditu: aldapa gogorak, pedalak astindu ahal izateko zati azkarrak, bidezidor politak... Luze egiten zaion norbait bada, ibilbidea mozteko aukera izango du birritan; horrela, ibilbide luzeak 38 kilometro eta goranzko 1.550 metro pilotuko ditu eta motzak, 30 kilometro eta 1.200 metroko desnibela", adierazi dute antolaketako

lagunek. Ohi bezala, ibilbidean zehar antolatzaileek anoa-postuak jarriko dituzte indarrak berreskuratzeko, eta, horrekin batera, amaieran bizikletak garbitzeko mangerak egongo dira, eta luntxa.

Aspanogirekin elkarlanean

Gainera, Aspanogi elkarteak Zarautzen antolatzen duen Mobibike egunarekin bat egiteko asmoarekin, martxan parte hartuko duen *biker* bakoitzeko euro bat emango zaio haurren minbiziaren aurka borrokatzen duen erakunde horri.



Antolatzaileak, ibilbidea ikuskatzen. | PALMERAKUAK



Iazko edizioko irteeraren unea. | IMANOL SORIANO

ATLETISMOA

Gaueko Tafyd krosaren bosgarren aldia gaur

X.U. | ARRASATE

Gaueko Tafyd krosak bost urte beteko ditu gaur (20:00etan, Ferixalekuan, Arrasaten), eta bosgarren edizio honetarako, aurrez, behintzat, inoiz baino jende gehiago dabil animatzen.

Hala, izen-ematean 100 lagun bueltan ibiltzen badira, dagoeneko erdiak eman dute izena Internetez, Arizmendin bertan eta Loramendi Kirolak dendan. "Ikusiko dugu azken orduan zenbat lagun animatzen diren, baina, aurrez ikusita, itxura polita hartzen dabil lasterketa", adierazi du David Berzibar antolatzaileak.

Kros azkarra da

Distantzian, Arrasateko lasterketa hori ez da beste batzuk bezain luzea (5,7 kilometro), baina horrek ez dio zorrotasunik kentzen, aurrean ibili gura duenak erritmo bizian hasi behar du eta proba. Noski, atzerago ere berdin-berdin goza daiteke lasterketaz, adibidez, ikusleen partetik animo gehien jasotzen den lasterketa da eta.

Antolatzaileek, gainera, lasterketa osteko zozketa azpimarratu dute: "Herriko komertzioei esker egiten duguna. Lasterkari ia guztiak eramaten dute opariren bat etxera".



Lur orotako ibilgailua, tarte tekniko bat gainditzen. | GOIENA

MOTORRA

Eskoriatzako 4x4 ibilgailuen trial erakustaldia bihar

X.U. | ESKORIATZA

Eskomotor taldeko lagunak antolatuta, 4x4 ibilgailuen trial erakustaldia egingo dute bihar, zapatua, 15:00etan hasita. Erakustaldia Apotzagako lurretan izango da, eta antolatzaile lanean dabilen Xabi Oñederrak azaldu duenez, denon gusturako zirkuitua jarriko dute: "Badira zona teknikoak baloratzen dituzten ikusleak, ibilgailu bat zulo batetik zelan irteten den ikusteaz gozatzen dutenak. Eta badira odol gosez joaten diren ikusleak ere [Barre]; hau da, putzu batean auto bat ez aurrera eta ez atzera dabilela ikusteaz

gozatzen dutenak. Bada, guztiak gozatzeko moduko zirkuitua jarriko dugu".

Sei edo zazpi lagun bailaran

Oñederrak aurreikusten du zapatuan 20-25 ibilgailu inguruk -prototipoak eta kaleko ibilgailuak- hartuko dutela parte erakustaldian: "Debagoienean sei lagun inguru egongo gara halako ibilgailuekin. Zaletasuna egon bada, baina gutxi animatzen dira halako auto bat prestatzera. Horrekin batera, Atxondotik, Elorriotik eta, noski, Nafarroatik etorriko dira. Izan ere, Nafarroan zaletasun handia dago".

Arrasate Dragoi taldeak lan polita egin du Espainiako Kopan

JOSU BILBAO | ARRASATE
Zaragozako Siglo XXI kiroldegian jokatu da Espainiako Gimnasia Aerobikoko Kopa, eta Arrasateko Dragoi taldekoek estatuko gimnasta onenekin batera partu hartu ahal izan zuten, Kanpazar Harrobiaren laguntzarekin. Denboraldiko txapelketak hasi besterik ez da egin, eta Arrasateko taldeak maila polita emateko gai dela erakutsi du.

Probei dagokienez, hirugarren mailako kategorian, bakar-kako lanetan, Araitz Altubek bosgarren postua eta Mirentxu Amozarrainek zazpigarrena lortu zuten. Gainera, aerodance kategorian, taldekako proban,

bosgarren gelditu ziren Arrasate Dragoi taldekoak. Aerodance modalitateko taldea Maialen Gallardok, Maialen Diazek, Maite Olidenek, Kimi Lopez de Aretxagak eta Leire Ugartek osatzen dute.

Maila handia

Lehiaketan, estatu osoko gimnastak batu ziren -Soria, Valentzia, Bartzelona, Gasteiz...-, eta Sara Moreno eta Vicente Lli Europako txapeldunak ere bertan izan ziren, besteak beste. BASE eta FIG kategorietako gimnastek bakar-kako, binaka, hiruak, taldeko, aerodance eta aerostep modalitateetan parte hartu zuten.



Korrikasten egitasmoa, jarri dute abian Arrasaten

Arrasateko Intersport Loramendi denda Korrikasten egitasmoa martxan jarri du. Ekimen berri horren helburuak dira korrika egiten hasi nahi dutenei laguntza eta bultzada ematea eta korrika egiten dutenei jarraipena ematea eta hobetzen laguntzea. Egitasmoaren aurkezpenean, Ritxar Fernandez atletak doako ikastaroa eman zuen, eta korrikalariak haren aholkuak jaso ahal izan zituzten.



Aerodance modalitatean parte hartu zuen taldea. | ARRASATE DRAGOI TALDEA

Urriak 24 eta 25 | Europa Biltzar Jauregia | Vitoria-Gasteiz

EXPO NOVIAS Araba



- | | | |
|--|--|---|
| <p>Arrizabalaga Novias
Be Beauty Peluqueros
Bianco DJ's
Borgia Novias
Caype
Delfin Promociones y Marketing
Eguzkiboda - Eguzkilore
Ekia Estudios Fotográficos
Eventokit</p> | <p>Floristería Arantza
Goya Floristas
Hotel Restaurante Araba
Hotel Restaurante Arcos de Quejana
Hotel Silken Ciudad de Vitoria
La Casa de Las Fiestas
Madame Kiwi
Prado Café
Restaurante Olárizu</p> | <p>Rios Moda
Trazos Ceremonia
Una Vez en la Vida
Verona Estilistas
Viajes Eroski
Viajes Vitours-Kuoni
Villa-Lucia
Vivanco
www.musicaparamiboda.com</p> |
|--|--|---|



Zure gonbidapena eskatu exponoviasaraba.com-en

Sarrera leihatilan 1€ Leku: Europa Biltzar Jauregia Orduetgia: Larunbatean 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era. Igandean 10:30etik 14:30era.

Antolatzailea: **gasteiz on** Babesleak: **Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala** Laguntzailea: **Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava**

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Balmaseda-UDA
Domeka, 17:00. Baluga.

OHOREZKO ERREGIONALA
Hernani-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Zubipe.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Zumaiako-Bergara
Zapatua, 16:30. Aita Marin.
Ilixtxa-Antzuola
Zapatua, 16:30. Bikuña.
Mondra-Soraluze
Zapatua, 16:30. Mojategi.
Beasain-Aretxabaleta
Zapatua, 16:00. Iqartza.

LEHEN ERREGIONALA
Armagan-Aloña Mendi
Zapatua, 15:30. Unbe.
Mondra-Eibartarrak
Zapatua, 12:30. Mojategi.
Arizmendi-Soraluze
Zapatua, 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK
Aretxabaleta-Urola
Domekan, 16:30. Ibarra.
Euskalduna-Mondra
Domeka, 12:00. Ubitarte.
Aloña Mendi-Zumaiako
Domeka, 16:30. Azkoagain.
Bergara-Ilixtxa
Zapatua, 16:00. Agorrosin.

GAZTEAK
Antzuola-Arizmendi
Zapatua, 16:30. Estalan.
Mondra-Bergara
Domeka, 12:45. Mojategi.
Urki-Aloña Mend
Zapatua, 17:30. Unbe.

EMAKUMEZKOAK ERREGIO.
Ilixtxa-Mondra
Zapatua, 18:30. Bikuña.
Zumaiako-Arizmendi
Zapatua, 15:30. Aita Mari.

EMAKUMEZKO GAZTEAK
Bergara-Tolosa
Zapatua, 18:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Tudanca Bayas-Aretxabaleta
Zapatua, 18:00. Bayas pol.
Oartzun-Eskoriatza
Zapatua, 17:30. Elorsoro.

GIPUZKOAKO LIGA
Mondrate-Pescados Ferreres
Zapatua, 17:15. Musakola.

SASKIBALOA

EBA
La Gallofa-Mondragon Unib.
Zapatua, 20:30. Santander.

BIGARREN MAILA
Portugalete-Natra Oñati
Domeka, 12:30. Pando Asia.

GIPUZKOAKO SENIORRAK
MU-Bosteko
Zapatua, 18:00. Musakola.
Soraluze-Take Orbela Taberna
Zapatua, 16:30. Labegaraletta.

SENIOR 3. MAILA
Añorga-Aloña Mendi
Zapatua, 18:00. Benta Berri.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-Cafes Aitona
Gaur, 20:15. Manuel Muñoz pol.

GAZTEAK, ERRENDIMENDU
Goierri/Urola-Soraluze BKE
Zapatua, 12:15. Urretxu.
Caldereria Pako-Aloña Mendi
Zapatua, 09:00. Azpeitia.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAP. GIZON.
Ford Mugarri-Izarraitz Aloña
Zapatua, 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.
Aloña Mendi-Ereitza
Zapatua, 17:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAP. KETA
Urnieta Balerdi-Bergara
Domeka, 12:00. Udal kiroldegia.

GAZTE MAILA GIZONEZKOAK
Bergara-Tolosa
Zapatua, 12:00. Labegaraletta.
Egia Baztarre-Arrasate
Domeka, 12:15. Egiako.

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK
Eibar-Aloña Mendi
Domeka, 10:00. Ipurua.

MENDIKO BIZIKLETA

PALMERAKUEK III MARTXA
Domeka, 09:00. Agorrosin.

TXIRRINDULARITZA

BERGARAKO BIZIKLETA
FESTA
Zapatua, 16:30. Seminarioko patioan.

AUTOMOBILISMOA

4X4 TRIALA
Zapatua, 15:00. Apotzaga.

ATLETISMOA

GAUEKO TAFYD KROSA
Gaur, 20:00. Arrasaten.

PILOTA

EZKER HORMA FEDERATUA
Oñatin, gaur, 19:30ean:
Aloña Mendi-Gazteleku (Gazteak)
Bergaran, gaur, 19:15ean:
Bergara-Intxurre (Seniorrak)
Arrasaten, gaur, 20:15ean:
Arrasate-Gure Txeru (gazteak).

KULTURA



Marina operaren une bat. | OZENKI ELKARTEA

'Marina': Erromantizismo garaian Arrieta nafarrak idatzitako opera

- ▶ Ozenki elkarteak ekarriko du Amaia antzokira urriaren 31n, zapatuan
- ▶ Marije Ugalde eta Valen Moñux bergararrak ere taularen gainean

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Kataluniako Lloret de Mar herrian kokatzen da Amaia antzokian urriaren 31n, zapatua, 20:30ean erakutsiko duten Emilio Arrieta (Gares, 1923-Madril, 1884) autorearen *Marina* opera. "Amariara ekarriko dugun zazpigarrena da. Obra tradizionalak eskaini izan ditugu orain artean, autore famatuek idatzitakoak eta areto askotan erakutsi izan dituztenak. Oraingoa ezezagunagoa da, baina, arlo musikarari dagokionez, gure ustez, aurrez ekarri ditugun beste maila altua duena. Euskal autore baten aldeko apustua egin dugu. Emilio Arrieta aukeratu dugu, lan esanguratsuak dituelako eta oso gustuko dugulako ere bai", dio Ozenki elkarteko Manu Gallardok.

Arrasatera ekarriko duten operaz gainera, askotariko estiloetako lanak egin zituen Arrietak. Gallardoren esanetan, bitxia bada ere, hasiera baten, zarzuela izateko idatzi zuen Arrietak *Marina*. Zarzuela moduan ez zuen arrakastarik izan, eta, ondoren, beste ekinaldi edo akto bat gehitu zion; hainbat musika aldaketa egin zizkion gero, eta opera bilakatu zuen horrela. Hiru ekinalditan dago banatuta. Hainbat alditan ikusi dute Ozenkikoek, eta oso gustuko dutela diote. "Aria ezagun asko ditu. Zarzuelak ez bezala, sekulako harrera izan zuen opera formatuan".

Musikari profesionalak

Helena Orkoien Tolosako sopranoa (Marina) eta Luis Alberto Giner tenore madrildarra (Jorge) dira protagonista nagusiak. Ope-

ra gehienetan moduan, amodiozko istorioa du oinarri. Heldua da orain Marina eta maiteminduta dago umezurtz geratu zenean bere tutore kargua hartu zuen

Jorgerekin. Barku bateko kapitain ospetsua da Jorge; hark ere ez dio esan aita batek moduan bakarrik ez, maitale moduan ere maite duela Marina.

Opera emanaldi gehiago bailaran

Abadiñoko De Norte A Sur taldeak *Debla* opera flamenkoa eskainiko du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

Ijito bikote baten istorioa kontatzen duen opera da. *Debla* eta Juan ezkontzekotan daude. Ezkontza egunean Manuel agertuko da. Juanen lagun-mina da eta *Deblak* gustuko du. Borroka handia sortuko du egoerak. Hori guztiori girotzeko dantzak izango dira nagusi. Andaluziako folkloreak errepasoa egingo dute dantzen bidez: Sarasateren *Zapateado* eta Emilio Cebrianen *Una noche en Granada* piezak, besteak beste. Dantza bakoitzak maitaleen istorioaren pasarteak irudikatuko ditu: sevillanak, fandangoak eta alegriak.

Askok *Carmen* operarekin parekatzen dute, antzerako gaia erabiltzen dutelako, baina egileak Andaluziara egindako bidaia baten ezagutu zuen



Debla opera flamenkoaren une bat. | DE NORTE A SUR

familia bat hartu du hizpide: Gitanillo de Velez familia.

Ikuskizunerako sarrerak salgai daude 14 eurotan Kutxabanken. Emanaldian jasotako dirua gaixotasun mitokondrialen ikerketa bultzatzen laguntzeko erabiliko dute.

'Mozkorra parregarri'

Bestalde, *Mozkorra parregarri* opera komikoa Elgetako Espaloian antzeztuko dute azaroaren 7an, 19:00etan. Sarrerak salgai daude Lazkano zapata-dendan, Espaloian, Pikuperen bulegoan eta www.pikupe.com atarian.

ESANAK

"Euskal autore baten aldeko apustua egin dugu"

MANU GALLARDO | OZENKI

"Herrietan zegoen hutsunea bete dute Ozenkikoek"

MARIJE UGALDE | ABESLARIA

"Errespetua diot profesionalekin kantatzeari"

VALEN MOÑUX | ABESLARIA

Orkoienekin eta Ginerrekin batera, bakarlarri nagusiak hauek dira: Andres del Pino baritonoa (Roque) eta Jesus Lumbreras baxua (Pascual). Svitlana Biryukkek zuzentzen duen Donostiako Sasibill abesbatza ere taularen gainean izango da. Horiez gainera, Arkaitz Mendozak zuzendutako Donostiako orkestra lirikoak ere hartzen du parte.

Debagoiendarrak ere kantuan

Ozenkikoek abeslari profesionalak ekartzen dituzten arren, bertako abeslari ere egiten diete lekua. Bergarako Marije Ugalderi proposatu zioten Teresa antzezteko. "Paper motza da. Marinaren laguna da. Emanaldiaren hasieran apur bat kantatzen dut. Oso gustura nago egindakoarekin. Niretako paper aproposa da. Erraza da, motza delako; izan ere, nire musika ibilbidea barroko estilora bideratuta dut, eta opera nire ibilbidetik pixka bat ateratzen da", esan du Bergarakoak.

Ugaldek ez ditu taldekideak ezagutzen. Muntaiia profesionala da eta nork bere aldetik ikasten du; estreinaldiaren asteen bakarrik entseatzeko dute elkarrekin. Gehienetan, gainera, bakarlariek, beste konpainia batekin bada ere, paper bera antzezten dute. "Papeira ikasita dakarte; hemengoek, berriz, ikasi egin behar dugu".

Amariakoa egin aurretik, operaren aurkezpena egiteko ohitura dute Ozenkikoek, eta horrela egin zuten eguaztenean Kulturaren. Ibon Robles adituak obraren eta autorearen gaineko azalpenak eman ondoren, *Marina*-ren aria bi eta garai bereko -Erromantizismoa- beste bi operatakoak ere abestu zituzten: Donizettiren *L'elisir d'amore* eta Belliniren *La sonnambula*. Marije Ugaldek eta Karlos Etxaniz herrikideek abestu zuten Isabella Blezien, Arrasate Musikaleko irakaslearen, piano doinuekin lagunduta. "Hori bai izan da niretako erronka. Lana eskatu dit".

Rock doinu lasaiak, musika aurrekari gogorak dituzten musikarien eskutik

Oñatiko Lenao taldeak sarean jarri du disko berria, debalde

A. A. | OÑATI

Iker Martinez de Zuazo (Lutzen, Potemkin, Amonal...), Egoitz Olalde (Sharon Stoner, Sor-kun...), Joxeba Aranburu (Bitz...) eta Ander Etxaniz (Gas...) musikariek osatzen dute orain dela hiru urte sortutako taldea. Konposatzen eta soinu propioa lortzeko helburuarekin lan handia egin ondoren, uztailean Andoaingo Garate estudioan grabatu zuten taldearen izen bera duen hamaika kanturekin osatutako bilduma. "10 egun egin genituen Garaten. Ezagutzen genuen aurrez estudioa eta baita Kaki Arkarazo teknikaria ere. Gustura egin genuen lan", dio Martinez de Zuazok.

Garai bateko rock soinu naturalaren, gordinaren, bila joan dira, pop doinuei ere lekua egin da. Besteak beste, honako musikari hauen eragina izan dutela diote Lenaokoe: The Band, Neil Young, Wilco...

Sarean doan eskuragarri
Taldearen izen bereko diskoa <http://lenao.bandcamp.com> helbidean dago eskuragarri, inolako kosturik barik. Edizio



Lenao taldeko kideak. | MIKEL AGIRRE



fisiko mugatua aterako dute Gabonetan. "300 kopia inguru egiteko asmoa dugu. Gure kabuz egingo dugu guztia eta herriko taberna eta dendetan egongo da salgai. Interneteko dendaren baten ere saiatuko gara jartzen; eta, noski, gure helbidera -*info.lenao@gmail.com*- idatzita ere egin daiteke eskaera. Ander Etxaniz taldekidearen lanetan oinarritutako liburuxka izango du. Herriko jaietan egin genuen aurkezpen kontzertua, baina Olalde aita izateko dagoela-eta geldik gaude, oraingoz".

Anger taldeak Suitzan eta Italian joko du asteburuan

A. A. | ARRASATE

Euskal Herria non cammina sola! ekimenaren baitan, hauek izango dira bi kontzertuak: Bergamon (Italia) gaur eta Luganon (Suitza) bihar. "Markinako Oliba Gorriak taldeari Suitzan kontzertu bat jotzeko proposamena heldu zitzaion Euskal Herrian bizi den lagun suitzar baten bitartez. Euskal Herriko bi talde gonbidatu nahi zituzten, eta, Markinakoaren aspaldiko lagunak

garenez, eurekin joateko proposatu ziguten", esan du Arkaitz Biaiñek.

Sute perfektua aurkezteko egindako zuzeneko antzerako errepertorioa prestatu dute. "Disko berriko eta aurreko lanetako beste zenbait kantu batuko ditugu. Zalantzarik gabe, pasioz eta ilusio handiz arituko gara; ez dugu sekula horren urrun jo, eta jaialdi polita izango da, gainera".

Euskal Herriarekin elkartasuna
Suitzako Ticino kantonamenduko Collettivo Scintilla delako eragile sozial eta politikoak antolatzen du ekimena. "Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoa eta gatazkaren ondorioak kontuan hartuta, elkartasun egun bat antolatu dute Luganon, eta Bergamokoa ere ekimen beraren baitan kokatzen dela gaineratu du Anger taldeko abeslariak.

Ugalde eta haren senar Valen Moñux Ozenkik antolatutako opera guztiak ikustera joan dira. "Bergaran *Mozkorra parregarri* opera antzeztu genuenean ezagutu genuen elkar. Marije gonbidatu zutenean, operako abesbatzan parte hartzeko eskatzeko aprobetxatu nuen nik, eta harritura gelditu nintzen niri ere paper bat eskaini zidatenean. Alberto, barku kapitaina, Marinaren aita zenaren laguna naiz. Musikalki, baritonoaren tesitura du. Birritan agertzen naiz, lehenengo eta bigarren ekitaldian. Oso paper motza da, hiru bat minutukoa edo. Hirugarren ekitaldian, berriz, abesbatzan nago", esan du Moñuxek.

Euskarazko libretoa

Berrikuntza eta bitxikeria gehiago ere badiu datorren zapatuko emanaldiak: italieraz beharrean, gazteleraz abesteko dute; eta azpitituluak, gazteleraz gainera, euskaraz ere izango dira. "Hasieratik izan dugun erronketako bat izan da hori, baina, beste arlo batzuetan gertatzen den moduan, gogo faltagatik baino gehiago, diru kontuengatik atzeratu egin behar izan dugu. Ahal izan dugun

momentuan, oraingoan, bada, libretoa euskaratu dugu. Aurreantzean ere, horrela izango da. Arrasateko Belaxe enpresari esker eman gura dizkiogu egindako ahaleginagatik; Xabier Aranburu *Artzai*-k egin du lan hori".

Oraindik ere badaude sarrerak
Irailean hasi ziren sarrerak saltzen, eta, Manu Gallardoren esanetan, oso eritimo onean doaz: "Dagoeneko sarreraren bi herenak salduta daude; oraindik, baina, interesa duenak badauka aukera sarrerak 30 eurotan lortzeko". Ohiko bideak erabil daitezke: *Arrasate.eus*, Arrasateko Udalaren webgunean, Kutxabanken bitartez, Amaia antzokiko leihailan eta *ozenkielkarta@hotmail.es* helbidera mezua bidalita.

Bestalde, Goiena Klubeko eta Arrasate Irratiko datorren astezko zozketetan parte hartuta ere eskura daitezke. Arrasate Irratiko zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora, eguna da azkeneko eguna; eta Goiena Klubeko kideek, berriz, bidali *whatsapp*-a 688 69 00 07 zenbakira: KLUBA Marina [bazkidearen zenbakia] testuarekin.



Marije Ugalde, Manu Gallardo eta Isabella Blezien. | JOKIN BEREZIARTUA

AITOR ARREGI ETA ASIER ALTUNA BERBETAN

GOIENA TELEBISTA | 'KULTURRIZKETA' SAIOAREN DENBORALDI BERRIA
EGUAZTENA, URRIAK 28 | 22:00



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**



Su garaian DVDaren grabazioko irudia. | GONTZAL GARATE

Governors taldearen kontzertua gaur gauean Eskoriatzan

'Su garaian' lanaren aurkezpen biraren baitan eskainiko duten azkenengoetako kontzertua da

MAITE TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Gaur, egubakoitza, Governors arrasatearrak Eskoriatzako Zaldibar aretoan izango dira. Zuzeneko CDa eta DVDa biltzen dituen *Su garaian* izeneko azken proiektuaren aurkezpen biraren baitan, Debagoienean eskainiko duten azken emanaldia izango da gaurkoa. Sarrerak leihailan bertan eskuratu ahal izango dira, bost eurotan.

Suaren partez, argia
Zuzeneko ikusgarriak eskaintzeagatik ezaguna da Arrasateko taldea, eta su ikuskizuna sartzan dute, normalean, kontzertuetan. Oraingoan, baina, ez dute horrelakorik egingo, segurtasun arrazoiak direla eta; ondorioz, suaren ordezkari jokoetan oinarritutako ikuskizuna prestatu dute, Juan *Sangre* abeslariak azaldu duenez.

Hark nabarmendu duenez, etxetik gertu jotzeak beti dakar "erantzukizun handiagoa eta

urduritasun handiagoa", baina gustura aritzen dira.

Bira amalera
Gaurkoaren ostean, taldeak Katalunia aldera bidaiatuko du, eta bertan bi kontzertu eskainiko ditu. Ondoren, birako azken kontzertua eskainiko dute, azaroaren 21ean, Durangoko Plateruenan. Sorpresaz beteriko kontzertu berezia izango da, Juan *Sangre*-k azaldu duenez, eta Governors proiektuan modu batean edo bestean parte hartu duen jende ia guztia batuko du.

Bira "oso ondo" doala azpimarratu du abeslariak. Hura bukatzean, atsedenaldirako tartea hartuko dute taldekideek, eta denbora batez ez dute kontzerturik emango. Haien hurrengo lana "lasai eta denboraz" prestatzeko asmoa daukate, abeslariaren esanetan. Lan berri hori 2016. urtearen bukaera alderako kaleratzea aurreikusten dute.

Durangoko Azokaren 50. edizioa marka berriarekin dator, siglekin osatuta: 'DA!'

Eguaztenean egin zuten aurtengo edizioaren aurkezpena Landako Gunean

M.T. | ESKORIATZA

Liburuen eta diskoen aurtengo Durangoko Azoka aurkeztu zuten eguaztenean herri bereko Landako Gunean; azokaren gunerik garrantzitsuenan, alegia.

Egitasmoaren 50. edizioa izango da abenduaren 4tik 8ra bitartean iraungo duena, eta urteurren berezi horretarako ildo eta erronka nagusiak zeintzuk diren azaldu dute. Aurtengoa, ohikoa dena baino egun bat gehiago izango du Durangoko Azokak.

Bertan izan ziren, besteak beste, Nerea Mujika –Durangoko Azokako zuzendaria– eta Cristina Uriarte –Kultura sailburua–. Goienaren izenean Oihane Agirre izan zen.

Kartela

Jose Luis Zumetak egindako kartela ere aurkeztu zuten eguaztenean. Margolariaren esanetan, "ilusio handiz" jaso zuen eskaria, "azoka oso garrantzitsua baita euskal kulturarentzat".

Kartelean ez die erreferentzia zuzenik egin liburu eta diskoek; zeharka bai, ordea: "Lan irekia da, bakoitzak bere erantzuna eman beharko dio".



Azokaren aurkezpenean izandako kideak. | MAIALEN ODRIOZOLA

Argizaiola saria Gerediagari

Horretaz gain, Argizaiola saria Gerediaga elkarteari emango diotela aurreratu dute; Durangoko Azokaren sortzaileei, alegia.

Sariketa ekitaldia abenduaren 5ean izango da San Agustin kulturegunean.

Marka irudi berria eta liburua

Mendurrenako beste nobedade bat azokak hemendik aurrera

izango duen marka irudia da: *DA!* Durangoko Azokaren siglekin osatuta dago, eta "laburra, sonora eta ikusgarria" izateko asmoa du. Aurrerantzean irudi hori erabiliko du Azokak.

Gainera, azken mende erdi honetan izandako ibilbidea liburu batean bilduko dute Joseba Sarrionandiak eta Jesus Maria Arruabarrenak. Azokako eguntan kaleratuko dute lan hori.

Hipnosi ikuskizuna bihar Elgetako Espaloia antzokian

M.T. | ELGETA

Jorge Astyaro hipnotizatzaile mexikarrak *Alucina* izeneko ikuskizuna eskainiko du bihar, zapatua, 22:30ean, Espaloian.

Ikusleen parte-hartzea oinarri du Astyaren ikuskizun berezi horrek. Espaloian biltzen direnak izango dira, beraz, protagonista nagusiak.

Munduko mentalistarik ospeetsuen artean dago Astyaro,

eta hipnosian aditua da. Bere dohainei esker, parte hartzera animatzen diren boluntarioak trantze sakon batean murgiltzea lortzen du; modu horretan, hipnotizatutako pertsona horiek imajinatzen duten hori ikusi eta sentitu egin dezakete.

Laburbilduz, "jendearen ametsak egia bihurtzeko modu bat" da Elgetan ikusgai izango den hipnosi ikuskizuna.

Jorge Astyaren biharko ikuskizun horretan misterioa eta tentsioa izango dira nagusi, baina umore ukitua ere ez da falta izango emanaldian.

Sarrerak salgai

Espaloia kafe antzokian bertan edota www.entradium.com webgunean eros daitezke bihar gaueko ikuskizunerako sarrerak, bakoitza zortzi euroren truke.


Goiena Klubeko urriko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

EROSKI
ARRASATE

HP
Imprimagailua/
Eskanerra

Parte hartzeko sariaren izena: HP



CD-DVD
Korrontzi & Bos (3 CD-DVD)
Parte hartzeko sariaren izena: Korrontzi



www.harremendenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



ARRIKRUTZ
GATILLOBAIA

Sarrerak
Arrikruz kobetarako sarrerak
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



PARTE HARTZEKO:
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus
WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarpean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarpean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango dizu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Aitor Gonzalez | Marrazkilaria

"Balio bera ematen diet jasotzen ditudan kritika guztiei, asko motibatzen naute"

IDOIA DAVILA | OÑATI

Marrazketan talentu handia du Aitor Gonzalezek (Oñati, 1988). Instagram sare sozialean *Agm. drawing* da, eta bertara igotzen ditu marrazkiak. Mila jarraitzailetik gora ditu, eta, askotan, haiek egindako enkarguez osatutako eskaera-errenka luzea izaten du; izan ere, errealismo eta xehetasun handiko erretratuak marrazten ditu.

Zein da zure ibilbidea marrazketan?

Eskolan, arreta jarri eta etxeko-lanak egin beharrean, marrazkitxoak egiten nituen. Nik beti marraztu izan dut, Batxilergo Artistikoan hasi nintzen arte. Motibo pertsonalengatik utzi nuen eta hor eten bat egin nuen lau edo bost urtez. Baina 2013an berriro hasi nintzen marrazten.

Hezkuntzan arteari ematen zaion trataera izan daiteke Batxilergoa uztearen arrazoa?

Nik baietz esango nuke. Ez nuke esango erabilia sentitzen nintzela, baina ordu askoz egoten ginen marrazten. Interesatzen ez zitzaizkigun gauzak marrazteko agintzen ziguten, eta, nolabait esateko, irakasleak ez ziren gure nahi eta interesekin arduratzen. Nik uste dut horregatik utzi nuela, buruari asko eragin nion eta pentsatu nuen, beharbada, hura ez zela niretzat. Hortik aurrera, motibazioa galdu nuen marrazketan.

Zergatik hasi zinen berriz marrazten?

Pertsona bati esker hasi nintzen berriro marrazketan. Nire marrazki zaharrak ikusi zituen eta behin eta berriz errepikatzen zidan talentua nuela eta gehiago marraztu behar nuela. Haren ustez, pena zen talentu hori alferrik galtzea, eta, gainera, marrazten nire arazoak ahazten nituen. Horri esker hasi nintzen berriro marrazten.

Zein da zure lan-prozesua?

Lehenik, argazki bat jasotzen dut; izan ere, orain, erretratuak egiten ditut, gehienbat. Papera eta arkatza hartzen ditut, mahaia txukuntzen dut eta argazkiarekin egiten dudana lehenengo gauza proportzioak aztertzea da. Ondoren, zati ilunenak tintatzatzen ditut errotuladore beltz batekin eta kolorea ematen diot.

Erretratuetatik zer gustatzen zaizu gehien?

Askotan galdetzen didate hori. Berez, dena dut gustuko, baina xehetasun txiki guztiekin goza-

tzen dut gehien: oreztak (pekak), zimurrak, ilea...

Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Gutxi batzuk badituz, baina ez dira oso ezagunak, Instagramen ezagutu nituen. Askok gustatzen zait Bokkei, suediarra da eta nire antzeko teknika erabiltzen du; koloretako margoekin marrotzen du, nik egiten dudana moduan, eta asko gustatzen zaizkit haren marrazkiak. Carlos Avila mexikarrak errotuladoreak erabiltzen ditu, eta hori ere asko gustatzen zait.

Talentuak eragin handia du zure marrazketan edo gehiena esfortzuaren bitartez lortu duzu?

Argi dago talentua beharrezkoa dela, baina uste dut %90 edo gehiago praktikan dagoela, beste edozertan bezala.

Zein da jaso duzun errekonozimendurik handiena?

Niretzat, Instagrameko argazkietan jasotzen ditudan iruzkin positibo guztiak oso garrantzitsuak dira. Askok motibatzen nau denon errekonozimenduak.

Marrazketa inoiz zure ogibidea izatea gustatuko litzaizuke?

Serio ari naiz pentsatzen hori. Azkenean, marketineko adarretik joan nintzen, eta orain, Nazioarteko Merkataritza ari naiz ikasten. Egia esan, orain dela gutxi arte ez nuen pentsatu nire ogibidea izan zitekeenik; izan ere, beldurra ematen dit marrazketa obligazio bilakatzeak eta horrekiko gustua galtzeak. Baina azkenaldian berriz planteatzen ari naizen zerbait da.

Oraingoan, enkarguekin jarraituko duzu ala proiektu pertsonalak bideratzeko asmoa duzu?

Oraingoan, eta denbora batez, enkarguekin jarraituko dudala uste dut; buruan badituz, hala ere, hainbat proiektu pertsonal. Sarean denda bat irekitzeko asmoa dut, serigrafiaren bidez nire diseinuak dituzten kamisetak sortzea ere asko gustatuko litzaizake.

PERTSONALA

Marraztea edo margotzea: Margotzea.

Erretratu mota gogokoena: Pertsona edadetuak.

Tresna bat: Koloretako margoak.

Beste zaletasun bat: Batez ere, musika eta kirola.

Zure herriko gustuko txoko bat: San Martin.

Film bat: *Drive*.

Amets bat: Munduari bira ematea soinean daramadanarekin.

Plataforma bat: Instagram,

Erretratuak nahi dituen jende askoren eskaerak jasotzen ditu Gonzalezek.

ZORION AGURRAK



LEINTZ GATZAGA
Xabat Otazu Arzelus
Urriaren 27an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu potolo bat etxeko danen partetik!



BERGARA
Ibon eta Nekane Gabilondo
Urriaren 26an, 41 urte.
Zorionak, aitatxo eta tia Nekane maitxiak! Patxo handi-handi bana, Elixabeteren eta Martinen partetik!



ARRASATE
Nora Otxandiano Jausoro
Urriaren 24an, 9 urte.
Zorionak! Familia osoa batute ospatuko dogu zure urtegunen eta ederto pasauko dogu. Patxo handi bat. Etxekuek.



ARAMAIO
Maia Armendariz Eriz
Urriaren 24an, 3 urte.
Zorionak, polittoi, asko maite zaitugu!



ARAMAIO
June Armendariz Eriz
Urriaren 24an, 3 urte.
Zorionak, poxpolin, pila-pila bat maite zaitugu!



ARRASATE
Ekain Agirre Lete
Urriaren 24an, 5 urte.
Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta zorionak, Aimarren partetik bereziki.



ARRASATE
Alaitz Gomez Iñurrieta
Urriaren 24an, 11 urte.
Zorionak, Alaitz! Muxu handi bat aitaren eta amaren partetik.



ARRASATE
Nerea, Liher eta Aitor
Urriaren 23an, 6 urte. Zorionak hiru mosketeroei, Zigarrolako parkeko lagunek! Merendolan elkartuko gara, Makatzenan.



ARRASATE
Ixaso Saizar Cazalis
Urriaren 24an, 7 urte.
Zorionak, maitia! Ondo pasatu zeure egunian. Zazpi patxo potolo aitaren, amaren, Aneren eta Izarren partetik!



BERGARA
Aratz Maeztu Elkoroberezibar
Urriaren 23an, 4 urte. Zorionak, pitxin! Dagoeneko lau urte! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pilo bat etxekoen eta, bereziki, Anderren, Iratiren eta Unaxen partetik!



ESKORIATZA
Nora Berezibar Arevalo
Urriaren 22an, 8 urte.
Zorionak, printzesa! Gure etxeko poxpolintxoari, zorionak! Familia guztiaren partetik!



BERGARA
Beñat Villar Jimenez
Urriaren 22an, 9 urte.
Zorionak, mutikote! Ondo-ondo pasatu eta asko disfrutatu egun berezi hori. Patxo potoluk zure familiaren partetik.



ARRASATE
Urki Garitaonandia Uriarte
Urriaren 21ean, 10 urte.
Zorionak, txapeldun. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Maite zaitugun denon partetik.



ARRASATE
Oier Torres Navajo
Urriaren 21ean, urtebete. Zorionak, Oier, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu asko zure familia osoaren partetik. Opari asko jaso!



BERGARA
June Alberdi Gallastegui
Urriaren 21ean, 4 urte.
Zorionak, Junetxo! Patxo potolo bat familia guztiaren partetik eta oso-oso ondo pasatu!



ARRASATE
Ane Goya Urain
Urriaren 21ean, 8 urte.
Muxu handi bat familiaren partetik. Ondo pasatu!



BERGARA
Olatz Almortza Arregi
Urriaren 20an, urtebete.
Zorionak, printzesa! Urtetxo bat jada. Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean. Txokolatzeko patxo handi-handi bat Ametsen partetik.



ARRASATE
Lier Torres Sanchez
Urriaren 20an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo pila bat etxeko danon partetik. Maite zaitugu!



OÑATI
Aiert Marko Guridi
Urriaren 20an, 2 urte.
Zorionak eta urte askotarako, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Eider Velasco Racionero
Urriaren 19an, 4 urte.
Gure etxeko printzesa 4 urte egin ditu! Zorionak, maitia. Oso ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo bat etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Ane Urzelai Ibabe
Urriaren 18an, 3 urte.
Zorionak, pitxin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Patxo handi bat etxeko danon eta batez ere, amatxoren eta aitaixoren partetik!



OÑATI
Unai Izura Astigarraga
Urriaren 18an, 11 urte. Zorionak, etxekoen partetik, gure mendizale alai eta bizkorri.



ARETXABALETA
Irati Iturbe Murgiondo
Urriaren 18an, 8 urte.
Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



OSINTXU
Oier Laskurain Gabilondo
Urriaren 17an, 7 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Nerea Poza Lera
Urriaren 17an, 6 urte.
Zorionak! Zure familiaren partetik.



ARRASATE
Unai Velez de Mendizabal Otero
Urriaren 16an, 4 urte.
Zorionak, Unaitxo! Lau belarri tirakada eta muxu piloa familia guztiaren partetik! Saturnoraino eta bueltan maite zaitugu!



ARRASATE
Maien Barbero Beitia
Urriaren 15ean, 11 urte.
Zorionak eta musu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
Alaitz Nin Ugalde
Urriaren 14an, 2 urte.
Etxeko sorgintxoak bi urte beteten ditxu. Zorionak, Alaitz! Eguna ederto ospatu eta jaso patxo potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Maddi Mendizabal Larrañaga
Urriaren 14an, urtebete. Zorionak, maitxia! Jada urtetxo bat. Patxo handi bat etxekoen eta, bereziki, Oierren partetik.

ZORION AGURRAK
TELEBISTAN

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 | MADDIK AURKEZTUA



HERRI TELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

ASTE A GOIENAN

**Bergarako eta Oñatiko osoko bilkurak ikusgai**

Astelehenean egingo dute Bergarako hil honetako ohiko osoko bilkura eta martitzenean ikusi ahal izango da osorik Goiena telebistan, 22:00etan. Oñatin, berriz, eguenean izango da, eta egubakoitzean eskainiko dute telebistan, herriko kontuen berri jasotzeko.

'Osoko bilkura'
Martitzena, 22:00

**Arrasateko Tafyd krosa 'Harmailatik' saioan**

Gaur, egubakoitza, egingo dute Arrasaten Tafyd krosa, eta bertan jasotakoak erakutsiko dituzte asteleheneko kirol saioan. Eta eskubalo kontuak ere landuko dituzte saioan; izan ere, asteburuan Ford Mugarri Arrasatek Izarraitz taberna Aloña Mendiren aurka jokatu du.

'Harmailatik'
Astelehena, 22:00

LABURREAN

'Marina' opera ikusteko sarrerak zozketan

Hilaren 31n Amaia antzokian izango da *Marina* opera, 20:30ean, eta bertara joateko sarrerak zozketatuko dituzte Arrasate Irratian, Ozenki elkartearen eskutik. Sarrerak lortzeko eta zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.eus helbidera.

Anger taldea, Italian eta Suitzan egon ostean

Kontzertu bana eskainiko du Arrasateko Anger taldeak Italian eta Suitzan, asteburuan. Zuzeneko horiek nola joan zaizkien kontatzen izango dira astelehenean *Igo autobusera!* irratsaioan, 10:00etan. Bidaian izandako esperientziaren berri ere emango dute zuzenean.

Kontsultatu sarean telebistako programazioa

Asteburuan eta astean zehar Goiena telebistan zer izango den kontsultatzeko, eskaneatu beheko QR kodea.



Goiena telebistako programazioa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**Nagore eta Rober**

Nagore Navajo eta Roberto Torres zapatuan, urriaren 24an, ezkondu dira Arrasateko udal-etxean. Ondoren, Santuario de Arantzazun ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu eguna eta eztei-bidaian. Zuen familiaren partetik, muxu asko eta oso zoriontsu izan!".

**Pedro eta Maria Rosario**

Maria Rosario Azpiazu eta Pedro Arriaran urriaren 25ean ezkondu ziren, orain 50 urte. "Zorionik beroena eta muxu handi bana zuen urrezko ezteietan, familia osoaren partetik, bihotz-bihotzez".

**Ricardo eta Carmina**

Ricardo Mosteiro eta Carmina Garcia Legazpin ezkondu ziren orain dela 30 urte. "Zorionak eta urte askotarako, familia guztiaren partetik! Besarkada berezia Piporen partetik".

**Felix eta Paula**

Felix eta Paula Musakolako Santa Teresa elizan ezkondu ziren orain dela 40 urte. "Zorionak, familia osoaren partetik! Batez ere, Eider bilobaren partetik: 'Amama eta aitaita, asko maite zaituztet'. Zuekin ospatzeko irrikan gaudel! Muxu potolo bat".

**Florencio, Ramon, Mercedes eta Carmen**

Florencio eta Ramon anaiak eta Mercedes eta Carmen ahizpak urriaren 19 ezkondu ziren orain dela 60 urte. Oñatiko eta Gastiaingo (Nafarroa) familiaren partetik, zorionak!



OROIGARRIA

**Mari Tere Arriaran Aranburu**

Urriaren 20an hil zen, 83 urte zituela.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestek.

Etxekoak.
Arrasaten, 2015eko urriaren 23an.


ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienan.

HILDAKOAK

Jabier Maria Zangitu Alberdi. Bergaran, urriaren 15ean. 65 urte.
Josu Mirena Asula Txurruka. Bergaran, urriaren 16an. 49 urte.
Maria Zabarte Astaburuaga. Arrasaten, urriaren 16an. 92 urte.
Iñaki Zeziaga Mondragon. Arrasaten, urriaren 17an. 59 urte.
Domeke Elexpuru Altube. Aramaion, urriaren 18an. 96 urte.
Juan Jose Astola Nafarrate. Arrasaten, urriaren 18an. 83 urte.
Jesus Angel Milan Alvarez. Arrasaten, urriaren 18an. 64 urte.
Anita Urkia Ugarte. Arrasaten, urriaren 19an. 90 urte.
Josu Alberdi Ruiz. Bergaran, urriaren 19an. 53 urte.
Mari Tere Arriaran Aranburu. Arrasaten, urriaren 20an. 83 urte.
Itziar Bazanbide Bidaburu. Aretxabaletan, urriaren 20an. 61 urte.

ESKER ONA

**Maria Zabarte Astaburuaga**

Eugenio Barrutiabengoa Arberen alarguna

2015eko urriaren 16an hil zen, 92 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2015eko urriaren 23an.

ESKER ONA

Itziar Bazanbide Bidaburu

Urriaren 20an hil zen, 61 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2015eko urriaren 23an.

ESKER ONA

Domeke Elexpuru Altube

Andres Aginagaldereen alarguna

Urriaren 18an hil zen, 96 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, urriaren 25ean, 12:00etan, Aramaio San Martin parrokian. Bertaratuko zaretenoi aldezkirik eskerrik asko.

Aramaion, 2015eko urriaren 23an.

OROIGARRIA

**Iñaki Ceciaga Mondragon**

'Divino'

2015eko urriaren 17an hil zen, Iruñean, 59 urte zituela.



Orain gure ametsetan bizirik zaude. Benetan, zeruko izarretan eta gure bihotzetan.

Antzuolako familia.
Arrasaten, 2015eko urriaren 23an.

OROIGARRIA

**Iñaki Ceciaga Mondragon**

'Divino'

2015eko urriaren 17an hil zen, Iruñean, 59 urte zituela.



Ez dau hitzik defineruko zaitxuenik
Izan zarengatik eta erakutsitako lekziño danengatik,
Gurekin eruenngo zaitxugu egunero.
Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez dalako, beti egongo zara gure bihotzian.
Gero arte, Iñá. Izartxo horretan elkartuko gare.

Guraso, anai-arreba eta ilobak.
Arrasaten, 2015eko urriaren 23an.

OROIGARRIA

**Iñaki Ceciaga Mondragon**

'Divino'

2015eko urriaren 17an hil zen, Iruñean, 59 urte zituela.



Egiten hasiko gara eta ahalegintzeari utziko diogu.

Gogoan zaitugu.

Copreciko lagunak.
Aretxabaletan, 2015eko urriaren 23an.

OROIGARRIA

Jesus Mari Asula Txurruka

2015eko urriaren 16an hil zen, 49 urte zituela.



Beti izango zaitugu gogoan.

Jose Mari, Vega eta Ibon.
Bergaran, 2015eko urriaren 23an

OROIGARRIA

Jexux Asula Txurruka


2015eko urriaren 16an hil zen, 49 urte zituela.



Ez egin negarrik,
askatasun-haizea naiz.
Adiarik ez.

Zure lagunak.
Bergaran, 2015eko urriaren 23an

OROIGARRIA

**Jesus Mari Asula Txurruka**

2015eko urriaren 16an hil zen, 49 urte zituela.



Zelako oroitzapena
ez dugu ahaztuko sekula.
Gure agurrik sentikorrena
zuretzat, lagun, Axula.

Lagunak.
Bergaran, 2015eko urriaren 23an.

URTEURRENA

Maria Jesus Zabaleta Lamariano

2014ko urriaren 30ean hil zen, 73 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 25ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko urriaren 23an.

URTEURRENA

Fermin Urkia Uriarte

2014ko urriaren 19an hil zen, 69 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2015eko urriaren 23an.

URTEURRENA

**Margari Beitia Urkia**

2014ko urriaren 20an hil zen, 89 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2015eko urriaren 23an.

URTEURRENA

Luis Arando Iturbe

2014ko urriaren 25ean hil zen, 83 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 25ean, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2015eko urriaren 23an.

URTEURRENA

**Kepa Jauregi Olabe**

2014ko urriaren 28an hil zen.



Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 25ean, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2015eko urriaren 23an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta trataturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

ARRASATE Pop musika jostailuekin

Jostailuekin jotako haurrentzako pop musika egiten du 2 Princeses Barbudés talde katalanak. Poesia eta musika minimalista duen diskoa euskarara itzuli dute, taldeko kide Helena Casasek ikusmin handia zuelako. Maialen Lujanbio eta Joseba Tapia izan dituzte lagun proiektuan.

Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 18:00etan.



2 PRINCESES BARBUDES



GOIENA

ANTZUOLA Haur Dantzarien Eguna

Oñatiko, Soraluzeko, Arrasateko eta Legazpiko taldeko dantzariak ariko dira Oinarineko dantzariekin. Guztira, 110 neska-mutiko. Goizean kalejira egingo dute eta etxeetan bazkaldu ostean alarderako elkartzeko dira Herriko Plazan.

Etzi, domeka, Antzuolan, 10:00etan.

MUSIKA**ESKORIATZA Governors taldea**

Birari amaiera emateko kontzertua egingo dute arrasatearrek, Atxorrotx kultura elkartearen eskutik. Sarrerak bost eurotan leihatilan, egunean bertan.

Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 23:00etan.

ARRASATE Iker Lauroba

Lauroba taldearen abeslariak bakarkako saioa egingo du.

Gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 00:00etan.

OÑATI Zapaturrock 2015

Sare ekimena babestuko duen ekitaldia. Poesia, rock-and-rolla eta aldarrikapena bat eginda: PObreESIAK, Bi Xahar Geldo, Kepa Zelaia, Txulento's eta Papalagi. Ekitaldi osoan zehar dispersioaren aurkako *selfie* emanaldia egingo dute.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 19:00etan.

ARRASATE Criminal Remains

Punk-rock eta hardcore doinuak lantzen dituen Aretxabaletako taldearen emanaldia. Doan.

Gaur, zapatua, Jai Zale tabernan, 18:30etan.

GAZTELEKUAK**BERGARA 'Eraiki leku'**

Gaztelekura doazen kuadrillekin elkartzeko dira begiraleak, ideiak jasotzeko edo proposamenak egiteko. Guztion artean gaztelekuko dinamika eraiki gura dute.

Gaur, egubakoitza, Xabaloten.

ARRASATE Sukaldaritza saioa

Txokolatea eta txurroak egingo dituzte gaztetxoek zapatuan eta domekan.

Aipatutako egunetan, ergiguneko gaztegunean, 18:00etan.

BERGARA 'Paintball'-era irteera

Zarauzko *paintball*-era joango dira. Aldez aurretik izena eman dutenak bakarrik joan ahal izango dira.

Aipatutako egunetan, ergiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Paintball'-era irteera

Galarretako *paintball*-era joango dira.

Bihar, zapatua, AZBEko autobus geltokian, 13:45ean.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

URRIA 23
URRIA 30**ESKORIATZA 'Paintball'-era irteera**

Galarretako *paintball*-era joango dira.

Bihar, zapatua, Akeitako autobus geltokian, 13:45ean.

ANTZERKIA**ELGETA 'Mejor viuda que mal casada'**

Beatriz Rico antzezlearen bazarriketa komikoa. Sarrerak 10 euro; eta aurrez erosita, 8 euro.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30etan.

ARETXABALETA Tomaxen Abenturak

Festara antzezlan eskainiko die neska-mutikoei. Sarrera, 3 euro.

Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

JAIK**BERGARA Espoiloiko jaiak**

Espolitoixoren jaitzierarekin hasiko dituzte jaiak, 12:00etan. Ostean, haurrentzako jolasak, auzoko bazkaria, mus txapelketa, karaokea, triki-poteoa eta DJ Julenen emanaldia.

Bihar, zapatua, Espaloian, egun osoan.

ERAKUSKETAK**OÑATI 'Ibaialde'**

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren erakusketa didaktikoa. Bederatzi paneletan banatuta.

Kultura etxean, urriaren 22ra arte.

BERGARA Jose Antonio Untzurrunzagaren erakusketa

Oñatiarraren 45 erretratu.

Azaroaren 1era arte, Aroztegin.

OÑATI Alvarez de Eulateren omenezko lehiaketaren erakusketa

Arantzazu eta hango inguruak irudikatzen dituzten askotariko estiloetako 33 lan.

Azaroaren 1era arte, Gandiaga Topagunean.

ANTZUOLA Iker Aizkorbe

Zazpi kolore delako argazki erakusketa ipini du.

Urriaren ikusgai, Aitz Garbi tabernan.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina.

Haresi aretoan ikusgai.

UMEAK**ELGETA Ipuinen ordua**

Herriko boluntario baten eskutik 3-8 urte arteko neska-mutikoen-dako saioa, euskaraz. Liburute-giaren Nazioarteko Egunaren harira saio berezia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

HITZALDIAK**OÑATI Senari buruz berbetan**

Senaren edo instintuaren teoria eta konfiantzaren pedagogiaren oinarriak delako berbaldia egingo dute. Haurdunendako eta 0-1 urte arteko umeak dituzten gurasoendako.

Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

BERGARA 'Dependentzia'

Ander Rodriguez diputatu ohiak egingo du berba.

Gaur, egubakoitza, Lagun Leku elkartearen, 19:00etan.

BERGARA 'Eskura' aurkezpena

Bergarako Gure Esku Dagok aurtengo dinamikaren berri emate-

ko eta herritarrekin iritziak partekatzeko aurkezpena egingo du. Bihar, zapatua, Irizarren, 10:00etan.

BERGARA Juanjo Alvarez

La familia y Europa delako berbaldia egingo du. Hitzaldia irekia da, interesa duen edonorendako.

Urriaren 26an, udaletxean, 10:00etan.

ARRASATE 'Feminismoa eta euskara bidaide'

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel gonbidatu ditu Emakume Txokoak. Azalpenak eman ostean, galderak egiteko aukera izango dute entzuleek.

Urriaren 28an, Kulturaten, 19:00etan.

IKUSKIZUNA**ARRASATE 'Debla' opera flamenkoa**

Gaixotasun mitokondrialen ikerketa bultzatzen laguntzeko dirua batzeko opera saioa egingo du De Norte A Sur taldeak askotariko dantzen bidez.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

LITERATURA**OÑATI Ilustrazio tailerra**

Eider Eibar ilustratzaileak egingo du saioa 5 eta 10 urte arteko umeendako. Bere lanbidea azalduko die umei eta haien laguntzarekin hainbat pertsonaia marraztuko ditu.

Bihar, zapatua, liburutegian, 12:30etan.

OÑATI Lehen literatura topaketa

Nazioarteko Liburuaren Eguna- ren harira lau idazle elkartzeko dira: Cristina Morano, Jose Daniel Espejo, Hedoi Etxarte eta Danle Sarriugarte.

Bihar, zapatua, liburutegian, 19:00etan.

BESTELAKOAK**ARAMAIO Eztien dastatzea**

Aurtengo ezti berriak probatzeko aukera Aramailur kontsumo taldearen eskutik. Ezti mota ezberdinen ezaugarriak zeintzuk diren azalduko du Juan Mari Arriola-bengoak. Ostean, Aramaion ekoizten diren eztiak dastatzeko eta erosteko aukera egongo da.

Urriaren 28a, Sanstifian, 18:30ean.



EUROPAPRESS.COM

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Batzoki jatetxeko legatza karabinero saltsan.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-10-23

AZKEN BERBA

AINZANE OIARBIDE



Orain, herriaren erabakia

Gardentasuna, parte hartzea, kontsulta, joan den legealdian hitzetik hortzera erabilitako hitzak izan dira. Demokrasiaren kontzeptua adierazten duten hitzak hutsak gertatzen dira ekintzekin demostratzen ez badira. Zabor eta hondakinen zoritzarreko festaren gurpilean galdutako denbora, dirua, baliabideak, bizilagunen arteko haserre eta ikusezinak behin betiko karpeta beltzean sartu eta badator garai berria. Herriari hitza eman, demokrasiari zentzua eman eta zaborren auziari ea betiko amaiera ematen diogun. Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergara izango dira honetan eredugarri, Elgeta bere garaian izan zen bezala. Hemendik aurrera, politikariok geroz eta gehiago hartu beharko ditugu aintzakotzat herritarren eskaera bazterrezinak, jendetsuak eta ozenak, ez baitira nahikoak hauteskunde programan egiten ditugun zinak gero ez bagara gai belarri ondoan egiten diguten garrasia entzuteko. Azken urteotako auzirik garrantzitsuena hondakinak biltzeko sistema izatea ez da gure gizartearen osasun onaren adierazgarri, baina herritarrek bizirik daudela argi utzi dute, eta orain bai, denona izango da erabakia.

BUKATZEKO

"Denok merezi dugu beste aukera bat"

- Bizitzak eman arren, askotan gizarteak ukatzen duen bigarren aukera hori aldarrikatu dute
- 'Barruak astintzen' dokumentalean jaso du esperientzia aitzindaria Goiena Telebistak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Estigma horiekin kalte handia egiten diguzue, ze pentsarazten diguzue gu gutxiago garela" (...) "Ez dugu behar inor zuriz jantzita atzetik, bultzatzen, edo hau ez, bestea bai... esaten" (...) Ez dago horrenbesteko distantzia gaixo baten eta, kasu honetan, ikasle baten artean" (...) "Lehenengo egunean, heldu ginenean, ziren gaixoak; baina gau horretan egiten genituen eurekin gauza berak, eta..." (...) "Arespalditza izan da aldaketa bat bizitzan. Ze ospitaleko bizitza eta Arespalditzakoa oso desberdinak dira"(...) "Denok merezi dugu beste aukera bat bizitzan".

Gizartearekin partekatu guran

Horiexek dira buruko gaixotasun larria duten Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko hamabost pazientek eta Arizmendi-Almen Ikastolako bederatzi ikaslek Goienaren bitartez partekatu dituzten mezueta batzuk.

Lau egunez elkarrekin bizi izan dira ospitaleratua eta ikasleak, Arabako Arespalditza herrian; eta bertan bizitakoak eta ikusitakoak Goiena Telebistak jaso ditu *Barruak Astintzen* izenarekin bataiatutako dokumen-



Xabier Loiarte, ospitaleko lorategian paseatzen. | JAGOBA DOMINGO

talean. Atzo, eguena, izan zuen estreinaldia, baina datozen egunotan ere ikusi ahalko da: gaur, egubakoitza, 12:30ean, 15:00etan eta 19:00etan; bihar, zapatua, 12:30ean eta 21:00etan; eta domekan, 10:30ean, 19:00etan eta 22:30ean.

Esperientzia "aberasgarria"

Dokumentala egiteko lanketari buruz galdetuta, esperientzia abe-

rasgarria eta ikasgai garrantzitsua izan dela azaldu du Goiatz Arana kazetariak: "Begirada zintzoak aurkitu ditugu buruko gaixotasuna duten pertsonetan, zentzu handiko arrazonamenduak eta gugandik oso urrun zeudela uste genuen istorioak baino askoz gertukoagoak. Ahalegin handia egin dute guztiek Arespalditzan eta nahiko nuke lan honek ere zerbait aldatzeko balio izatea".



Jorge Juan Martin ospitaleratua. | J.D.



Maria Jara ikaslea. | J.D.



Aiert Olasagasti ospitaleratua. | J.D.

Egin iezaiezu **SCHOOL VISUAL TEST-a** zure haurrei

Eskola-porrotan %80a, ikusmen arazoan ondorio dira. Zure haurrek ondo ikusten al du?

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

www.multiopicasgipuzkoa.com

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan